

# URTE BAÑIA DALA-TA



ZKURTZ edo erlejiño arasoetan, non nai oartzen dan epelkeriak ez yakiñean dauko bere sustafa. Bossuet'ek bere aldian esaten eban letxe, gaur be esan geinke: Gure arteko gaitzik andiena, ez yakitea da.

Eta olan dan ezkeru, yakiña da, lan onuratsurik egingo ba'da «ez dakianari irakasten» ekitea bear-beafekoa dala.

Eta onetan ekin beaña, ez uste abadeak *bakañik* daukogula, gure Aita Santu agurgañiak sañitan esan daben lez, eta egunokaz bañiro Bretram Kardenal eta Brelau'ko Gotzañari idatzi dautson lez, «Katoliko Ekintzan», gizon eta emakume adin gustietakoak, bakoitzak al daben eran, Eleizako buruen menpean lan egin bear dabe' ziiñesteko azia zabaltzen, oitura onak indartzen, itz baten, Kisto'ren agintza giza biotz gustietaraño eldu eragiten.

Eta au bakoitzak, norberagandik asita egin biar dala, esan beafik ez dago, maitasun zuzenak norberagandik asitakoak izan bear dau ta.

Eta egiñean be auxe da «YAUNGOIKO ZALE»n asmo bakaña igaroko amazortzi urte onetan. Zer egin daben?... Ainbeste etsai eta eragozpenez inguraturik «al izan dabena» egin dabela esan geinke. *Ikusi gura dabenentzat* or dago bere lana, eta uste dot, ezer egin ez dabenai burua makurtu eragiteko lain ba'dala...

Baita be, egiz esan geinke, bazkide bakoitza bere bearkuna zintso betetan alegindu ba'litz, egin dan baño zabalkunde geyago eta onuratsua goa egingo zala. Onetan bazkide maiteok, alegin gustia egin bear dogu. Urte bafiz indar bafiak artu bear ditugu, ez «asmo bafiak» artzeko bakañik, bete ez dituguzan «asmo zañak» bafiztatzeko be bai...

*Gasteak*, aguretuta lez geldi egon barik, euren izenen yaube eginda. *Zartzat*

dagozanak, euren gogotik gastetasunari iges egiten ez laga-ta, zañari kalterik geyen, *zaña dala* uste izateak egiten dautso-ta.

*Zar usaña* norberagandik ufinduteko, biderik onena, *gaste* ba'litz letxe lanari gogoz ekitea langorik ez dago.

Beraz gas'teak gaste izateko lan egin bear dau, eta zañak gastetu gura ba'dau, lana lango osakairik ez dau aurkituko.

Eta norbaitek siñestu gura ezpaleu, *pruebea* egin dayela eta zuzen gagozala esango dausku.

*Ekin ba danok gaste ta zañok  
geure asmoak zabaltzen,  
ekin gustiok al dogun neuriz  
«Yaungoiko Zale» goraltzen.  
Olantxe Goiko irakatsiak  
Euskereagaz batean,  
sustartukoguz beti-betiko  
Euskaldunen biotzean.*

*Doipuruaren agintza batez  
«Kisto'n Agintza zabaldu,  
ta lan onetan il arteraño  
ez iñor iñoz aspertu;  
Gudari zintso lez yokatuta,  
batera yoan gaitean,  
euskaldun kistar zintzo izenen  
yaube garean artean.*



# BELEN'GO IRAKATSIAK

## Amak

*Ene Semetxo maite-maitea,  
neu-biotzeko kutuna,  
askatxo baten txiro-txirorik  
izanik oron zoruna?  
Zek ipiñi zau? Zelan da ori  
izanik ludiko Yauna?  
Gizonakaitik zerutik yatsi  
eskartxafeko efira?  
Apaltasunez inguraturik  
afokerien abira?  
Ez dakizu ba askok aintzat be  
artuko ez zaituela,  
ta euren efuz orixe dala  
asko galduko dirala?  
Ez dakizu ba neure kutuna,  
eskar txafaren abia  
izaten dala ongileentzat  
zoritzafeko ludia?  
Ez al dakizu apal ta txiro  
agertzen dana lufean,  
efuki barik ikusten dala  
beti txoko baztefean?  
Ez al dakizu gizonak iguin  
dautsola ezeukiari,  
eta ezetsiz begiratu be  
txabolan yayo danari?  
Ez al dakizu yasarpenean  
bizi bearko dozula,  
eta gizonak gurutza baten  
yosi egingo zaitula?  
Ez al dakusuz otso ankefen  
amofu zital gaiztoaz,  
etsayak zeure inguru beti  
Zeu erailtzeko asmoaz?...*

## Semeak

*Ba'dakit Ama nik gusti ori,  
ba'dakit zer dan gizona,  
maitasunafen natorkio ba  
erakustera zoruna.  
Afo-aforik or dabil beti  
aldi ta bazter danetan,  
apaltasuna erakusteko  
nago txabola onetan.  
Aberaskiak liluraturik  
dakustalako gaxoa,  
aska onetan agertzen dautsot  
zoruntza egiazkoa.  
Atsegin nayeaz, atsedeen barik  
dabil gizonen biotza,  
emen nauko Ni, erakusteko  
neke zalezko bizitza.  
Berekoya da gizon gaxoa  
beti dabil burukaltez,  
emen nauko Ni erakusteko  
ibilten zorion bidez.  
Bere obenak kentzeko nator,  
goi maitasuna emonaz,  
emengo poza emon nai dautsot  
goiko betiko zorunaz.  
Neure maitasun ordanez auxe  
da Nik eskatzen dodana;  
Gizadi orok biotz gustiaz  
beti maitatu nayela.  
Maitasun utsez etofi naz Ni  
Maitasun berbera Neu naz;  
Giza biotzak ez nau maiteko  
bere almen gustiagaz?...*

GABIREL.

# KATOLIKO IZPARAK

## *Katolikotuteak geroago geyago.*

Londongo alde baten, Westminster'en, 1927' gafen urtean katolikotu diranak, oraintsu agertu dan bertoko doibatz-ixendegiak dakarzkuz.

Biurkondeak urte ofetan, Westminster gongoterkian 1454 agiri dira. Euronartetik, Josulaunen yauretxean, (Jarm-street), 134; Westminsterko gotzainyauretxean, 70; Oratory'an, 81. Eta enparauak, banatuta.

Ugtzak, 7.036 eta eskontzak, 2.453 izan dira.

## *Meza deuna ta irakiña.*

Meza deuna irakiñez ifanduteko Eromak galazo eukela ta, onen bafia zabaldu zanian, Pittsburgh'ko James R. Cox yaupariak, yonan diran urtietan, eleizkizunak eta, irakiñez banandaten ebezela adierazorik, izan zan Eromara. Itandu eban an arazo ofetzaz, eta Doibatzeko andikiren batek, galazotze ori Austriako yauretxe baten-tzat baiño etzala izan, erantzun eutson, Austriako oferi be, katolikuen arerioek ifadok artu ta okertzen ebezalako, galazo izan yakela.

Doibatzaren erabagia, gai aunetzaz ez dogu ezagutzen, Austriako ziyok bafiz, beste alde askotan be, bildur izateko agertuko dira.

## *Batza bafia.*

Apal-apal eta ixilik, 1923'gafenian sortuta, Bats oso begiko bafi bat erne ei da Glasgow'en,

belguntzetan egiñ beafak obeto lortzeko asmuaz. Osatzaleari aspaldian, eta ointsu, belguntzeta-rako egin yakezan deyak, Alemaniñ eta, entzun-go zenduen onezkeru, irakurle maite ofek.

Ora doa, ba, Bazkun bafi ori.

Ixentzat «Institutum Deiparae» artu dau, Andra Marin Amatasuna, kistar-amatasunaren eredu-tzat yarteko.

Bilkuna, andra osatzaile eta geixozaiñakin egi-ten da; ofetarikoak eta agiridunak, izan bear dira bazkide guztiak, ikasle ta osatzailegeyak be, afagotzez, artu al izanafen. Iru ziñeskain, landertasan, garbitasun eta Doipuruenganako men-petasunenak, dabez.

Euron zeregiñ berezia, Jainko eta Doibatzarentzat, edonun, belguntz-aldean batez be, eta osatzaileak egokiak diran arloetan, lan egieta da.

Glasgow'eko Gongotzañaren baimenaz yafi dira. Laguntasun eske, bazter guztietatik lasten etofri yakez. Bilkun bafi-bafiak, baiña, eziñ oindiño eskari guztiari bayetzik emon. Rhodesian (Apirka) eutsi dautso gaixoetxe bafi, osatzaile ta geixozaiñak ara bialduta.

Uzta ta artzekoak, belguntzan, andiak dira. Lagun, babesle, ugixo, soroski eta abar, Batz oferi elduko al yakoz. Bere etxea, Glasgow -Chiif Medical Officer—«Institutum Deiparae»—Renfrew-street'an dago.

«The Catholic Times»fik 14-XII-28.

# EKIN BEAÑA



IZONARENTZAT gauzarik zälena eten barik ekitea da. Gure gogoa bere-  
nez aldakora da-ta, gauza batek nekatu egiten dau, eta auxe dala-ta,  
mitxeleteen antzera, igari barik, gauza batetik bestera yoaten zale-zalea  
yaku.

Eta auxe, aldakorkeri au aspiratzea gauzarik zälentarikoa dala, edozeñek  
norberagan ikusi geinke. Onetan garailari urteten dabenagandik zerbait itxaron  
geinke, eta au egiten ez dabenak lan iraukorik ez dau egingo.

Egia esan, lan egiteko adimen zoli ta trebeak asko laguntzen dau, baña  
gurari kementsua beara goa dala esan geinke. Gizonak lortu dituan garaitzarik andi-  
enak gurari iraukor oneri zor dautsoz, eta gizartean geyen galendu diranak, lan-  
gile purukatuak izar dira. Izateak, gauza andirik ezez egiteko almenik ez dausku  
emon, beraz aritzen gaituen lan edera ikusten ditugunean, egileari bere ixerdiak  
kosta yakozala uste izan geinke.

## AITZAKI LABUÑA

«Ni orotarako ez naz gauza» esatea oso ezeza da; baña onetan geyenez,  
alperkeriaren aitzaki bat obeto ikusi bear dogu, egiz eziña baño. Al doguna  
egingo ba'gendu, «nik ori ezin neike» gitxiagotan esango geunke. Egiz, bakoitzak  
gauza baterako ezeztasun geyago euki oi dau: gusfitarako gai diranak gitxi dira,  
baña ezertarako gai ez diranak gitxiago.

Gauza bat egin geinken ala ez buruausten ibili baño, ekitea obe litzakigu,  
eta orduantxe, al doguna eginda gero, egiz esan al izango dogu gauza ori geinken  
ala ez,

Bakoitzak orixe egingo ba'leu, mundua beste era baten ibiliko litzake.

Norberen sorbaldan eroan ezin geinken zamea leporatzea, tentelkeria litzake, baña ezin dogula uste izatea, tentelkeri aundiagoa da. Gustiok al doguna egin bear dogu, gustiok zerbaiteko gai izango gara-ta.

## EKIÑAREN ONURAK

Ekiñak lanerako eretzasuna emoten dau. Lan egiten lan eginda ikasten da, ibiltzen ibilita ikasten dan letxe.

Erabiliak gauzarik latzenak be leundu egiten dira, ekiñak adimen zořenak be landu. Ur tantak ekin ta ekin ari gogoña zulutzen dau, ekiñak eragospenik latzenak aspiratzen ditu.

Egiz eta benetan, bakoitzak ezertarako gauza ez dala esan leike, orixe benetan uste dabenean bakarrik.

Ameslariak ez gara izan bear, baña baikor edo optimistak bai. Baikor izateak geure gogoari egoak emoten dautsozala dirudi, ezkor izateak gauza ez dala itxiten daben letxe.

Egindakoa beti an egongo da, aurrera yarıitu ez-da be, asten ez ba'gara bariz, ezer amaitu ez eta bizitzako bideak zear loratzik itxi barik igaroko gara...

## EKIN BA

Ekin dayogun ba lanari, oldoskun onak zabaltzen, idazti onak ugaritzen, aldizkingi au eta beste onak zabaltzen, itz baten *egin*, *irakurri* ta *zabaldu*, eta geuk uste dogun baño lan onuratsuagoa egingo dogu.

Guk besterik ez bada, azia erein daigun, beste batsuk igaliak artuko ba' dabez be.

Guk, gitxi nai asko, al dana egin daigun, egiña eginda geldituko da-ta.

Etořiko diranak ez dayela esan, guk ezer egin ez gendualako, gauza gustiak barien bari asi bearean aurkitzen dirala...

# AITA SANTUAREN GORALBENEZ

## Bere abadegintzako 50'n urtea dala-ta.    ④   ④   ④

XI'n Pio Doipuru agurgariak abadegin-tza artu ebanetik 50'n urtean sartu gare-ala-ta, lurbira gustiko katolikotarak yazo-kun gomutagari au bear dan lez ospatzeko gogo bizia agertu dabe. Aita Santua goraltzeaz, Doipurutza ta beraz Eleiz Ama goraltzen dogun ezkerro, gustiok gogoz eta maitasunez urte au ospatu bear dogu. Au katoliko sentzunak eskatzen dauskuna da.

Eta «Yaungoiko Zale»n asmoak euskaldunen artean, euren elez, Yaungoikoa'k gura daben lez, Efomatik datorkiguzan zeruko izpiak zabaltzea dan ezkerro, beste edozeñeri bestean beintzat, urte au maitasunez ospatzea dagokigu.

Eta lenen beintzat bere bizitzako izpar labur batzuk ipiñiko doguz.

## XI'n Pio'ren bizitzako urte gomutagarietak.    ④   ④

1857'ko Oñila 31'an Desio, Milan'go goterkiko urian jayo zan. Bere bateo izenak, Ambrosi, Damian, Aquiles dira.

1879'ko Lotazila'ren 20'an Efoma'n abadegin-tza artu eban.

1882'ko Epala'tik Bagila'ra, Eleiz lege-

di, Teoloji ta Pilosopi yakidietan irakasle edo doktor txapela irabazi eban.

1882'ko udan Barni'ko txaunburu ordeko izentau eban, eta udea igarota, Zenakulo'ko Milan'go lekaimeen kapilau. Toki onetan 32 urtean, 1914'arte egon zan. Birtartean, 1888'ko Azila'n, Ambrosiana deritxon Milan'go idaztitegiko Doktor autu eban. Aurreko zortzi urteetan Eleiz izlartza eta Teolojia azaldu zituan.

1907'ko Epala'n Ambrosiana'ko lendakari egin eban.

1907'ko Epala 6'an, «Prælati domestico» izentau eban.

1914'ko Iraila'ren 12'an Batikano'ko Idaztitegiko Lendakari.

1914'ko Iraila'ren 14'an, «Protonotario Apostólico».

1918'ko Yoñala'ren 25'n Polonia ta inguruetako, Aita Santua'ren Ordezko Iker-tzale.

1919'ko Uñila'ren 29'an Varsovia'ko goztaintza artu eban.

1921'ko Yoñala'ren 19'an, Adana'ko Gongotzain izena emon eutsoen.

1921'ko Bagila'ren 13'an Milan'go Gongotzain eta kardenal.

1822'ko Otsala'ren 6'n Aita Santu'tzat autu eban.

1922'ko Otsala'ren 12'n andikiro Doipuru Burestuna artu eban.



Onexek dira gure Aita Deunaren bizi-  
zako urte gomutagarrienak. Osasuntsu,  
yakitun, kementsu ta onbidetsu onen lan-  
nak afigaŕiak dira, batez be, Doipurutza  
bere gain artu eban ezkerotik. Lan onein  
baŕi zelanbait emoteko asmoa daukogu,  
baŕia gaurkoz urtearen asieran gagozan  
ezkero, iraisean baŕio ezpada be, igaro  
dan urtean «Kristo'ren gentza, Kristo'ren  
bakaldefian» zabaltzeko emon dituan ira-  
katsiak bakafik aitatuko ditugu.

“Eleizen batasunatzaz”

“Mortaliū animos” idaz-  
ki Orokoŕa. ☉ ☉ ☉

Gai gaŕantzitsu onetzaz, Urtaŕia'ren  
11'n argitaldu eban. Bere baŕi luze xamar  
Epaĭa'ren 15'eko zenbakian emon gendun.  
Aita Santuak, guda ostean eŕien artean  
alkartzeko lera nonai zabaldu dala aitor-  
tu ondoren, tamalez beterik dakus, batze-  
ko lera au batsuk erlejiŕioen batasunera  
zabaldu gura dabela gustiak, egizkoa ta  
guzurŕezkoak, bardin onak balira letxe.

XI'n Pio'k argiro azaltzen dau batasun  
au ezin leitekena dala. Kistar alkartzetik  
ezin leitekela izan, protestanteak nai  
daben lez bakoitzari nai dabena ziŕnesteko  
azkatasuna emoten ba'yako. Maitasuna  
zabaltzea gauza ona dala, baŕia ziŕneste  
sustarŕik ezpadauko guzurŕezkoa izango li-  
tzakela. Egizko ziŕneste Eŕoma'tar Elei-  
zak bakafik dauko, eta beraz batasuna  
ordu txafean aldendu ziran Aitagana biur-  
tuta bakafik egin leikela.

“Miserentissimus Redemp-  
tor” Yesus'en Biotzagana-  
ko zaletasuna.

Gai onetzaz idazki eder-edeŕa Oriĭa'ren  
8'n argitaldu eban. Beronen baŕi Dagoni-

ĭa'ko 1'go ta 15'gn. eta Uŕiĭa'ko lenengo-  
an emon gendun. Idazki onetan Yesus  
Biotz maitagarŕiaganako zaletasunetik sor-  
tzen dan bearkun bat azaltzen dau. Kis-  
taŕak gitxi ezagutzen dabean eginbeaŕa:  
obenena zoŕa ordaintzeko beaŕizana eta  
iraingetzeko daukagun bearkuna. Yesus'  
en Biotza poztu egin beaŕ dogu; gure ne-  
keak Yesus'enakaz alkartu beaŕ doguz,  
batsuen gaiztakeriz eta beste batsuen  
epelkeriz, obenena ordaŕnez nekatze au be-  
ariz beaŕizanekoa dalako. Au ezpai bar-  
riz, bakoitzarentzat, sendientzat eta eŕi-  
entzat gustiz onuratsua izango da.

\* \* \*

Epaĭa'n argiro azaldu eban bere egoera  
Eŕoma'n Aita Santu bateri dagokion az-  
katasun bakoa zala. Tyrol'go katolikoai  
euren izketaz kistar ikasbidea ikasteko  
dauken eskukidea zapaldu gura izan eu-  
tsen Italitar agintariak eta onein aldez go-  
bernuari zerbait adirazteko Piffi Viena'ko  
kardinalak esan eutsonean auxe, erantzun  
eutson: «Nik al izan dodan gustia egin  
dot; ba aita batek seme gustiekaz ardura-  
tzendan aŕen, berariz nekepean dagozan  
semeakaz arduratzen da. Baŕia esan egio-  
zue argi zeure menpeko katolikoei, nik  
beaŕ dan azkatasunik ez dodala, eta Ita-  
lia'n Eleiza ta Lateŕien arteko artu-emo-  
nak, 1870'ko Iraĭa'ren 21'n izan ziranak  
berberak dirala». Ori Musolini'n lege gus-  
tiek gora-bera.

\* \* \*

Dagoniĕan, beste iŕiŕongo lateŕik baŕio  
lenago, lendik naiko argiro Txiaŕia'n alde  
adirazi eban gogo ona agertu eban. Agiri  
edeŕa, Txiaŕia'n pozafen artu ebena bial-  
du eban.

Lateŕi onetan bake iraunkoŕik izango  
ba'da, maitasun eta zuzentza eustazpide-  
tzat euki beaŕ dauz.

Onetarako txiñāfen asmo zuzen eta eskubide guztiak aintzat artu bear dirala, diño, zuzentza ta bakepean etorkizun edeña itxaron leikela ta. Ofetan alegintzeko diñotse ango mixiolariari be, 1926'ko idazki-an agindu eutsiena gogoan eukita. Ango agintari bañiak oso atsegiñez idazki au irakufi eben, eta eskar ona bere Ordelariari agertu eutsoen. Berberau egin eben bertako sei Gotzain Txiñā'tarak, euren eskar ona agertzeko bialdu eutsoen idazki eder baten.

\* \* \*

Baita alegin andiak egin ditu Sydney'n, protestante artean Irañā'n ospatu zan Eukaristi Batzaña, ospatu zan edertasun ari-gañiaz ospatzeko. Eta berberau beste

batzun artean esan geinke aldi atan, Milan'en ospatu zan katoliko batzañatzaz.

Emen besterako tokirik ez daukogu-ta aitatu daigun, beste toki baten azaltzen dogun Bolibia ta Paraguay'ko lendakariei bakez euren arteko auzia erabagiteko egin dautsen deya, eta eurak Aita'ri lez zu zen du dautsen erantzun edeña.


\* \* \*

Ara or Aita Santuak igaro dan urtean egin daben *zerbait*. Oraintsu Prantzia'ko Akademia sañerako itzaldiak Paleologe yaunak, Eñoma'ri *eñi gustien Uriburua* deitu dautso, eta guk egiz ezafi geinkio Uri onetako Buru eta beraz gustien Aita, Aita Santua eta gaur XI'n Pio dala.

**GAMA**



# EGINO JAUN AGURGARIAREN GOTZAINKINTZA



Urtarila'ren 13'n, Irun'go eleizan eleizkizun zoragari ta gomutagari bat ospatu zan. Gure deduzko lendakari ta antxiñako bazkide, Eginotar Yoseph Jaun agurgariaren Gotzaintza. Yai oretan barenera yota irakatsi ederak zabaldu dira.

Onbidea eskutu-zalea da, baña bere argi izpiak, nai ez da be, zabaldu egiten dira, eta ikusten dituanen begiak eta biotza atsegindu. Apaltasuna begikoa da beti, baña buru egiten dabena agertzen dabenean, zoragaria. Yakituriak aritu egiten gaitu, baña apaltasun barik atzera eragiten dausku. Gizona, gauza baten aurrean bakarik belaunikatzen dantotasun eta onbidearen aurrean.

Eginotar Yaunaren Gotzaintza dala-ta ori gustiori, ikusi dogu.

Bere aintzaz egin diran yai eta eleizkizunak ederenetarikoak izan dira. Agintari ta menpeko, aberats eta txiro, zar eta gasteak, gustiak batera, itzez baño obeto egitez goraldtu dabe. Tamalez beterik dagoz, eurekandik menpetasunez aldentzen dalako, baita barendiko poza agertu dabe euren aita izan dana ain goraldtu ikusteaz.

Tedeschini, Aita Santuaren España'ko Ordeleriak, Bere izenean Gotzaintza

emon eutson, gure Gotzain Mujika Yaun Agu garia ta Kalaoria'ko Gotzaina lagur zituala. Eleiza Ama'k ereti oneitan oi dituan eleizkizun-erak, bardin gabeko dooltasunaz egin ziran. Eleiza ikusgarira apainduta; gizostea egokiro bananduta abestiak goi-atsegingarrienak, eta Gotzaintzako-Yaupar (Mesa) izan leikenik ederenak. ¡Biotzak gora begira ipinteko aukerakoa benetan!...

An ziran Bayona'ko Gotzain yauna bere lagunakaz, Gotzain izendun bi, mitradun lekaipuru bi, Gazteiz eta Santander'ko kanonigoak eta zeremoni gustier zuzendari Gazteiz'ko Gotzain Eleiza'ko Zeremoni Irakasle Anasagasti yauna onetan gitxi lakoa. Aita Bitxi Udalen izenean Ezeizabarena endore begikoa.

Eleiza gonburu beterik, aurenengo tokietan Artzipreste yaunak, zenbatu ala abade, lekaide, lekaime, eta Santander eta Guipuzkoa'ko Aldundiaz Yaurlari ta endoreak.

Eleizkizun bikain au, «Te Deum» biokoorenagaz amaitu zan. Bitartean, Gotzain bariak, eleiz ingurua egin eban, bere lenengo onespena emoten. Une onetan biotz gustiak pil-pil egozan eta ederenetarikoak begitandu yakun.

24 J A U N I O - Z A L E

Eleizkizun ondoren, txistulari ta «makil-dantzariak» aurretik zirala, Irun gustia an zegoala zirudien. Gotzañen ondoren gizoste izugaria, «gora» ta amaibako txalo artean Udal-etxera zuzendu zan, eta bertatik, Tedeschini ta Eginu Yaun Agur-gariak, eria onetsi eben.

Añatsaldeko bostetan, Udal - etxean, Erestun mun eta agurketa izan zan. Irun gustia aurreko enparantza zabalean bildu zala esan leike. Irun'go eria bere Aita'ri dautson maitasuna agertzeko, arpidez 26.000 lauerleko bildu ta Gotzain-Gurutza edera eskiñi eutson, eta endore yaun-aren eskuz ipiñi be; baña oin esan zeikean biotz gustiak batuta eskintzen eutsoezala.

Gotzain-erestunari mun egiten asi aurretik, Ezeizabañena'tar Gabirel endore zintsoak, eriazen izenean agur samura zuzendu eutson; egiz biotzetiko negar malkoak ez eutsoen amaitzen itxi eta... Idazkariak irakurtea amaitu bear izan eban. Eginu yauna'ri Irun'darak dautsen

maitasuna, itz gustiak baño obeto orrek agertu eban.

Ondoren, Tedeschini guztiz agurgaria itz egin eban. Aita Santua'ren Ordezkdanez, Donostia ta Irun'en egin eutsoe añera bardingabeagaitik, eskerak emote eutsezan, orezaz Aita Santua'ri dautse maitasun zintzoa agertu ebela adirazi.

Uri ta baserietan, Yaungoikoaren maitasuna zabaltzen diarduen txauburu gotzainagarrien lanak azaldu zituan, eta baita adirazi Eleiza Ama'k Gotzaintzarako yakituri ta oar-irakaspenez gañera, etabatez be, onbideari begiratzen dautsolako eta onetantxe Eginu Yauna galendu zalako, Gotzaintzara yaso ebela.

Bere katolikotasuna ain ederto agertu daben uria goraldiaz, ¡Aintza Irun'eri esanaz amaitu eban.

Geuk izparok bardin amaitu gura doguz; ¡Aintza Irun'eri, Santander'ko Gotzain Eginu Yaun Agurgariari, eta gure bazkide gurenari!

# ZUGATZ MARDULA

*Egino'tar Yoseph Gotzain agurgariari.*

Eleiz baratzan baztertxo baten  
zugatz eder bat zegoan,  
lore bikañez, ale guriaz,  
gonburu zana beingoan.

Enbor sendotik zabaltzen ziran  
adar-ostotsak ugari,  
bere kerizpe osasunkofa  
eskintzen beti nai nori.

Ingurukoak ondo ekien!...  
egun galda beroetan,  
an ziran danak alkañen leyan  
zugatz ofen kerizpetan.

Eta zugatz au alez zamauta,  
adañak makur-makurik,  
bere azpira eltzen zanari,  
eskintzen beti poz-pozik.

Nozbait bidezti epebakoak,  
yaurtiten beufson afia,  
ontasun utsez arentzat bere  
laster yausten zan alea.

Zugatz on onen bikaintasunaz,  
ariturik baratzaiña,  
uferatu zan aztertuteko  
bere ontasun bikaña.

Ain kerizpetsu eta emaikor  
ikusitugatz au zala,  
ta berekautan berealaxe  
oldostu eban onela:

«Zugatz bikaiñ au yari bear dot  
neure baratzan erdian,  
geyagorentzat onuratsua  
aufferantz izan daitean».

Esan ta egin; Eleiz baratzan  
toki eder bat auturik,  
aldatu eban... itxirik asko  
biotz tamalez heterik!...

Auxe gertau da, Irun aldeko  
Aita ona izan danaz,  
onbidetsu ta yakintsu apal  
Egino Yoseph yaunagaz.

Apalen sari edereñagaz,  
«¡lgon gorago!» Eleizak  
esan dautso ta, arituata lez  
itxi dau bere Gotzaintzak.

Apala danez, mena be da-ta,  
besarkatu dau gurutzta,  
Kristo'n antzera eroateko  
amaitu arte bizitza...

Euskaldun kistar zintso gustiok  
aintzaldu Gotzain barfia,  
gogo barfutik didar egiñaz:  
¡Gora Egino Argia!

Eta biotzez eskatu jañen!  
Gure Goiko Yaun onari,  
urte askotan egin dayela  
Eleizan erdian argi.

Bazkide guren agurgafia!  
«Yaungoiko Zale Bazkunak»  
eskintzez dautzuz danon izenez,  
txalo bero, zintsoenak...  
Baita eskatu biotz-biotzez,  
apaltasun andienaz,  
poztu daizula eta sendotu  
zure Gotzain onespenez.

GABIREL.

1929'ko Urtañila-13'n.

## Aita Santuaren abadegin- tzaren 50'urte dala-ta.

Aita Santua abade egin zala, 1929'ko Lotazi-  
lako 20'n 50 urte beteko dira. Eta yazokun go-  
mutagari au dala-ta, bere goralbenez *yubileo*  
urtea ospatzen da.

Urte oneri asiera emoteko Batikano'ko Eleiza  
edefean, igaro dan Lotazi'ako 20'n eta 21'n  
Eleizkizun eta yai edera eta begikoak egin dira.

Lenengo egunean, Kepa Deunaren Batikano'  
ko Eleizan yaupa emon eban, eta bere eskuz  
120 ume inguruk, sendi txiroetakoak, lenengoz  
yaunartza egin dabe. Umeok *saspi urtetik bera-  
koak* izan dira, onetan ondiño buru gogor xamar  
diran gurasoei, euren umeen lenengo yaunartzaz  
ikasbide edera emonaz. Gustiok dakigu ba, adi-  
kuntza aldira saspi urte baño len eltzen diranak,  
yaunartza egiteko beartuta dagozala.

Aita Santuak, yaupa (mesa) ondoan maitekiro  
alditxo bat, neska-mutiko zorientsuokaz igaro  
eban, eta bakoitzari bere eskuz zidafezko domi-  
ñe bat emon eutson, egun egiz gomutagari onen  
gomutakitzat. Domiñe oneik idazkun auxe da-  
ro: «Xl'n Pio'k bere lenengo yauparen 50'n ur-  
tearen asieran — Batikano 'ko Kepa deunaren  
Eleizan lenengoz Yauna emon eustan. — 20 - XII  
— 28».

Egun onetan eguerdi ostein, amerikar katoli-  
koen laguntzaz iragi dan Batikano'ko idazti'egi  
baria onetsi eban. Idaztitegi eder onetan 250.000  
idaztientzat tokia dago, eta gai ofetan ezagutzen  
diran auferapide gustien arauz egiña da.

Egun onetan bertan Vannuteñi yanzkordunak  
Aita Santuaren izenean Efoma inguruan iragi  
dan eleiza bat onetsi eban. «Andra Maria gen-  
tzaren efergiñaren» goralbenez egiña da.

Baita Efoma'ko Karla deunaren eleizan, Aita  
Santuak lenengoz yaupa egin eban tokian *Te  
Deum* abestu zan. Azkenez urte onen gomutaz  
Lombardañen abadegai ikastetxe baria onetsi  
eben. Orixe da itzez baño obeto egitez egun go-  
mutagaría ospatzea.

Yai onetara gizoste andiak eldu zirala esan  
beafik ez da. Onantxe asi da katolikotar gustiok  
popez beterik ospatu bear dogun urte au. Aita

Santua goraltzean Aita Santutza, beraz Eleiz  
Ama goraltzen dogulako, bera ezagutu ta mai-  
tatzen alegindu gaitezcan, bere irakatsi gustiai  
menpetasun zintsoa agertzeko. Geure aldetik,  
*Yaungoiko Zale*'k be zerbait egitea nai genduke  
ta, beintzat, Aita Santuetzaz urteko zerbait  
gustietañ zerbait agertzeko ustea daukogu.  
Yaunak lagundu bekigu.

## Aita Santua ta Kardenalak.

Aita Santuak bere araso astunen laguntza le-  
tatz yanzkordun edo kardenalak aututen ditu.  
Sixto V'n alditik 70 izan oi dira, baña zerbait au  
ez da inoz osotuten. Oneik eurokaz egiten daben  
batzafean izentatzen dituz. Igaro dan Gabon  
aurean be suñumoria izan zan bat edo beste izen-  
tauko ebala baña ez dau izentau, saspi toki uts  
egon afeñ. Onetzaz izparingiak eta yardun asko  
erabili afeñ, azkenengo ordurarte inok ezer ziur  
ez dau yakiten, berari bakafik yagokon gauza  
dalako, eta azkatasun osoan egin gura izaten  
ditualako. Gai onetzaz eferge ta efi-agintariak  
egin leikiezan eskariak alper-a'peferkoak dira,  
inok ofetan sartzeko eskubiderik ez dauko ta.  
Gustiok dakigu urte batsuk dirala egin yakon  
eskabidea zetan gelditu dan.

Oraintsu il da Katania'ko kardenal eta Gon-  
gotzain Nava Prantzizko yauna, 82 urtegez. XIII'n  
Lon'ek egin zituan azkenengo iru kardenaletatik  
bat izan da. Beste biak ondiño bizi dira. Bata  
Vannuteñi yauna, 93 urte lepuan dituana, eta bes-  
tea Skrbensky Praga ta Omoluk'eko Gongo-  
tzain izana. Ondiño 65 urte baño ez ditu, baña  
ezbear batek lanerako ezereztuta itxi eban.

Orain bizi diran kardenalak 63 dira. Euroatik  
italitarañ 30 eta 33 beste laterietakoak. Europa  
ta Amerika'ko 14 laterietakoak dira.

## Soñeko nabarmenen aurka.

Onetzaz Aita Santu, Gotzaiñak eta yaupariak  
amaika bider esan eta agindu dabe kristiñau di-  
ranak, izenak eskatzen dautsen lez, yantzi nabar-  
menak baztertzeko, baña zoritzafez eginbeafari  
baño *deabruen* asmoai yaramon geyago egin ya-



kola tamalez autortu bear dogu. Eta au kristiñau buru egiten dabenentzat lotsagañikeririk andiena da. Gaur gai oneri ez dautsogu ekingo, dabiñen aize *preskoa* ez da moda nabarmenen aurkako itzlari makala-ta. Baña ementxe ipiñiko dogu, *katoliko ez diran* lateñietan katoliko askok baño kistar sentzun geyago daukenak ba'dirala.

Txiña'n, Turkia'n, Grezia'n eta oraintsu Bulgaria'n, gobernupean dagozan ikastoletako irakasle ta ikasleai, samaraño, eskumutur eta orkatiñetaraño elizen dan soñeko bakaña agindu dautse. Yapon'en oraintsu emon dabe erabagi bat, atzefietako diplomatikoen emazteai gale-rasten, iduna ondo estaltzen ez daben soñekoak, diplomatikoen batzafetara eltzea, ypondar-en oiturakaz soñeko nabarmenak ondo ez dato-zela-ta. Eta baita iragari baldintza ori betetan ez dabenai batzafetan sartzen ez dautsiela itxi-ko. Oñez ganera diñotsie, batzafok egiten diran aretoa berotu barik egoten dala, eta ez dabela nai euren osasuna ariskuan ipinterik. Orixe da zuzen agindu ta bide batez ulea politu artzea! Orixe da bidea, baña ofetarako sentzuna bear da-ta, baztefetan ugari agertzen dan bedafa ez izan edo ta... entzun da gor...

### Gizarteko bakeen alde.

Bolibia ta Paraguay amerikar lateñiak, mugak dirala-ta, ia guda bidez auzia erabagiteko egon dira. Baña oraintsuko guda ikaragafiaren ondo-renakaz ixututa, beste alakoen bat sortuko ete zan bilduñez, lateñi askotako buruak bake-bidez auzia erabagiteko arñen eta arñen yañi dira. Eta onetan «Kisto'ren bakea Kisto'ren Bakalderian» egitamutzat daukon gure Aita Santu gurgafia lenen izan bear.

Berak eñi kistar bitsuen Aita danez, eñi-buru bieñi dei egin dautse, bera gogo zintsodunentzat bakea ekarten etori zanaren ordelari dalako eurai auzi ori bake bidez erabagiteko eskatuaz, sortu leiteken guda galgafiaren ondorenak neurgeak izango litzakezala-ta. Yaunari esker-

ak Aita Deuraren eskaria alpeñekoa ez da izan. Bolibia ta Paraguay'ko Lendakariak, Aita Santuak eskatu dautsena onetsiaz, itzalez erantzun dautsoe, euren eta menpeko eñien izenean bere deya pozik entzun dabela adiraziaz, eta bakea Yaungoikoak emon daben emaitz gurena dala autortuaz. Beraz, euren arteko auzia Amerika'ko lateñi baten eskuetan itxiten ebela. Eta biotzetiko eskerak bere gogo onegaitik Aita Santuari emoten dautsez. ¡Ederto! orixe da kistar zintsoak egin bear dabena-ta.

### Protestanteak etzerantza.

Euren arteko eztabaidak dirala-ta protestanteak sakabanatzeko bidean auñera doaz. Anglikanoak deritxoenak aspaldi naspilduta dabilz euren Artzafñiek atondu, eraldu ta aldeztu daben *Otoitz idaztia*, zineste gauzetan buru dan Aldundiak ontzat emon ez dabelako. Ori be baltza da: prakadunak otoitz auzietan besteen gañetik egotea. Alan, dabixen lez ibiñi bear. Baña Ingalanda'koa bakafik ez da gatxa. Ipar Amerika'n, aspaldian dabiz an diran 200.000 protestanteen eleizetatik *erdiak* kentzeko alpeñekoa dirala-ta. Eleizok eun protestante motatakoak dira.

Buruagandik aldendu ziran ezkerko buru barik ibiltea ez da aritzekoa, ezta ainbeste protestante katoliko egitea... zoritzañez itxi eben Burua geure artean bakafik aurkitu leikie-ta.

### Izpar pozgafia.

Alantxe da katolikoentzat, Albania'tik datofena. Oraintsu bertako bakalduna katoliko egin zala, iragari eben, eta gurari begiko ori agertu dabe «zismatiko» edo Aita Santua'gandik alden-duta egon diran abadeak. Elbassan'goak bein-tzat katoliko-Eleian sartu asmoa agertu dabe eta emparauak be uste izan lei laster etoriko dirala. ¡Yauna'ri eskerak!

**M'lañ G.**

# EGINBEAÑA



ENGOAN *ekinbeaŕatzaz* zerbait esan gendun, eta gaur *Eginbeaŕatzaz* yardun alditxo au izango da, alkaŕen anayak dira-ta.

Sail bateri eten barik ekiteko, *egin bear* dogula gogoan yosita eukitea langorik ez dago. Zerbaiteri ekiten dautsogunean, orixe buruan sartzen ezpadogu, gure lana laster baztertuta geldituko da.

Gure gogoak gauza bateri lotuta eukiteko, *lokaŕia* bear dabela argi dago eta lokaŕirik onena eginbeaŕa da. Lokaŕi ori azkatu ezkerro, besteak gora-bera batera ta bestera ibiliko da, iñon gelditu barik. Eta au indaŕak alpefik galtzeko bide egokia izango litzake, baita ezer ez egiteko aukerakoa.

Zeregin bat erdiz-erdizko gogoagaz artzen ba'dogu, erdizka be ez dogu egin-go, eta lokaŕi nasaya daukan txakufa, ainbakoa letxe gelditzen dan antzera, gure gogo be, otuten yakonean beste toki batera yoateko gertu egongo da.

*Eginbeaŕa* izan beaŕean, *geure onura* lokaŕitzat ipinten ba'dogu, onura amaitzen danean lana be itxiko dogu; lanean aurkitzen dogun *poza* gure lokaŕi bakaŕa ba'da, lanerako gogoak pozagaz batea iges egingo dautzku. Geure zeregiñak berenez emon leikezan *igaliari* begira ba'gagoz, igaliok agertzen ezpayakuz, bertan bera itxiko dogu.

Baña aitatutako lokaŕion ordez, *eginbeaŕa* lokaŕi nausitzat artu ezkerro, naiz ta onurarik ez izan, naiz pozik ez aurkitu, naiz igalirik ez ikusi, beti aufera yaŕaituko dogu, *eginbeaŕa* betetea, goiz edo belu, nozbait onuratsua izango yakula ziur egongo garealako,

Italitañak esaten dabenez «astiro doyana urin eltzen da» eta geure lanetan be ar gogoan euki bear dogu. Eta egiñean be, auxe da guretzat eragospenik andiena.

Irauten daben beste, gure zeregiñak iraungo dabela uste ba'gendu, geyenetan asi be ez giñake egingo, baña laster amaituko dogula begitanduten yakulako, safitan lanari eltzen dautsogu, eta geuk uste genduan baño luzeago dala ikusi afen, egindakoa alpeñik ez galtzeaen, edo bide erdian ez geratzeaen, auñera yafaitzen dogu.

Hello yakintsuak diñoan letxe, gure biotzaren guraririk sakonetarikoa «bapate-kotasuna» da, eta orixe lortu eziñak gure biotza safitan aulduta itxiten dau.

Gauzak bapatean egiteko gurari ori, izakera bizietan aundiagoa izaten da. Eta gasteak berenez biziagoak diralako, beti gauzak bapatean egiteko guraria agertzen dabe. Gastetasunaren una ortxe dagola esan leike.

Zafak bariz, astiroegi gauzak artuta, erdi egiñean itxiteko afiskuan aurkitzen dira. Zafak, bere afean asti gitxi daukalako, iradu geyago euki bear leukela esan lei, eta gasteak bariz asti geyago bere afean ikusiaz, epe geyago; baña besterantza yazoten da.

Gastetasunarentzat bide labuñra onena izaten da; gasteari zear biderik ez aiatu... Beti biderik labuñenera yoko dau, naiz ta neketsua izan.

Bide labuñra bariz gitxi ibili bear danean, aukeratzea ondo dirudi, baña asko ibili bear danean zear-bidea egokiago izaten da, batez be gasten lana zafen laguntza alkartuta yoan daiten.

Beraz bide luzean, «astiro ibili ta gelditu barik urin eltzea» egokien dirudi.

## GURE ZEREGIÑA

«Yaungoiko-Zale»koen zeregiña be, bapatean egitekoa ez da, betikoa da, eta bide luzean ibili bear dogun ezkerre, zintzo baña epebakotasun barik bete bear dogu. Bide luze ta latza da-ta, bide labuñenari begiratu baño, eten barik ekiteari geyago begiratu bear dautsogu. Bakoitzak al daben neuriz ekin, bultzakada barik, astiro, ondo oldoztuta, baña beti auñera yo bear dogu. Idatzi, arpideak batu batez be, eta geure idaztiak zabaldu, euki leikezan akatzai begiratu barik, gizonen lana akatz bakoa ezin leitekela izan gogoratuaz.

## EGINBEAÑA BETE.

Gure bearkun edo *eginbeaña*, zintzo arduraz eta beti bete; gure zeregiñal gogoari dagokiozanak dira; eta, onangoetan itxumustuan ezin geintek ez ibili ta bera araso onetan adimen zur eta gurari sutsua ipiñi bear doguz.

Bazkide maiteok ba, ekin dayogun geure asmoak auñera eroaten, eta geure *eginbeaña* beteaz... jañera!...



# KATOLIKO IZPARAK

## Aita Santuaren Efegetza dala-ta.    ✨   ✨   ✨

Katoliko gustiontzat, gai onetzaz izpar pozgafienak aspaldi zabaldu dira. Aita Santua, lurbira gustiko kistar gustion Buru bakafá dalako, bere menpekoakaz euki bear dituen artu-emon gustietan «azke agertu eta argiro azke izan bear dabela» katoliko zintso danak ezpayan ezin leike euki. Kisto gure Yaunaren Ordezkoa da, ta Berari zegokion azkatasun osoa bear dau.

Eta gaurko gizartearen eralbenari begiratuta, azkatasun oso ori zaintzeko bide bakar bat eza gutzen da. Txiki edo andi, baña egizko Latefi-Buru izatea. Orduantxe inok ezin esan al izango dau, inoren menpean eta inoren etxean dagola. Danen gañetik dagonari, besteren menpean egon eta agertzerik be ez dagokio.

1870 arte yaubetasunori euki eban, eta orduantxe Eleiza'ren etsayak, izan leiken eskubiderik zuzen eta osoenaz berea zana, indafez kendu eutsoen.

Italia'tar agintariak euren gaiztakeria zuritzeko alegin gustiak egin ebezan; baña lapufetea zuritzeko bide bakafá, ostufakoa bafiro bere yaubeari biurtzea da-ta, orixe egin ezik ezin zuritu. Eta orixe ez dabe ondiño egin. Eta oin 58 urte lapufeta izan zana, oindiño be izen ofen yaube da.

Orduango katolikoen asafea ibituteko 1871'n urtean lege bat emon eben beste gauza bailsuen artean, lapufeta ordez urtean 3.255.000 lira eskiniáz. Baña gaiztakeria ontzat emon barik, ori ezin eikean artu, eta lenengoz eskintzen etofi zan italiar Efege'n ordelariari IX'n Pio agurgafiak auxe erantzun eutson: «Ori, ostufakoa biurtzearen izenez izan ezik, inoz be ez dautzuet artuko, eta lapufetea ontzat emoten dodala adirazi leiken agiririk inoz be ez dot izenbetuko». Eta ordelaria bere diruokin biurtu zan.

Ondorengo Aita Santu gustiak, gogo bardina agertu dabe, eta euren asafe bide-bidezkoa agertu be bai. Eta orixe ontzat emon nai izan ez dabelako, Aita Santu batek be afezkerko Batikano'tik ez dau urten, bere etsayen lufean onik

ipintea, euren gaiztakeria ontzat emoten ebala irudituko yaken-eta.

Alderdi bientzat egoera latza zan, eta zelanbait atondu gurarik zerbait egiten oin baño lena o ibili dira, baña alpefik Auzi au Aita Santuak bakafik erabagi leikena da, Bera da epaikari bakafá Baña ointxe auzi ori erabagiko dala dirudi. ¿Zelan? Lenen beintzat, Aita Santuaren Efegetza ta yaubetasun osoa aintzat artuta. Ori da lenena Beste baldintzat orixe eukiko dabe onafitzat. Ixilik eta zurtasun andiaz, alderdi biak izketan diardue eta, eragospen andiak izan afen, uste da oingoan zerbait egingo dala.

Bitartean guri otoi egin eta itxarotea dagokigu, Aita Santuak gai ofetzaz itz egin eta «Te Deum» pozgafi bat abestuteko eguna eldu arte. ¡Albait lastefen izango al da! ..

## Nobel saria irabazi dauan emakume goragafia.

Sari onen bafi oraintsu emon gendun, eta gaur, Betxaud aba domekafafak oraintsu argitaldu dituan izpar yakingafari batusk ipintea deritxogu.

Emakume au noruegafafa da, 1882'n yayo zan eta lenengo irakurgaya 1907'n argitaldu eban. 1924'ko Deunoro egunean, luterotar ziñeskerea itxi ta lenengo yaunartza egin eban. 1928'n elertietan Nobel sari ospatsua irabazi eban. Bere entzutea lurbira gustian zabaldu da, eta katolikotar garanez, poztu egin bear gara. Sariak agertzen dabenez, idazle bikaña da, eta orain geure ziñeste aldez gogor diardu idazten. Katoliko biurtu bafitan, pretestante «gotzafia»gaz eztabaida gogofak izan ditu, eta *Sankt Olav* izpafingi katolikoan beti idazten dau.

Bere yakituriak argi egiten dau, baña bere onbideak ez dabe gitxiago egiten. Egiten dituan ukar edo limosnak amairik ez dauke, eta ¡yakiña! egiten dautsoezan eskabideak be ez .. Oraintsu zerbait eskatzen 1.500 idazki egun gitxitan artu ditu. Baña artu daben saria 1.000.000 izan afen, laster amaitu da 1.000 lauerleko idaztigiñen Auzezki kutxarako emon ditu. 500.000, euren

kofiduaz ume gexoen bat daukien gurasoi laguntzeko ipiñi ditu.

Egunoro yaunartzen dau, eleiza dagon tokian aurkitu ezkerō. Eta yai egunetan, katolikotar eleizatik urin egon aŕen, bultziz yaupa entzuten yoaten da. Egunoro gogartea egin eta agurtza otoiztuten dau. Andra Maria'ren maitale zintsoa da.

Bere saria dala ta, eskiñi deuten oturuntzan. Agintari lendakariak itz egin eban, eta Idaztigiñen lendakariak erinotzezko burestuna ipiñi eutsōn. Ufengo egunean, Sortzez Garbia'ren eguna zan, eta burestun ori bere altara gañean ipiñi eban. Zertzeladok idatzi dituan abak idazten dagola bere gelan deitu dautsela diño. Ule zuridun emakume bat sartu da. 73 urte ditu, eta Kristiñau ikasbide'ko ikasgaya emoten dator, urte onetan protestanteen zineskera itxi eta katoliko egingo da. Emakume au Sigrid Undset'en ama da. Eta onexek berari pozik andiena damotošo.

### Paris'eko Aldundian XIII'n. Leon txalotu dabe. ✨

Izpar bakan samara, da, baña egunokaz gertatu da. Duval-Arnould aldun edo diputauak, sutsu itz egin dau, Aldundiak, gizarteko auziak erabagiteko, irakatsi zuzenak gogoan euki bear leukezala azalduaz. Eta langile ta ugazaben arteko artuemanatatz, bere izena aitatu barik, XIII'n Leon Aita Santu ospetsuaren irakatsi txalogafiak itzez-itz azaldu ditu. Langile on eta zintsoari sendiari eutsiteko lain lan-sari emon bear yakola, eta estutasunean aurkitzen dala-ta, edo gaitz andiangoak ufinduteaŕen, baldintza gogofa goetan lan eragitea, zuzentasanaren aurkako gogorkeria dala esanaz, eta abar...

Izok entzun ordukoxe aldun gustiak bapateko txalo sutsuak yo dautsiez itzlariari, eta orduan Duval-Arnould'ek yafaitu dau:

«Zuzen zagoze txalook yoteaz, eta ederto egin dozue, baña yakin egizue, nik esandako itz txalogafiok XIII'n. Leon Aita Santuak langileatzaz idatzi eban idazki edefetik itzez-itzez esan dodazala».

Orduan bafiro txalotu eben, baña ez gustiak, eskertar sozialista ta komunistak ez eben geyago txalorik yo. Zuzen ba'egoan zer dala-ta ez txalotu? Pekatu andia izan nonbait, Aita Santua'ri sozialista batek txaloak yotea. *Doña De-*

*mokrazia* asafatuko ete yaken bildur izango ziran edo...

Yazokun onek beste bat dakart gomutara: Gure inguruko bat, Bergara'ra yoan ei zan, eta aizkide bat aurkitu eban eleizara yoyala, ta esan eutsōn:—A mutil, zuok *atrasauta*, bizi zare, gu *demokratak* gaituk, eta ez jautsagu olango gauzari jaramonik egiten.—¿Zer dok baña demokrazia? itandu eutsōn Bergara'fak.—Eta besteak;—Abadeai txapela ez kentzia ta...

Paris'tafak be onen antzeokoak dira nonbait, kirten samafak.

Baña dana dala, eurak yakin barik, XIII'n Leon txalotu dabe ta, ofek asko esan gura dau.

### Kardenal baten eriotza.

Tossi kardenal ospetsua, Milan'go Gongotzaña Urtañila'ren 7'n il da. XI'n Pio Aita Santu gurgafiaren ikasle izandakoa eta aizkide bafurkoa izan da, eta Milan'go Gongotzaintzan berondorengoa Yaun onbidetsu, yakintsu ta langile sutsu au 1863'n yayo zan. 1887'n yaupar 1911'n gotzain eta 1922'n kardenal. Oin 62 kardenal gelditzen dira; eurotatik 29 italitafak eta 33 erbestekoak

M'far G.



## ERĪETAKO IZPARAK

### MARKIÑA

*Profesa Nagusia.*

Murelaga'ko Alkorta'tar Joan Martin'en abas Basilisa'k, Urtañila'ren 23'an, emengo Karmeldar Lekaimietan, bigaŕen propesia egin eban. Egun onetan euren eŕitafa goratu ta agurtzerbertako abadeakaz batera Murelagatar asko Markiñaratu ziran.

Meza abestua Aboitiz'tar Joxe Maria jaunak 85 urtekoaren antz andi barik, esan eban, ahoan, laguntzale lez, Kale-Aransolo'tar Timoteo ta Zabalintxaufeta'tar Jose Joakin Jaunak zituala. Perosi'ren «TE DEUM LAUDAMUS» deritxon meza polita, karmeldar lekaime abe

# ALKAR-LAGUNTZA

---

**E**GINBEARA betetako, eta sail bateri eten barik ekiteko, asko adoretzen gaituena, geure inguruan laguntasuna ikustea izaten da. Laguntasuna daukagula uste izateak bakarrik, adoretu egiten gaitu, eta bakartasun us-teak, geure inguruan ereiten daben utsaz, arnasa barik itxiten gaituala esan leike. Besteen laguntza somatzen dogunean, aizeak bultzatuta letxe aurera yoateko poztu egiten gara.

Laguntza au, yakiña, era askotakoa izan leiteke, eta ugarien «itzezkoa» izaten da. Itzak aizeak erooten dituala bai'dakigu, baita aize barik egazik ezin leikela egin be. «¡Ederto!» «Olantxe» «¡Aurera!» ta antzeko itzak zenbat lan eragin daben ba'genki, safiagotan geure espanetatik urtengo leukie!

Ba'dira beste itz batsuk, lagundu bearean, gogoia galdu eragiten dabenak, mormoxeta antza daukenak, besteen lanen akatzak bakarrik azaltzen dituenak, eta euren ostean beti betozko iluna begitanduten yaku. Olango lagunik ez da bear, eurak ezer egin ez eta besteai galerasteko aukerakoak dira-ta. Oneitzat gustia dago gaizki, dana aitzakitzen dabe, eta ez dabe oartzen eurak egiten dabena *txafena* dala, ezer egin ez eta besteai egiten ez dausie lagatzen-da.

Beste batsuk osteria, okerak zuzentzeko gogo ona agertzen dabe, oarak egiten ez dira makalak, baña egitez laguntzeko otsegitxoak... oneik biderdian gelditzen dira. ¿Zer egin bear dogu ba? Asele edo ipuin baten bidez azalduko dogu.

Ipuin yakingari bat.

Soloviev idazleak diño: Prusia'n eta Eslabotaren artean Nikolas deunaren

eguna urtean biritan ospatzen dabela, eta Kasiano deunarena batēn bakañik, eta ori be «bisiesto» diran urteetan baño ez. ¿Zer dala-ta? Ara euren azalbena. Bein baten, Nikolas eta Kasiano deuna, bidez batera yoyazala, burdizain bat aurkitu eben, bere burdia lokatz artean ondatuta, eta oit:ra txa:ez abereai añenak yaurtiten ta baita biraoak be... Kasiano deuna, arituta gelditu zan, ete bere soñekoak ez zikintzeko muño batera igonda, burdizañari eroapena artzeko ařenka asi yakon.

Nikolas deuna ostera, munduko bañobeto ekiena zan eta, bere estalkia kendu, soñekoak yaso, lokatz artera yatsi, zaldiai ondo esan, eta besoa luzetuaz burdizañari esan eutson: nik laguntzea gura dozu? Bayetz ba, ta deadar bat eta bultzakada bat egin da, bereala burdia lokatz artetik atara eben.

Nikolas deuna, S. Pedro'gana aurkeztu zanean, bere soñekoak zikinduta ekañi zitualako, agiraka egin beañean, saritu egin eban, bere eguna urtean biritan ospatzeko aginduaz, eta bakarzale, soñeko garbi eta eroapen-onuak emon zituan Kasiano deunaren eguna urtean bein eta «bisiesto»etan bakañik ospatzeko agindu eban.

## Ikasbidea.

*Yaungoiko Zale* ta euskeran aldeko bazkunetan, Nikolas deunaren yaraitzaleak ugari bear doguz, Kasiano deunaren aizkideak ugariego dira-ta.

Aldizkingi ta Bazkunai, itzez baño egitez geyago lagundu bear dautsegu, irakuri, zabaldu ta arpideak batuaz batez be. Gogo onagaz lan egiten dabenari lagundu, bere akatzak alde batera itxita, aurera yaraitzeko adoretu, bestela len gitzi izan ta uritu egingo gara. Idazle bañiekaz be auxe gogoan euki bear dogu. Baña onetzaz, (Y. I.) bere txandea eldu daitenean ekingo dautsogu.

## Egin eta Ekin...

Ortxe dago gure egitamua. *Egin*, egin bear dogulako, eta *ekin*, onen bear izan andia dagolako. Egin eta ekiten dautsonari, gauza batsuk ondo, beste batsuk erdizka ta nozbait txarto be urten leikioe, baña zerbait oker egin geinkela ta egin barik, geldi egoteko, eskubiderik ez dago. Ezer egin ez eta okerak zenbatzen diarduanari, Ferari italitar kardenal ospetsuak saritan aitatuten zituan itzolan esan bear dautseguz: «Chi fa, falla; ma chi no fa sbaglia sempre». «Egiten dabenak, uts-egiten dau, baña egiten ez dabenak beti uts-egiten dau».

Yaungoikoa lagun, *Egin* eta *Ekin* ba!...



# AITA SANTUA'REN ABADEGINTZAKO 50'N URTEAN

## Berarizko "Yubileo" parkamenak.

XI'n Pio gurgariak, bere abadegintzako 50'n urtea dala-ta, berarizko «Yubileoa» iragari dau Urte Deuna'koen antzera.

Yaungoikoa'ren emaitzez artu dabon urte onen asieran bere guraririk biziena gustion Aita danez, seme gustiak gogoz eta otoitzez beragaz batutea izan zala diño.

«Lenen, Yaunari eskefak emoteko, gero, Neureztat eta neure ardurapean ainbeste gaitz eta gaitzbidez ingurututa dagon Eleiza'rentzat bear dabon laguntza eskatzeko, onexen bitartez ziñestea zabaldu ta sendatzeko indartu gaitez, bizitz deuntasuna sakonagotuteko, batez be Eleiz gizonen artean Gure guraria danez».

Urte au dala-ta bialdu dautsiezaz zorion agufak, eta eskini dautsiezaz otoitzak bere biotza poztasun osoz bete dabela azaldu ondoren, seme maitatiak Aita'ren samintasun eta nekeak lez, bere poz eta alaitasunak eurenak ba'lira letxe artzen dituen ezaugarri argia dirala diño, sendi batekoak izateak auxe eskatzen dabelako. Maitasunaren legea itzetan baño geyago egiteakaz agertzea dalako, Bera bere eskuetan dagonez zerutar emaitzak zabaltzera bultzatzen dabela, Aita'ren poza

gustien poz eta onurarako izan daiten.

Auxe dala-ta, bere aurretikoen eta batez be XIII'n Leon'en arauai yaraituaz, berarizko Urte Deun bari bat, Yubileo orokor eman, iragartea erabagi dau, oiturak obetu ziñestea sendatu eta Yaungoiko-zaletasuna biztuteko aukerakoa izango dan ustosoaz.

Kistar gustiei bizitza deunagora dei egiten dausku batez be, geure irabazi bari abadegin'zara yasoak izan gareanoi. Olan txe Kisto'ren bake osoa Kisto'ren Eregetzagaz elduko da.

## Yubileo au irabazteko egin bear dana.

1.—Eroma'ko goterkiko biztanleak eta uri aretara bidezkundez doazanak:

1.º—Gure Gaizkatzale Deunaren Latorano'ko eleiza Nagosia deritxona egun baten bitan, edo egun bitan, bakoitzean bein, ikertu bear dabez, alditxo batean biotzez Aita Santua'ren asmoakaitik otorgiñaz.

2'n.—Bestela egin bearik ez dagun egun bitan, barau eta bijilia, Eleiz Legiaren arauz.

3'n.—Urtero gustiak egin bear dabil autorkuntza ta jaunartzez gañera, bes

bein autortu ta yaunartu bear dabe.

4<sup>n</sup>.—Azkenez autor-entzulearen onuz, eta bakoitzak al dabenez, egiñen on baterako ukar edo limosna emon; batez be Ziñeste-zabalkunde ta ziñestea zaintzeko.

II.—Munduko beste toki gustietan, bardin egin bear da, eta eñi bakoitzean ikertu bear diran Eleizak izentatzea Gotzain yaunen eskuetan lagatzen dau. Autor-entzuleai berarizko eskubideak emoten dautsez, parkamenok irabazteko gustiak eretzasan geyago euki dayen, baita zin-eskintza gayetan be.

Parkamen au, biritan irabazi leike norberareztat naiz garbitokiko gogoentzat, esandakoa biritan egin ezkerro.

Yubileoko urte bitartean, saspi urte ta saspi berogeiko parkamenak irabazi leikez, gure Yaunaren aurean alditxo baten Aita Santua'ren asmoakaitik otoitz egin ezkerro, eta egiten dan bakoitzean. Eta ori aste betean yaraituan egiten dabena, parkamen osoa irabazi leikie, oi diran baldintzakaz.

Onexek dira beste batsuen artean, Eregun egunez argitaldu eban idazkian Aita Santuak Urte Deun onetan eskintzen dauskuzan ondasunak. Bere guraria be teaz al bait geyen geureganatzen alegindu gaitezana.

**M'lañ G.**

# YAKITURIA TA ERLEJIÑO

«Yakituri gitxik Yaungoikoagandik aldentzen dau: eta yakituri askok Beragana eroaten gaitu». Roger Bakon pantzekatar yakitun andiaren itzok egiztuta ikusi dira, egiz osoan yakitunak diranen artean, Ara aletxo bat.

Leverier, ortzizti edo astronomi gayetan yakitun andia zan baña bere ospea zabaldu zan Neptuno izarbela 1846'arte inok ikusi ez ebana berak iragarri eban tokian agertu zan. Legeak aztertu beste izarbel edo planetan aldakuntzak ikusi ta beste barik igari eban ezagutzen ez zan izarbel bat ba'zala, eta urlie aldetan egongo zala be. Eta 1846'ko Iraia 23'an, berak izentautako tokian utsune txiki bat gaz, Neptuno izena emon eutsoen izarbela agertu zan.

Egun batzuk geroago Robian Cotances'ko gotzaniak bere zorion agurik sutuena bialdu eutson agerpen aregaitik inotsolarik: «Leverier yauna, ezin esan al izango dogu auferantzean, beste ba-

tsukaitik esan dan lez, lañoetaraño igon dozula; auferantzean zuk izaretaraño igon dozula esan bearko dogu».

Leverier, ortziztilari andia ba'zan, katoliko andiago zan eta auxe erantzun eutson: «Neure jaun agurgaria: Nik ondiño gorago igon gura dot eta ori lortuteko esku artean darabit asmo garantzi-tsuen bat».

Gotzaniak urango ikusi ebanean, bere asmoaren bari yakiteko gogo bizia agertu eban; eta Leverier'ek erantzun eutson: «Bai, yauna, nik izafak baño gorago igon gura dot; nik zeruraño igon gura dot, eta uste dot jaun agurgari orék la-gunduko daustala araso onetan, otoi sutsuaren bitartez».

Orixe da, egizko yakitun izatea, Yaungoikozko yakituri barik gizon gustien yakituri txatxara, eguzkiaren ondoan, epertargiaren antzekoa da-ta.



## ¡Gora Aita Santu-Eregeal!

Lengo zenbakian aitatu genduanez, Aita Santu eta Italia'ko agintarien arteko auziatzaz, esan genduna egiztu da. Gaurgandik, Aita Santua, Berari dagokion azkatasun osoaz, eskubidez eta egiz, Efege da. Gaurgandik inoren etxean ez da biziko, latefi txikia ba'da be berea eukiko dau eta latefi ofetan bera izango da Efege bakafa. Auzi au oso zafa izan da, baña ibili ta ibili zori-onego amaya euki dau. Aita Santuak itunben onen baldintzak onetsi ditu eta auxe da katolikotar gustion biotzak pozez bete bear dituana. Bal dintza gustiak zearo yakin arte, besterik ez diñogu. Aita Santuak azkatasun osoa lortu dau, eta bere seme gustioi, biotzeko poztasun andienaz deadar egitea dagokigu: ¡Gora Aita Santu ta Efege dan XI'n Pio agurgafia!

## Ziñestebako bazkunak dirala = ta. ❀ ❀ ❀

Len gure ziñestearen etsayak, ziran lez ageritzen ziran geyenez, batsuetan ardi nafuz estalduta agertu afen; aspaldian baña beste bide bat, ondo begiratu ezkerro kaltegaria goa, aukeratu dabela esan geinke; erlejiño usain bako bazkunak ugaritzeari emon dautse. Bertako araudiak edozein ziñeskerakoak bafuan artzen ditu, eta uzkuriz edo erlejiño eztabaidak alde batera ixi eta eurak diñoenez on egin, irakatsi eta beste asmo onetarako. Eta ofegaz gure ziñestearen eskubideak baztertuta gelditzen dirala oartu barik edo, katoliko buru egiten daben asko bazkun ofetan sartu dira, euren uste barik etsayen suari txingafa ezafiaz.

Gaitz au asko zamar zabaldu da-ta, España'ko Gongotzain Artzobispo gustiak, euren bearkuna beteaz, eta euren izenean Segura kardenal agurgafia katoliko ziñestea aintzat artzen ez daben bazkunetan, katolikoak ezin leitekezala sartu adirazteko, idazki edefa zabaldu dau.

Agindu onurakofoari betetako bearkuna katoliko gustiena da ta beraz, euren izenik olango

bazkunai ez dautse emon bear, eta aitatzen dituzan bazkunak onexek dira: «Lyceum», Club Femenino Español. «Ligas de Bondad» eta «Internacional Rotary Club». Bazkun ofeitan eta antzekoetan ezin leitekez sartu katoliko diranak, eta txalogafiaik izango dira bañiz, Eleizak ontzat emonda daukazan bazkunetan sartzen ba'dira.

Len esan genduna yazoten da: ale naste asko eyoten dituan «efoteak» urun garbirik ezin emon...

## Yudañak eta maomafak be bai. ❀ ❀ ❀ ❀

Yanzkera lotsabakoen aurka, sentzun apur bat dauken gustiak yaiki bear leukie, oitura txafai moda txafak bidea zabaltzen dautse-ta. Orixe dala-ta katoliko ez diran asko be, oingo yanzkera labur eta nabarmenen aurka ikusi ditugu. Oin ostera begira yudar eta maomafak eurak be gogor egiten asi dirala.

Jerusalem'en maomatar agintariak, bear dan begirunez yantzi barik doazan emakumeai, *Omar* deritxon euren eleizan sartzea debekau egin dautse. Yudañak beste ainbeste egin dabe Arge'l'en. Euren Sinagoga'ra oingo modako soñeko labufakaz doazanai ez dautsiela sartzen itxi-ko adirazi dabe, toki deunetatik lotsagarikeriok baztertu bear dirala biotz zuzendunak ezez igafiko dabela adiraziaz. Ikasbide edefa berau, emakume katoliko askorentzat, batez be Aita Santu ta Gotzañen aginduak gora bera, euren sentzunbakokeriaz yafaitzen debenentzat.

## Txiñar Gotzain bari bi.

Ebarista Tchang, txiñatar Efoma'ko Ikaste-txe baten irakasle izan dana, Tsining'go Gotzain egin dau Aita Santuak.

Baita Thang Yon abade txiñaña Chaosuen'go Gotzain autu dau.

Oin urte batsuk sei batera izentau zituan eta eurotafik bi il diralako, txiñar Gotzañak sei izango dira,

## Mexiko'tar katolikoak.

Yasarpn gogofaren azpian biziāfen, al daben era gustietara euren zīñestea agertzen alegintzen dira. Kisto Efege'ren egunean yai au andikiro ospatzeko Guadalupe'ko Ama'ren eleizara eldu ziranak 180.000 kristiñau zintso izan ziran. Goizeko bostetan asita elizako ateak amabost orduan zabalik egon ziran, eta eten barik minutoko 200 lagun sartu urtenean zenbatu ebezan.

Goizeko amaiketn Mexiko Kisto Efege'ri eskiñi eutsoen, eta «Agur Efegeña» ta «Kredoa» andikiro abestu ebezan.

Oin geldi samar dagoz baña, bakeari ertzik ez yako agiri ondiño. Yasarpn gogor onetan 300 eleiza kendu dautsez katolikoai, 200.000 lagun atzeñan dagoz eta guda ta abar erail dabezanak 10.000 inguru dira.

Kaēs lendakarizatitk yausi zan, eta bere ondorengo Portes Gil bere idekoa da. Lengo lege gaiztoak betetan aleginduko dala adirazi dau. Alde ofetatik ba, mexikotar katoliko gaxoak ezin leikie poz andirik euki.

Euren itxaropena Kristo Efege ta Ama Guadalupeko'gan dago eta uste izan leikie laster ekaitza baretuko dala, Yauna'ren aintza geyagorako. Aita Santuak Gabonetako itzaldian itxaropen orixe agertu eban. Alan izan dediāa.

## Izpar txorta. ❀ ❀ ❀

Orain iñe batsuk dirala Phat Diem, Indotxina'n lenengo aldiz Eukaristi Batzafa ospatu zan

60.000 lagun bildu ziran Ibildeunan bariz 120.000. Egun areitan 50.000 yaunartza emon ziran eta yayetara bost Gotzain eldu ziran.

*Saturnia* deritxon italitar itxasontzian lenengo aldiz, Aita Santuak egindako baipeneaz, gure Yauna bertako kapilan ipiñi dabe Ofetarako itxasontzian ibildeuna egin da, 1.200 bidezti bertan ziralā. Ondoren ifatizkiñez Aita Santua agurtu eben eta baita erantzun be.

Aurten, Aita Santua'ren urte deuna dala-ta, 250 zīñopa martiri ingalandafak deunen izendegian ipiñi dabez. Euren auzia 1580'n asi zan eta orain iru urte amaitu.

Aita Santuak Ipar Amerika'ko Gotzañei idazki bat ango Irakasetxe katolikotafatzaz idatzi dautse, eta albait onena izan daiten, goterkietan eta txindi biltzeko bazkunak ipinteko agintzen dautse.

Seviāa, Ofiāa'n egingo dan Andra Maria'ren goralbenezeko Batzafa, andikiro gertatzen diar-due, eta oso edefa izango dala esan bearik ez dago.

Beste airbeste esan geinke Barzelonan Irañā'n egingo dan Mixio-Batzafa'tzaz, eta baita gure Gotzain agurgafi Muxika yauna buru dala, uri aretan egingo dan Mixio Erakusketaz be.

**M'far G.**

# BATERA YO BEAR DOGU



MAITASUN bi dira gure eñiko biotz gustietan sustraitzen alegindu bear gaeanak: katolikotar siñestea ta euskereaganako maitasuna. Ziñestea goi-ondasun edeñena da, euskerea beko ondasunetan sustrai sakonenak gure biotzetan daukazana. Biok ederto alkartzen dira, antxiñako aizkide dira, eta biok batera eusko biotzetan euren etxean letxe sartzen dira, eta maitasun biok eusko biotzaz yaubetuten diranean, igali edeñenak emoten ditue.

Gure eñi au, bere izenen yaube izango ba'da, bere izakerea galdu gura ezpadau, oitura garbi ta onak zaindu gura ba'ditu, ziñesteari lenen eta gero euskereari eutsi bear dautso, edo obeto esateko biok batera maitasunez zaindu bear ditu.

Ziñestea eta euskerea aizkide zar eta kutunak dira, eta biok gure asaben biotzean batera bizi zirealako, «euskeldun, fededun» aintxiñako esakuna da.

Gure ziñeste ta gure izkuntzaren arteko alkartasun au geyagotzea dagokigu. Ziñesteko egi sakonenak geure izketan azaldu bear doguz, eta gogoko edozein bear izanetan euskaldunak bear daben irakatsia, bere izketan euki bear dau. Ofetantxe utsunetxoa somatzen ebalako «Yaungoiko-Zale» bazkuna sortu zan, euskaldunei Yaungoikoak gura daben lez, euskeraz zeruko bidea erakusteko. Eta onetantxe batera yo bear dogu. Ofetarako,

Beañoeko diran gauzetan batasuna.

Zeregin bikaña ta onuratsua izango dala, gai berberak agertzen dau. Baña ofetarako, beañoeko diran gauzetau batera yo bear. Euskaldunei euskeraz zeruko bidea

irakastea beafeko gauza dala? Ba onetan gustiok batera. Eta au efeza dala dirudi, baña zoritxafez ez dala beti esan geinke. Bakoitzari *bereaz* urtetzea atsegin izaten yaku, eta safitan batak bide bat aututea naiko izaten da besteak beste bat artzeko. ¿Zer dala-ta? Nik uste dot gure asabak *mus* zaleak izan diralako-edo, yoko txara eukiafen «ordago» efezegi yoten ikasi dogula. Eta ofetantxe arduraz ibili bear gara.

Gustiok Yaungoiko-zaleak eta euskal-zaleak gareala ez diñogu?

Ba onetan gustiok batera yo bear dogu. Era batera edo bestera, bakoitzak geure salean, oneri ekin dayogun, besteen baratzeko poñuak atera ezinda, geureak sartzeko ibili barik. Bestela, batera ez yoateafen, geurea ta besteena be galdu egingo dogu.

Ziñeste aldez dala? Gustiok batera. Euskera aldez dala? Gustiok batera. Onetan batasuna beafekoa da, bestela gauza onik ez dogu egingo. Batek ipinten dituen ariak besteak kentzen dituen bitartean, etxeñik egiterik ez dago. Beafeko gauzetan batasuna, batasuna ta... batasuna.

### Eztabaidakoetan azkatasuna.

Au onan egin bear litzakela, bestea alan idatzi bear litzakela, au baño bestea egokiago izango litzakela ta, eztabaidan beste zeregin barik asten ba'gara, astia ederto galduko dogu. Bakoitzari geure azkatasuntxo atsegin izaten yaku. Lanak geure zerbait eukiteak poztu egiten gaitu. Eta gauzak geugaz antz geyago ta atsegiñago izaten yakuz. Ofexegaitik, edo geurerik ezer ez daukan gauzan aftararik ez dogu ipinten. Gizonak bere notintasun edo persona izatea geyen maite dau, eta ori lagegikeri barik gauzarik edefenatarikoa da. Bakoitzak ba, berea berez maitatzen ba'dau, besteak berea maitazeari txarto ez dautsogu eretxi bear, kirtenkerien bat izan ezik. Geure bidea zuzenagotzat daukogula? Ederto! yaraitu dayogun, besteak geureganatzen alegindu gaitazan, baña gafaztasun barik, eztabaida baketsuaz, eta ezin ba'da, itxi bere bidean yaraitu dayela, zerbait egiten dabenak ezer egiten ez dabenak baño geyago egiten dau-ta.

Astirik galdu barik lanari ekin bear dautsogu. Ostantzean beñolako ipuñeko osagileai yazo yakiena, yazoko yaku: Gizon bat bapatean oso txarto yari zan. Etxekoak arapalada baten yoan ziran osagile eske ta ordu bete bañu iru zuzendu ebezan. Irurak gexoa aztertu eben, eta zer egin bear zan erabagiteko, gela baten bildu ziran. Bakoitzak itzaldi luze baten, bata besteai lora batsuk botata, bere eretxia emon eban. Ordu bete inguru ondoren, gexoari odola atara bear yakola erabagi eben. Gexoaren gelara uferatzen ziralarik, bere loba batek negañez urten eban, eta osagile batek esan eutson: ez negarik egin, zure osaba osatuko da-ta. ¡Bai zera!—erantzun eban lobeak—il da ba-ta! Orduan osagileak auxe erantzun eutson: Tamala! Gexoak apur bat geitxoago bizirik itxaron ba'euskun osatzen gendun!...

Eztabaidako gauzetan azkatasuna ba, eta ekin; gexoa itxaroteko eran ez dago-ta.

*Beti ta gustien gain maitasuna.*

Maitasun barik egiten doguzan zeregiñak, geuk egiñak diranik be ezin leike esan, bañuko bultzakadeaz ez doguz egingo ta. Maitasunak, poza, egoak, indaña, alaitasuna, eroapena, zintsotasuna ta iraupena emongo dauskuz. Maitasunak eten barik eta bultzakada barik lan eragingo dausku ta baita adoretu goyan biotza ipiñita eskuak lanean ditugula, eragospen gustien gañetik auñera yañaituteko.

Gustiok batera yoteko ba, esakun zar au arautzat euki daigun:

Beañeko gauzetan batasuna, eztabaidakoetan azkatasuna eta gauza gustietan maitasuna...

**GAMA**



# YAUNGOIKOAREN ERUKIA

**G**IZONAREN zo'ia ikaraga'ria zan. Yaungoikoa'ri eutson zor a ordaintzeko gizonak egin zeikean gustia utsa, ezereza, o'rtetara ko gai ez zana. Gizonarentzat beste biderik ez egoan, obena irabazi eban zigo'ra bere gain artzea ba'ño; b'etiko zoritxa'ra. Gizadiare etorkizuna bai'zala nega'ga'ria!...

Ba'ña, zorionez, Yaungoikoa e'rukitasunean aberatza da; e'rukita sunen Yaungoikoa eta bere egite gustien gain Bere e'ruki neur'igabe agertzen dabena. Eta bere Zuzentasunak eskatzen dabena beteta er berean, E'rukitasunak garailari urtetzea nai izan eban, eta alantxe erabag be.

Bere Seme Yaungoikoa, Gizon egingo zan; Gizatasuna Beragan duko eban; eta batasun o'fen inda'rez, gizona-zanez egingo ebana Yaungoiko asare'tua: t'zat atseginga'ri izango zan. Eta Gizakundeko eskut arigariaren bidez, Yaungoikoa'ren Seme Baka'ra gure aragia artu ta gur artean bizi izan eskar eta egiz beterik...

Yesu-Kristo gure Yauna, ludi onetara datozen gizon gustientz Argia izan zan, biotz argalarentzat, askar eta sendotasun, samintasun gustientzat poz-atsegi'ña, obenaren ondatzalea...

Gizonak obenagaz, argi, bizitza ta bidea galdu zituan, eta Gur Gaizkatza'leak, Bide, Egia ta Bizitza Bera dala esan euskun...

Kristo gure Yaunak egiten eban gustia neu'ri barik aldintsu ta ira baziduna zan. Bere neke bakoitza, Bere samintasun bakoitza, Bere od tanta bakoitza, Bere izerdi anpulu bakoitza. Bere Biotzeko taupada bakoitza oben gustien zo'ia ezereztuteko naikoa ta geyegi zan.

Au lango mila mundu izan ba'ziran be, aitatutako egite ta gauz bakoitza, oben gustien zor ikaraga'ria ordaintzeko gai izango zan.

Ba'ña, Yesu-Kristo'k Bere Aita'ri ta geuri dauskun maitasuna, o egaz ez zan asetu. Gure obenaren Beragandutako gurutz astuna ogeta mairu urtean eroan gura izan eban. Era gustietako nekeakaz egindak gurutz astuna. Lan, ezetsi, lastasun, eskartzar, yasarpen, bekaitz, go'ro to, saldukeri, iguin, la'ritasun, ixeka, laido, lotsa, zigor, eta irain baltze nez ga'ñera, gurutza baten yosirik, lapur biren erdian euretari'ko bat ba litzan, gure obenakaitik eta gure maitasunez Bere azken arnasa emo eban... Yesu-Kristo'k dauskun maitasuna nora'ño'koa dan!...

Paul deunaren itzok: Yesu-Kristo gure Yauna maitatzen ez dabena, madarikatua izan bedi» (I Ad Korin. 16-22) gurutzari begiratuta ondo ulertu geinkez.

Baita «gaiztakeria ugari zan tokian, eskar edo grazia askoz ugariegoa izan zala» (Eřom. 5-20).

**Manterola'tar G.**



## Aita Santuaren Eregetza.

Gai onetzaz ugari ta gustiz ederto gure aizkide Lafakoetxea abak, Efoma'tik idatzi eban idazki bikañi azkenengo zenbakian ikusi eben nire irakurleak.

Auzi au erabagitea, benetan latza izan da alderdi bientzat, Krispi, Eleizaren etsayak esaten eban au erabagiten ebana Italia'ko politikorik andientzat eukiko ebala. Benetan gauza zala izan dala ikusteko zertzeladok gogoan eukitea naiko da.

Urte biterdi ofetarako autu-aldiak iraun dabe, eta aldi onetan Barone italiar aldetik eta Pazelli yauna'k Aita Santuaren aldetik 110 autu aldi izan zituzean, eta onein bafi Aita Santuari emoteko 19 bider ikertu eban eta bakoitzean iru ta lau ordu Aita Santua'gaz egon izan zan. Autu-aldi oneitan «Efoma'tar Auzia» atonduteko, ogetasaspi atal dituan arautegia idatzi eben.

Baña «Efoma'tar Auzia» ebaztea, Italia'ko agintariak Aita Santua'ri zor izan yakon, eta berenez dagokion azkatasun eta yaubetasuna aurtortzeko da; eta ofez gañera beste arazo astun bat atondu bear zan, eta gustiz gañantsitsua Aita Santua ta Italia'rentzat. Italia'ko Latefi ta Eleizaren arteko artu emonak auferantzean zeintsuk izango direan erabagitea.

Onetarako Itunben edo Konkordato bat egin bear zan. Onetarako Aita Santua'ren aldetik Borgongini Duca yaunak lan egin dau. Amar batzar alderdi bietakoak egin zituzean, geyenak goizeko zortizetan asi ta afatsaldeko sei ta saspietarte. Batzar oneitafik urten dau Konkordatoen artean ederenetakoa Aita Santuak Berak esan dabenez, eta ofexegaitik be «Efoma'tar Auzia» erabagi zeikiela. Itunben onetan Eleiza'ren eskubideak aintzat artzen dira, eta orain arte zuzen naiz zeafetara Eleizaren kaltezko diran lege gustiak baztertzen dira Baita itunben onetan gurenda edefa Aita Santua'k irabazi dau. Katolikotar bazkunai agintariak ipiñitako eragospenak zirala-ta, Aita Santuak gogor bein baño geyagotan bere asafea agertu dau; ba, Itunben onetan «Ekintza Katolikoa»n sartzen diran

bazkunak ontzat emonten ditu, Aita Santu ta Gozain menpean, politika usain barik lan egiteko baldintzaz. Garaitza edefa ziñez Mussolinik onetan orain arteko bidea itxi beafa euki dabelako. Oingoan gizon *portau* da, ta olantxe yafaituko al dau.

Gu poztu gaitezau Eleiza'ren gurenda edefaz, eta Yauna'ri eskefak emon dayoguzan, gure Aita Deunak azkatasuna lortu dabelako, eta zorion agufik beroena agertu be bai.

## Aita Santua dala-ta. ☉

Oi danez aurtan Eleizea'k ainbat ipiñiko ditu, zoriondunen izendegian ofetarako auzi-aster-tzaleak gogor lanean diardue ta.

Diñoenez txanda bitan izango dira. Batsuk Bagile'an eta beste batsuk Lotaziñan. Dirudienez, Don Bosco, salestafan irazlea, lenengo txandan zoriondunen lefoan ipiñiko dabe, baita Kamporosso Fernando Aba kaputxinoa, Terese Margarite Redi karmeldar lekaimea, Kolombiere Aba yosulauna, 1639'n il zana eta Margarite Alakoke deunaren autor-entzulea, eta Karboniano Kosme armenitar abadea, 1707'n zifnesten alde odola ixuri eban.

## Lourdes'ko osatzeak.

An gauzak ondo ariltzen dituela ikusteko, eta bereala miraritzat osatzeok euki aufetik ondo azerizen dituela yakiteko, ara zeaugañi bat. Bertako osagile zuzendariak, Vallet yaunak, 1928'n egin dituen lanen bafi emoten auxe esan dau: 1926 eta 1927'ko 50 osatze-agiri aztertu dituguz eta eurotatik 12 osatze afigañiak dirala erabagi. 1928'n 87 gexo asko obetuta aztertu dituguz, batsuk zearo be bai, baña urte betean osasun ona daukiela ikusi arte ez doguz aztertuko. ¡Batsuk uste daben baño zeatzago gauzak aztertzen dira!

## Viko Kardenalen eriotzea

Otsala'ren 24'n Viko kardenal ospetsua il da. 82 urte euki ditu, 1873'n abade egin zan. Kolon-

bia, Bruselas eta Madrid'en Aita Santuen orde-  
lari izandakoa da. 1912'n kardenal egin eben eta  
ointsurarte S. C. Rituum'eko buru izan da. Elei-  
zaren alde egin dituan lan ugarien saria bemo-

tso Yaunak. Beronen eriotzaz bizi diran yanz-  
kordun edo kardenalak 61'era yatsi dira. 28 ita-  
lita fak eta 33 atzerita fak, gelditzen dira.

**M'laf G.**

## PROPTER NIMIAM CHARITATEM...

(Ad. Eph = 2 = 4.)

Gure biotzaren Yaube  
zaran Yesus maitea;  
Zelan leike Gurutzean  
yosirik agertzea?...  
Zauriz, odolez, izerdiz,  
samin-itxas-erdian,  
Zelan zagoz Yaun maitea  
lapur birén artean?...  
Érugetasuna zara,  
Goi-bizitzan ituri;  
Eriotzak Bizitza'ri,  
Zelan erpak ezari?...  
Gotzonen poza zarana,  
zagoz lotsaz beterik;  
gaizkin baltza ba'ziña lez,  
irain, laidoz, aserik!...  
Zorun utsa zaran Yauna,  
biotz-naigabeturik!...  
Ori zelan izan leike?...  
Nor azaldu leikenik?...  
Gizonaren adimenak  
zelan ori azaldu?...  
Anitza oro zor yatzula  
sentzunak ba'diñosku?...  
Azalben ordez ez dakust,  
eskutukia baño;

giz-adiñak ezin leike  
azaldu egundaño!...



Bakar-bakañik, Yaun maite,  
eskutu ain sakonak  
azaldu leikez oparo,  
neurge dan Maitasunak.  
Zer dala ainbeste neke?...  
Zauri oreitan dakust;  
Batez bere Biotzean  
dozun zauriak diñost:  
«Maitasunak egiña naz,  
zuk nakuszun zauria;  
Maitasunak azaltzen dau,  
kurutzeko nekea;  
Yaungoikozko Maitasunak  
egiña da gustia;  
Maitasun oren indárez  
emon dot nik bizia...»  
Gizon eskar txarekoontzat  
ainbesteko pozgari?...  
¡Geyegi da ori Yauna!...  
¡Geyegi da! ¡Geyegi!...

**Manterola'far G.**

# GURE NAGOSIAREN AGINDUPEAN

## GUSTIOK BATERA

---



ENGO zenbakian gustiok batera yo bear dogula esan gendun. Gaur pozarén diñogu, gustiok batera yo bear dogula, gure Nagosi, Gotzaña'ren agindupean. Gure gorputzeko iñarkun eta egite gustietan, baita gogokoetan be, batasunak, egizkoak beintzat, buruan bere iturburua euki bear dau. Antxiñako yakitunak, eta oingoak be, ago batez egitzat dauke, gorputzkiak gogoak erabilten dituala. *Mens agitat molem* esan geinke ba. Au gizartean be, bea'eko gauza dala, txapela, berotzeko baño zerbait geyagorako burua daukanak autoritu bear dau. Egizko batasuna, beti goiko gauza da, eta betik sortzen danéan be, egizkoa izango ba'da, buru bat aintzat arzeaz osotuten da. Buru barik, gorputzak bizitzarik eta eragipenik ez dauken antzera, gizarteak be bizitzarik eta eragipenik ezin leike izan.

Buru baka'rik naikoa ez da, baña gorputza buru barik, ezertarako be ez.

Eta kristiñau-ikasbide arazoetan, Yauna'ri eske'rak, buruak ba'ditugu. Guri besterik ez dagokigu ba, euren agindupean gudari zintso lez adoretzu yokatutea baño. Buru oneik Eleiza'ko agintariak dira. Ludi gustian Aita Santua eta goterki edo Eleiz-ba'uti bakoitzean Gotzaña.

Goiko aginduz, katoliko-ekintza zuzendu bear dabenak eurak dira, eta Yaun-goikoak gure onerako ipiñiak diralako, pozez beterik aintzat artu bear doguz.

Kristiñau gustiok ba, baña batez be abadeak, euren menpean lan egin bear dogu.

Gustiok batera, gustiok gogotsu, gustiok eten barik, gogo-arazoetan, kristiñau artean dakusgun ezyakin lotsagaña, bein betiko baztertzen alegintzen ba'gara, garaitza geurea da.

### ✻ Kristiñau-ikasbidea irakasten batera. ✻

Lengo zenbakian, au gayak berak eta sentzunak eskatzen ebala esan gendun. Gaur, geure Gotzain agurgari dan Mujika'tar Mateo yaunak agintzen dauskuna dala, diñogu.

Zenbaki onetan bere idazki edera irakuri zeinke ta, bertatik artufako ataltxo bi bakañik ipiñiko dodaz: Ara Gotzain agurgariaren itz gomutagariak:

«Kristiñau-ikasbidea jakin barik, bere orialde txikietan kristauak jakin eta egin bear dauan guztiä dakañen liburu txiki ori ikasi barik, gizonak ez leike jakin zer sinistu, zer eskatu, zer egin eta artu bear daben; eta ori ez dakianari alperik da itzaldi aundiak eta eskutitz luzeak egitea; ez dauksa oregaitik ardura. Augaitik ez da ezer bere Kristiñau-ikasbidea erakustea baño gauza bea'gorik».

«....Gaitz izugaña da benetan ezjakin au; baña aundiagoa egiten dau ondiño ezjakiña borondatezkoa izanak. Gaurko egunean ez dakianak, jakin gura ez dabelako ez daki».

Ara or argi ta garbi gustion zeregiña. Ez dakianak, ikasi, nagi diranak bizkortu, ezyakin lozorotik atara, eta dakianak eta batez be oretarako bearkuna dogunak irakatsi. Yaungoikoa'k gura dau, eta kistar-maitasun legeak eskatzen dauskun.

Goterki onetan, gagozan aña abade egonda, toki batsuetan oartzen dan ezyakin lotsagañiak arpegia lotsaz goritu bear leuskigu. Txina'ko mixiolariak-eta daukiezan beste ardurapean bakoitzak ba'leukoz... baña, ainbeste gagozan tokian kristiñau-ikasbidea ez dakianik bat be ez leuke egon bear!...

Yaunari eskerak toki geyenetan, lan ederto egiten da; baña ondiño geyagoen beara dago, eta gustia abadeak bakañik ezin leikie egin eta, irakasle, guraso ta laguntzaileen bear izana daukela edonok daki. Ikasi ta lagundu irakasten gustiok batera!...

### ✻ Euskaldunei euskeraz irakasten, batera! ✻

Kristiñau-ikasbidea bakoitzari bere izkuntzan irakatsi bear yakola, Toñas eta Bages Gotzain yakintsuak idatzi eban lez, Eleiza'ren guraria da. Eta ara gai onetzaz gure Gotzain agurgariaren agindua;

«Bañan eri asko dagoz—gure Baruti onetan geienak—erderaz ez dakienak eta jaiotzatik il arteraño beti euskeraz jarduten dabenak; otoiñtz egin, kantau, ta Jaungoikoaren izena onetsi, dana *euskeraz* egiten dabenak, eta erdera ederezko itzik erezenak esan-da bere egundoko okeñen aditzen dituenak.

Eleiz Amaren ume oñei, zelako kristiñau-ikasbidea erakutsi bear yake? Zein da eurek txikitatik ikasi bear dabena? Neure barutitar maiteak: emen ez dago eran-



tzun bat besterik: *Orék kristiñau-ikasbidea euskeraz ikasi bear dabe; orei zeruko bizitxazko liburu txiki ori, euskeraz erakutsi bear yake*».

Beraz aiko-maikoetan ibilterik ez dago, gustiok agindutakoa bete bear dogu, gure lanak onuratsuak izango ba'dira. Eztabaidak alde batera itxita, gogo zintsoaz gustiok euskaldunei euskeraz zeruko bidea irakasten alegindu bear gara.

*Yaungoiko Zale*, oretarakoxe sortu zan, eta amazortzi urte onetan oretan diardu, baña gaurtik aurera, Gotzain agurgariaren agindu ori beteaz, bere bidean adore geyagogaz yaraituko dau. Ekin ba gustiok batera!...

**G A M A**



# GUSTIOK BATERA; BAÑA ZELAN?...



AGOSIAREN menpean gustiok batera yo bear dogu. Katoliko ekintzan gure buru Gotzañak dira-ta; ila onen 2'n Aita Santu agurgariak, prantzitar, 5.000 gazteri egin dautsen itzaldian esan dautsen lez, gure araua, antxiñako ziñopa edo martiriena izan bear dau. Gotzain barik ezer be ez. *Nihil sine episcopo*. Au beařeko gauza dala argi dago. Zerbait iraunkor izango dana egiteko, batasuna, indařa, adorea ta kemena bear ditugu. Indařa ta adorea batasunetik datorkiguz, eta batasuna buru batetik, nagosiagandik. Au gizarte gustietako legea da. Batasun onek, beste gauza askoren antzera mała asko ditu, eta era askotakoa izan leiteke.

Esan beařik ez dago, azaleko ta noizipeingoak ez dabela izan bear, bařeneko ta iraukořak baño. Eta batez be,

## ✻ Egitezko batasuna ✻

Askotan ba, eretxietan batasuna euki ařen, egiteetan ez da agertzen, bide erdian gelditzen garealako. Zuzen dagon gauza bat, (esaterako Kristiñau Ikasbi-dea euskeldunei euskeraz irakastea), ontzat emon eta aintzat artzea, itxurazko gauza da-ta, agindu zuzen onen aurka yagiten asartzea, gizonkeri andia ez dirudi-ta, ontzat artu geinke, besterik ezpada be toki txarean ez gelditzeařen. Eta txalotu

be bai bear ba'da. Au bañiz gauza ezeza da, batez be gure txaloak nagosiaren be-  
larrietara elduko dirala dakigunean. Baña ori bakañik ez da ezer.

Agindutakoa txalotuez gañera, geuri egoki yatorkuna izan ez aŕen, edo ta,  
zerbait naigabe dakarskuna izanda be, zintzoro eta eten barik betetan alegindu  
bear gara. Eta ondiño geyago. Txaloak alde batera itxita, geure lana ixilik gelditu  
ta baztertuta egongo dala yakin, eta bear ba'da bidebako mormoxetak entzun aŕen,  
zintzoro yaraitzen dogunean, orduantxe egizko batasuna lortu dogula esan al izan-  
go dogu. *Egitezkoa*, beraz *egizkoa*.

Bestela menpetasunean eta batasunean bizi gareala uste izatea ames antze-  
koa izango litzake.

### ✻ Auñera begiratu, ta auñera yoañ ✻

Agindutakoa egitez betetean dago untzia, itzez bakañik betetan (?) danean,  
aginduari, etsayak baño kalte geyago egiten yakola esango geunke. «Au ondo  
dago, egin bear da» esan eta gero egiteko ala egiten dabenari laguntzeko ardura-  
rik ez eukitea, bapez baño txarago. Miña, itza bakañik ikusten dogun bitartean,  
itxaroper. andirik ezin geinke euki, itza ezez ezereztuten da-ta, oregaz auñera begi-  
ratu bakañik egiten dogu, eta *egiten* dogunean auñera goaz. Eta orixe da bear da-  
na, gizonaren igaliak egiteak dira-ta. Ori egin ezkeru, *itzak* be egite biurtzen di-  
rala esan geinke.

Agindua beaŕekoa da, baña, betetan ezpada, erne bako aziaren antzera gel-  
dituko da: onuratsua izango ba'da bete egin bear... Burdinbideak egokiro eginda  
egon aŕen bertatik bultzirik ezpadabil zertarako dira?...

Goikoen agindua ontzat artzen daben gustiak, betetan aleginduko ba'lira...  
baña egin baño lenago, albora, bera ta gora ta bazter gustietara begira ba'gagoz,  
batak zer esango daben, besteak zer eretxiko dautson eta abar... ezer ez dogu egin-  
go, bultzia geldi egongo da. Bultzizañak auñera, bidera begiratu bear dau, bere  
bidea axe da-ta. Eginbeaña aintzat artzen dabenak be, axeri bakañik begiratu bear  
dautso, eta albora begira ibili barik, auñera!

Bestela, gustiok, au egin bear litzake, bestea onan zuzendu bear litzake ta...  
astia galdu ta ezer ez! Eta orixe ezer ez egite ori, gauza gustietan etsairik andie-  
na da.

Zuzen-zaleak, itzez, oldoskunez, gurariz eta *egitez* izan bear gara, bestela  
utsen uŕengoa egingo dogu.

Gustiok batera ba, gure buru diranen aginduak betetan, eta batez be *egitez*...

## ◉ Bide onera. ◉

Ingalanda 'ko katolikotafak, euren Buruen agindupean ederto lan egiten dabe. Igesko urtean, Gotzain eta kistar lauei buruauste geyen emon dautsen arazoa, ikastoletako umeen azierrea izan da. Ofetarako katolikotaf ikastolentzat albait geyen lortuten alegindu dira, baita lan gogor egin eurok ugaritzeko. Hexham'eko goterkian bakafik, amairu ikastola bafi idigi dabez eta Gotzañak alegin gustiak egin dabez, ikastola katolikotafen alde egingo dabenentzat autarkiak biltzeko.

Eleizak be ugarituez doaz. Iges bakafik befogei eleiza bafi egin dabez eta beste ainbeste egiten asi dira. Katolikotafak ugafituez doazala igarteko ezaugarri edera da.

Ango izpafingi katoliko batek diñonez, amasei urte oneitan, 158.679 protestante katoliko biurtu dira, eta iges bakafik 12.000. Eta apal eta ezyakinen artekoak ez, geyenak andiki ta yakitun artekoak. Ez luzetzeafen, euren izenik ez dogu ipinten baña, protestanteen artean buru izan diranak talde edera izan dira. Onein ondoren beste asko etofiko dirala uste izan leike, eta Yaunak Beraganduko al dauz.

## Aita Santua Goraltzen.

Italia'ko agintariakaz egin daben itunbena dala-ta, latefietako ordelariak, ogetaka latefietakoak, Aita Santua ikertu eben euren latefien izenean zorion agufa agertzeko. Idazkari ta abar irurogetamar lagun bildu ziran, eta gustien izenean, Brasil'go ordelariak, itzaldi eder-edera Aita Santua'ri zuzendu eutsen, IX'n Pio'gandik XV'n Benedito'rarte bakea egiteko egin ziran alegiñak edestu eta goralduaz. Aita Santuak

itzaldi bikain baten bidez esker ona eta poza agertu eutsen.

Baita oraintsu, italitar 24.000 mendi-gударик ikertu dabe, Aita Santu mendigoizalea, onesten zituan artean goralduaz.

Pantzetar gazteak be, Aita Santuari euren menpetasuna agertzeko bidezkunde edera egin dabe. Epala'ren 24'tik 31'ra, saspi bultzitan 5.000 gazte Efomaratu dira. Yoñala'ren 2'an Aita Santuak Batikano'ko Eleizan mesa esan eta bitartean gazte goragafiok abesti edefak abestu zitezuan.

Afatsaldez Aita Santua ikertu eben, abesti batsun ondoren, Baudriñart jaun agurgafiak, gustien izenean itz egin eban, eta XI'n Pio'k itzaldi edefaz erantzun eutsen.

## Kardalenen eriotza.

Ia zortzi egunen bafuan iru kardenal il dira. Gali kardenal agurgafia, italitafa izan da, 1866'n yayoa eta 1923'n yanzkordun edo kardenal autua. Azkenengo iru Aita Santuen il-itzaldiak beronek egin zituan (G. B.)

—Baita Efoma'n il da Epala'ren 31'n Luzidi kardenala, Gali kardenala yayo zan urtean yayo, eta kardenal be egun baten autua. 1923'n kardenaltza artu ta ufengo urtean Parma'ko Eukaristi batzafean Aita Santuaren ordelari izan zan.

Efoma'n bertan il da baita be, Gasket kardenal ospetsua, 1846'n Londres'en yayoa. Beneditar ospetsu au edesti gayetan galendu zan, eta Leon XIII'n, X'n Pio, ta XV'n Benedito'k araso aziunak leporatu eutsuezan. 1907'n X'n Pio agurgafiak Idazti deuna aztertzeke Batzordeko lendakari autu eban, eta egindako lanak saritzeke, 1914'n kardenal autu eban. Afezkero lan asko

egin dau, edesti gayetan batez be, eta azkene-  
rarte zintso yokatu dau. Il baño egun batsuk le-  
nago Gañi kardenalaren il-otoitzetan izan zan,  
eta antxe ondoeza somau, eta egun gitxi bañu  
biotzeko gatzaz il da. (G. B) Onen eriotzaz,  
kardenalak 58'ra yatsi dira; 26 italitar eta 32  
beste latefietakoak.

### ◉ Izpar = txorta. ◉

Aita Santua'ren abadegintzako 50'n urtea da-  
la-ta, Prantzia'ko agintariak XI'n Pio'ri gomutaki  
bat eskiñi dautsoe. Trokadero biltegian dagozan  
iru ertilan andi zidañean bañiztuta. Ertilanok  
Angkor'eko eleizatik ekañiak dira, eta Zerua,  
Gaiztokia eta Azken-epaya antzeztuten ditue.

Ofaitio, eskintza au esan gura andikoa dala  
uste dogu. Prantzia'ko agintariak Aita Santua'ri  
eskintzak egitea, ez da gero gitxi añitzekoa!

—Milan'dařak befogei zaldi indardun beribil  
edo automobil edeřa eskiñi dautsoe. «Fiat» lan-

dolan egiña, sei lagunentzat tokiduna. Barutik  
margo gořidun eunki edeřez apainduta, Kistobal  
deunaren uřezko irudi edeřa ipiñi dautsoe.

Baita milandar landola yabeak asmoa artu  
dabe Aita Santua'ri egazkin (aereoplano) bat es-  
kintzeko, eta egazkin toki bat Batikano'ko bara-  
tzetan euren sakeletik egiteko.

—Kardenalak, euren buru Banuteli agurgař-  
iaren bidez, Aita Santuari, idazki edeřa zuzendu  
dautsoe, Italia'tar agintariakaz egin daben itun-  
bena dala ta, euren poza agertu ta zorion agura.  
Aita Santuak bere poza agertu ta eskatu dau-  
tsoen onespena biotzez emon dautse.

«Ziñeste Zabalkuntza» bazkunak 1928'n 57 mi-  
lōi mixiñoetarako bildu ditu. 1927'n baño 7 milōi  
geyago.

—Beneditařen gopatza sortu zala 1400 urte  
betetan dirala-ta Monte Kasino'n egingo diran  
yayetarako Aita Santuak bere ordelarizat Gas-  
paři kardenala autu dau.

**M'iař G.**

# BATERA; ¿NORTZUK?

---

**G**USTIOK batera, ez itzez bakarrik, egitez batez be, zintso yokatu bear dogula esan gendun. Baña, nortsuk dira beste gustien gain batera yoan bear dabenak?

Itaun oneri erantzutea oso éreza da. Batera yo bear dogu, Kristiñau Ikasbidea irakasteko bear kuna dogun gustiok: guraso, abade ta irakasleak. Irutsuok umeai zeruko bidea *ondo* irakasten alegintzeko eginbeaña daukogu. Eta *ondo* irakastea euskaldun umeai euren izketan *ondo* irakastean dago. Gaurkoz gurasoetak bakarrik zerbait esango dogu.

Euskaldun umeai euskeraz irakasten ezpayake, ulertzen ez dituezan itzez buru gustia beteañen, Kristiñau Ikasbidea «ikasi» dabela esan ete geinke? Beraz, «irakatsi» yakela be bai?... Ez bata ez bestea.

Umeai Kristiñau Ikasbidea irakasten zerbait ardura artzen daben edonok daki, euskaldun umeak, goiko ikasti ori euskeraz ikasten ez dabenean, azalean geratzen yakela, belarrietatik urun ez yakela sartzen, biotzeraño iñoz be ez yakela eltzen. Eta biotzean sustraitzen ez dan ikasbideak zenbat iraun eta onurarik ekañi ete leikio? Udagoyenean zugatz orien antzekoa izango da eurak «Ikasi» dabena; aizerik txikienak, itzok, orñi igañen antzera, sakabanatuko ditu...

Girña zitalak legeen aurka bultz egiten dautsoenean, Kristiñau Ikasbidea *azalez* ikasi dabenak; ziltzaldiari eutsiteko bear dituan argitasun eta biozketa zuzenak, nondik atarako ete dituz? *Buruz* artu dituan «itz utsetatik»?... Ori ames utsa izango litzake. Eta gaste ori girñak aspiratuta galtzen ba'da, érua norena izango ete da?... Lenen ardurabako diran gurasoena. *Siurot* irakasleak esaten eban lez: *Gurasoak! Ara or umeen etsairik andienak!*... Orixe dira,



Gurasoei gogor egiten yake, semeai Kristiñau ikasbidea irakasten alegintzen ez diralako. Eta egia esan, gaur onetan, guraso askotan itxikeri lotsagaria oartzen dogu.

Gaurko guraso askoren ardurea, eta ori katolikotzat dagozanena, eskolak irakastea bakañik izaten da. Eta oñetarako, euren sakela zabaldu, eta neke ta loñez irabazitako txindia eralgiteko gertu ikusiko ditugu. Eta ori ederto dago. Bizibidea irakatsi, adimena landu eta zerbait izateko bidean semeak ipinteaz, euren eginbear bat bete baño ez dabe egiten. Ori txalogañi da.

Baña, gustiak oñetan amaitu bear ete dau? Bere semeen biotza landuten alegin geyago ez ete dau egin bear? Eta gasteen biotza zelan mendu eta landu ete leike Kristo'ren legea *ondo* irakatsi ezik?... Eta *ondo* zelan irakatsi bakoitzari bere izketan, beraz euskaldunei euskeraz irakatsi ezik?... Ala Kristiñau Ikasbidea, beste edozein ikasti baño gurenago ez ete da?...

Gure Gotzain agurgañaik, Eleiza Ama'ren agindu ta guraria, «gogo ona daukenentzat» argiro azaldu dau, euskaldun umeai, zeruko bidea euskeraz irakatsi bear yakela aginduaz. Eta lenen,

✻ Nortsuk bete bear ete dabe agindu ori? ✻

Nortsuk, gurasoak izan ezik? Zoritxarez baña, guraso asko dira, euren semeen urdalagaz, biotzagaz baño geyago arduratzen diranak, eta negargaña da, baña egia da, abere ta landarak, batsuri, euren semeen biotza landuteak baño buru auste geyago emoten dautsiela. Umeak ikastolara bialdu ta beste barik, an irakatsiko dautsiela ta, Kristiñau Ikasbidean zelan dabilzan yakiteko ardura gitxi artzen dabenak edur matasen antzera ugari ezagutzen dituguz. Eta gero or dakusguz, umeakaz gauza onik ezin dabela egin negarez agertzen dira. Zer dala-ta nai ete dabe oñeik eurai itzal eta dedu izatea, eurak Yauna'ren legeak eta Eleiza Ama'ren aginduak betetako ain ardura gitxi artzen ba'dabe? Yaungoikoa'ren agintzari itzalik ezpadautse, zer dala-ta eurentzat eskatu leikie?...

Egiten dabenagaz bakañik, Kristiñau Ikasbidea irakasteko bearkuna betetan ete dabe? Ulertzen ez daben izketan ikasteko eurak sañitan bultz egiten dautse-ta!... Ume askok, eurek ulertzen daben elez, Kristiñau Ikasbidea ezpadaube ikasten, gurasoen andikeriz, diru-zalekeriz eta alperkeriz ez dabelako nai izaten da. Au egunoro dakusgun egia da. Eta ori al da bearkuna betetea?... Eta,

✻ Añigariena auxe da: ✻

Sañitan eleizan ikusten diran gurasoak, Kristiñau Ikasbidea *ondo* irakasteko bide bakañaren aurkalaria izatea. Eta ori, egizko katoliko sentzunik ezetik ala ezyakin lotsagañitik bakañik sortu leikena da. Eta naiz bata, naiz bestea izan, oker dagozala argi dago.

Gaur ikusten dan ezyakin lotsagaña baztertu gura ba'dogu, beste biderik

ez dago, Eleiza'ren aginduak eta gogoa zintso betetea baño. Gaur ain bearekoa dan katolikotar ekintzak, ziñeste sendoan sustrayak euki bear ditu, XI'n Pio agur-gariak diñoan lez, eta ziñeste sendorik ezin izan leike, Kristiñau Ikasbidea bear dan lez irakasten ezpada; euskaldunei euskeraz, amazorizi urte onetan *Yaungoiko-Zale*'k aldestu daben lez.

Amaitzeko, Zipriano deunak bere eleiztañai eta Aita Santuak prantzitar gasteai esan dautsienagaz amaituko dogu: Guraso katolikotañ zareala diñozu? Ba, «zareala diñozuna, izan zaite»...

*Esto quod diceris...*

**GAMA**

Efi - yakintza.

# OSAKAYAK

*Osalarien eretxia:*

## **Agiñeko miñekoatzaz.**

Untzoñiak zornetuten ez dautso isten, eta era batera bigunduteko eta miñek arinduteko indarā dauko.

Saukuak (intxausak) idoñeskortasun eta atsontasuna daukoz eta pipeñagaz (piper nigrum) eta ardaoagaz nastu azkero, guztiz egoki dira agiñeko miñe kentzeako. Pipeñak, ba, sartzean dan lekuan

goñitasun geia dauko (rubefaciente) eta onan untzoñi ta saukuen indarāk agiñean ezañi daitezcan lagunduten dau.

## **Garmua koatzaz.**

Untze gori bategaz garaua eretea, lelengo, bear-beañekoa eta astirik galdu barik egin bear dana da. Letxugorñi, intxaur-orñi, az-orñi ta eremolatxoñiekaz egiñeko lokañiak estutuez bigundu egiten dau, eta intxaur-orñiak idoñeskortasuna (efectos astringentes) ezarten dotso ta *tanino* daukona lez, zornatuten ez dotso isten.

**G.ñar E.**

# KATOLIKO IZPARAK

## Katoliko Ekintza.

Gure Aita Santu agurgafiaren, lan afigafiak, Berak lenengotatik, agertu eban asmoa aufera eroatera, au da; Kristo'ren Bakea, Kristo'ren Bakalderian zabaltzera, zuzentzen dira.

Ořetarako Bere biotz bafuko asmo gustiak, Mixiñoai indafa emon eta Katoliko Ekintzaren aldez kristiñau gustiai lan eragitean, sartzen dirala esan geinke.

Eta asmo oneik aufera eroaten, gure Gotzain agurgafiari irabazi leikionik, ez da efez aurkitzen. Eten barik onetantxe diardu, zintso, sutsu ta kementsu.

Ořetarako Yořala'ren 18'n asita, Bilbao'ko uri edefean yai eta batzar edefak eraldu ditu. Abade batzafa, Bizkai'ko 200 abadetik gora inguruan zituala egin eban. Emakumeen batzafa, gizeozkoena, eleizkizun zoragafiak egin dira, eta gustietan agertu yaku, bere itzaldi sutsu ta eten barik lan egiñaz, gustioi ikasbide edefak emon eta gustioi asmo goragafiok aufera eroateko adoretuten. Egunoro koetan, egin diran lan gustien bari zearo emon dan ezkerero, aiatatu baño ez doguz egiten.

Guri dagokiguna, bere aginduak zintso betetzea da, eta baita Yauna'ri eskatzea urte askotan gure artean lan egiteko osasun eta adorea emon dayola.

## Ingalanda'ko Katolikoak.

Ingalanda'ko katolikoak aufera doazala lengo zenbakian esan gendun. Gaur zerbait geitxoago gai onetzaz esatea otu yaku, yakingafiak dira-ta.

Zenbat katoliko diran, ziur ezin geinke esan; gitxien diñoenak be 2.156.200 dagozala diño. Au Ingalanda'n bakarik, Eskozia ta Gales zenbakuntzan sartu barik. Beste zenbakuntza batsuk

osterā, 4'tik 5 000.000'ra zenbatzen dabez, eta dirudienez oneik zuzenago dagoz.

Katoliko ikastolak ugarituez doazala esan gendun. Ara igesko zenbakuntza. Lenengo mařako katoliko ikastolak, 1.287 dira, 400.000 inguru ikaslegaz. Bigafen mařakoak, 504.540.465 ikaslegaz. 2.742 abade dagoz, eta 1.568 lekaide. Eleizak 2.183.

Norbaitek gitxitxo eretxi leikio, baña Ingalanda'ko katolikoak, VIII'n Enrike'n gaiztakeriz Eleiza Amagandik aldendu zan ezkerotik, gořiak ikusit'koak dirala gomutau bear dogu. Egin egitean be, aurtengo Yořala'ren 13'an, gomutagafia da.

Egun onetan eun urte bete dira, ingalandar katolikoak azkatasuna lortu ebela. Egun au, eleizkizun eder eta *Te Deum*'az Weminster'ko gotzain eleizan, gotzain gustiak bertan dirala, ospatu dabe. Banakuntzako lengo gora-berak igarota, 1.606'na ezkerotik ingalandar katoliko gaxoen egoera, negargafia zan benetan.

Protestanteen buztaripean burua makurtu ezik, ezin zeikean latefipean arazorik eskuratu, itxasoz naiz leofez gudari izatea debekauta euken; lege gizon eta osagile, katoliko zanak ezin zeikaen izan; ez da gurasorde eta besteen ondasunen banakari; ezin zeinkean luřik erosi, oñordeko edo erederu izan be ez; izkiľuak erabiltea debakauta eukien, eta norbaitek euren zaldia kendu gura ba'eutsen, ixilik emon bear; uri andietan bizitea debekauta, eta nai ebenean ibiltea be bai; lkastola Nagosietan katolikoan semerik ezin zeikean sartu, eta atzefira ikasketak egitera semeak bialtzea, legeak debakatzten eutsen. Eleizarik ezin zabaldu, eta mesarik entzun be ez; eta mesa edo yaupa esaten eban abadea eriotzaz zigortzen eban.

Au gustiau asmautakoa dala esan leike, baña zorixafez egi utsa da. Ain legé gogorpean katolikoak ufitu ziran eta 1.770'n 50.000 inguru bakarik ziran. Irlanda'n oraitiok 5.000 000'ra eltzen ziran. Lege gogofok zerbait bigundu ebezan 1.778'n, baña orduan be baldintza gogorpean.

-Onetan 1.791'n Prantzia'ko itxulaskunde ikeragafia zala-ta, andik yaurtitako 8 000 abade Ingalanda'n eskutau ziran, eta oneik eta batez be irlandar katoliko zintsoak egindako lanak zirala bide, legeok leunduez yoan ziran. Eta azkenez, 1.829'ko Yoñala'ren 15'n autarkia emon eutsen eta diputau edo aldun izateko eskubidea be bai. Azkatasun-eguzkia argi egiten asi yaken. Eta afezkero, Yauna'ri eskefak, ederto lan egin dabe, ipiñi ditugun zenbakietan ikusi geinkenez. Urte gomutagafi onetan geure anai ingalandañakaz poztu gaitezana ba, Yaunari eskefak emonaz.

### Aita Santua'ren Yubileoa dala-ta.

Bidezkundeak ugari izango dira. Lenen panztetar gasteak (5.000) edefenatarikoa egin dabe, eta euron antzera Beljika'tar bidezkundeak bilatzen asi dira. Yoñala'ren 19'n «Boerenbond» flamentar bazkunako 500 gastek Aita Santua ikertu eben. Aita Santuak itzaldi aitakofa egin eutsen, euren lan edefa txalotu ta onetsiaz. Ufengo bi dezkundeetan 5.000'raño bialtzeko asmotan dagoz.

Italia'n batez be ugariak dira. Fraskati'tik 3 000 eldu dira. Florezia, Kremona, Tivoli, Asis eta Novara'koak yoan dira, eta batez be Milan'goa gustiz edefa izan ei da.

Bagila'n Don Bosko ospetsuaren beatifikazioa edo zoriondun iragartea izango da, eta ordurako Turin'dik 25.000 bidezitik Eroma'ra yoateko asmoa dauke. Yai ofetarako Polonia'ko Gotzain-Buru Hlond agurgafia eta beste 25 Gotzain yoango dira. Gustiz yai ofeitau 70.000 bidezti inguru bilduko dirala uste da Rennania'tik, Loewenstein efege sendikoa buru dabela, talde edefa yoan da, baita Txekoeslobakia'tik be.

Emen be, uda goyenerako bidezkundeak gertatzekotan dagoz, eta uste danez asko yoango da.

Befogei aldun edo diputau ungaritafek, alderdi ta eretxi askotakoak, Aita Santua'ri eta Italia'tar agintariei egin daben itunbenagaitik zorionak eskintzera yoateko asmoa aftu dabe. Ederto!

### Izpar txorta.

—Yamamoto, yapondar gudontziburu (almi-

rante) ospetsua bein baño safiagotan toki onetan goraldtu dogu. Euki leiken etorkizun onena alde batera itxiaz, gudontziburu izatea laga dau, yapondar katoliko gastediaren Lendakaritzan gogo osoaz lan egiteko. Orixe da zintso yokatuta.

—Gibbons Baltimore'ko Gongotzain eta kardenal (1.877 - 1.921) izan zanaren goraltzen, Wasington'en atxurdiñezko irudi eder bat ipintea amerikar katolikoak erabagi dabe Bere etenbako lanakaz katoliko zintestea amerikafen artean zabaltzeko ainbeste alegin egin eban gizon goragafi onek, goraltzen ori ondo irabazita dauko.

«Katolikotar izparingien» laguntzarako iges España gustian bildu zana. 205.747'45 lauerleko izan zan. Geyen emon daben goterkiak onexek izan dira: Madrid'ekoak 24.000 lauerleko; Gazteiz'koak 17 200; Barzelona ta Kordoba'k 14 500; Sebila'k 11.000.

Beraz gure Goterkiari bigafen tokia dagokio. Ederto!

Sebila'n Ofila'ren 15'etik 19'ra egingo dan Andra Maria aintzazko Batzafean Aita Santua'ren Odelari llundain kardenala, XI'n Pio agurgafiak autu dau.

Baita Lepizier kardenala Ofila'n Prantzia'n Arko'tar Yone deunaren gomutaz egingo diran yayetan Aita Santua'ren Ordeazko izateko autua izan da.

Ofila'ren 5'n Argentina'n Lujan'go Andra Maria'ren eleiza bafia onetsiko da, eta egun atan Arjentinari Gastedi Katolikoan Batzar orokofaren asiera izango da, Aita Santuaren Odelaria buru dala.

Yesus Langilea'ren yaya Aita Santua'gandik lortuteko aspaldi lanean diardue. Oraintsu Bordeaux'ko 70 gastek, Goterki atako 70.000 izenpetuta, iru idazti Aita Santuari eskiñi dautsez, eta eskari berberau, ufutidatzez egin dautsoe Prantzia'ko Langile Kistafen Bazkunak. Alemania'n be Domekatarafak asmo ori aufera eroateko gogor lanean diardue, eta bertoko Gotzainak irutik bik euren izena asmo eder aldez emon dabe.

M'laf G.



# GURASOEN ESKUBIDEAK

---

**G**URASOAK euren umeai, Kristiñau-Ikasbidea «*Bear dan lez*» irakasten batera yo bear dabela-ta, askoren ardurabakokeri tamalgaría aitatu gendun. Gaur, ikastolen zeregiña azaldu aurretik, gurasoen *eskubide ta eginbeaña*, katoliko irakaskintza eta sentzun arauz, albait laburén azalduko doguz.

Onetzaz oin urte batzuk dirala, toki onetan bertan, katoliko irakaskintzak, zearo azaldu genduzan (1) eta, gai au argiro azaltzeko, orduko idazki ataltxo bat ementxe ipiñiko dogu.

## ❖ Umeen eskubideak. ❖

Gizonak, berenez, gizon yayo dalako bakarik, asiera eta irakaskintzarako eskubidea dauko, ba gorputz-osotasunerako bear daben yanaria zor yakon lez, adimen-biotzen osotasunerako, eta bear dan bidetik zuzentzeko, irakaskintza ta asiera zor yakoz. Eta au *izatez* dagokio, au da, Yaungoikoaren legez.

Umeak, Yaungoikoaren urengo gurasoenak dira, eta beraz, umeai zor yaken osotasuna emotea, eurai izatea emon dautsienai dagokie, au da, gurasoei. Yaungoikoak ba, umeari berari osotasunera eltzeko emon eutson eskubidez batera, gurasoei ezari eutsen, gorputzarentzat bear daben yanari ta abar emoteko *eskubide ta eginbeaña*, eta baita, euren adimena egiaz argitu, eta biotza asiera bidez zuzentzeko *eskubide ta eginbeaña* be.

Yaungoikoaren gurariz ba, gurasoei, guraso izatetik datorkioez, asi ta irakasteko eskubideok, eta eurai bakarik *berenez* dagokie, Eleizaren zuzentzapean, asiera ta irakaskintza emotea. Eta eurak barik eta euren aurka, naiz yakituri geyago euki, iñok ez dauko eskubiderik.

## ❖ Kristiñau Ikasbideatzaz oar bat ❖

Eleiz legediak 3'gn atalean diñonez, «Gurasoak, euren umeai erlejiño ta oitura onak egiñalean irakasteko eginbear astun-astuna dauke».

Eginbear edo bearkun au, Kristiñau Ikasbideari dagokionez, Eleiza Ama-

(1) «Jaungoiko-Zale» 1925'ko Lotaz. 1-15'n,

gandik artutakoa da, «Yoan eta irakatsi egizue» bere ordelariei bakañik esan ya-ken-eta. Eta kristiñau irakaskintza au nai ta ezkoa da, Eleizak bide zuzenez, gurasoak beartzen ditu, ezkubide au gurasoen gañetikoa da-ta.

Beraz gai onetzaz eskubide gustiak Eleiza'renak dira, eta bere zaintzepean izan ezik iñok ez dauko goiko ikasbidea irakasteko eskubiderik, ez gurasoak ez lateriak, egunotan bertan, XI'n Pio Aita Santu agurgariak argiro esan dauanez.

### ❖ Gauzarik edereña. ❖

Eta egokiena be, al izan ezkeru, gurasoak eurak, semeak asi ta eziteko ar-  
durea artzea izango litzake; baña biziteko lan egin bear dabelako ala beste zio  
asko dirala bide, besteen eskuetan euren semeak ipiñi bearean aurkitzen dira, *eu-  
ren orde z eta aginduz*, umeai asiera eta irakaskintza emon dayoen. Irakasleak  
aukeratzea, gurasoai berenez dagokio. Au argi dago *nai* dabenentzat. Zer ba;  
etxeko abereak nai dabenari eziteko emon al baleikioz, berak nai daben osagile  
ta bizarkentzalea aukeratzeko eskubidea ba'dauko; Yaungoikoak emoten dautso-  
zan semeentzat, bere *ordezko* izan bear daben irakaslea aukeratzeko eskubiderik  
ez ete dau izango? Yakiña da, Yaungoikoa'ren eta Eleizearen legeak aintzat artu  
bear dituala, baña orek zaindu ezkeru, aurka bide zuzenez yañi leitekenik nor da?

Irakasle izateko gauza bi bear dira: *Gaitasuna* ta *aginpidea*; *gaitasuna*,  
yakiteak emongo dautso, eta *aginpidea*, daukanak, eta onetan gurasoak bakañik  
daukien gauza da. Eskubide onein aurka, beste eskubiderik ezin leiteke izan, *iza-  
tean* bertan sustaia dauke-ta.

### ❖ Beraz. ❖

Lateñi edo Estaduak, eskubiderik ez dauko, gurasoak nai ez dituan irakas-  
leak ezarteko, Lateña gurasoen eskubideak irunsteke ez da, gurasoenak zaintzeko  
ta eurai laguntzeko baño-ta. Lateriak ez dauko *eskubiderik*, ikastola bakaña ipiñi  
eta besteai, onak diranean, zabaltzea galerazteko, Yaungoikoak emondako esku-  
bideak zapaltzeko iñok be eskubiderik ez dauko-ta.

Irakasle edo maixuak bañiz, gurasoen *ordez* eta *aginduz*, euren laguntzale  
bakañik diralako, ezin leikioe umeai, gurasoen eskubideen aurka, eta Eleiza'ren  
aginduak alde batera itxita, eurak nai dabena irakatsi, eta bear dabena irakatsi  
barik laga. Ori egiten dabena irakasletzarako gaitasunik eta eskubiderik be ez  
dauko. Eta gai ez danak... beste bizibide bat aukeratu bear dau.

Gurasoak, ezin leikioe euren eskubideai amain-emon, eta irakasleai nai da-  
bena egiten laga; eta eurak be, umeak ikastolara bialtzen dabezala-ta, beste barik,  
askok egiten dabena lez, ardura barik eta lo-zoñoan egoteko eskubiderik ez dauke.  
Itz bitan; gurasoak euren umeak asi ta ezi bear dituez; irakasleak, gurasoen lagun-  
tzale zintsoak izan, eta Lateriak gustion eskubideak zaindu ta etsayakandik alde-  
tu. Orduantxe bakañik *bakoitzak bere* tokia beteko dau. Bestela ez!...

# ITURÍ YATORÁ

Bustintza'tar E. KIRIKIÑO euskal idazle bikain eta *Yaungoiko*  
-Zale'ren aizkide zintsoa'ren gomutaz eta eskafonez

Euskal-eriko biotza diran,  
Mañari'ko aitz artean,  
ituritxo bat sortu zan apal,  
aitz andi baten azpian.

Iturí ori aziez yoyan  
egunetik egunera,  
aitz erpiñeko edur urtuak  
elduez bere gañera.

Aldienpuruz azitxo ein da  
Eusko-eritik urindu,  
euskotar aitzen usaña baña  
ez eban ñoz be galdu;

Biotz bañuan eukon indaía,  
izatez garden, garbia,  
anayoentzat gordeta eukon...  
gustiz onuragaía.

Kistar ziñeste sendo-sendoa,  
euskal-maitasun zintsoa,  
iturí ontan alkaritu ziran...  
¡Batasun gitxi lakoa!...

Eta gonburu bete zanean,  
asi zan bizkor ibilten,  
igaroten zan toki danetan  
euskal-onura zabaltzen.

Iturí orék eskotuagaz,  
luñik legor, lakañenak,  
narotu eta biurtzen ziran  
samur ta emokoyenak;


Uda ta negu agortu barik,  
leorte gogoñetan,  
euskal-landarak mardultzen ziran  
eusko-txoko gustietan.

Iturí ori bai zan apala!...  
Apala bezin ongile,  
ongile izan nai dabenentzat  
egiz-egiz ikasbide!...

Gustiak gogoz maitatzen eben,  
beragana pozez eldu;  
euskal-landaren artean bañiz  
ur au nok ez dau txastatu?

Auxe zan ziñez euskal - idazlen  
*Aita zana, Kirikiño,*  
Bere gomuta eusko artean  
galduko da egundaño?...

Gizon yakintsu, apal-apala;  
«Etxanoa»n (1) yayoa zan!...  
Biguna baña, bai ondo sala!...  
«Zumelaga»n (2) bizia zan!...



GURE BAZKIDE ELGEZUA'TAR KARLA, EIBARTAR GAZTEAK, EORTZI AURRETXOAN, OBITEGIAN BERTAN, EGIN EBAN «KIRIKIÑO»REN ARPEGI ATZA. (Foto Ojanguren).

Sendotasunez aitz antzekoa!  
Ez zan ba yayo Mañari'n?  
Gaitz-ospina az idazten bariz  
ez dau bardiñik «Euskadi»n!...

*Yaungoiko Zale'n* zabaltzelerik  
onen-onena zalako,  
«Kirikiño»gaz gure Bazkuna,  
ez da egundo aztuko!



Donoki goifik lagundu daigun  
ären dagitsot Yauna'ri,  
beti-betiko egon daitela  
aintza emoten Berari!

GABIREL.

V—929.

- (1) Etxanoa=etxe txikia.
- (2) Zumelaga=zumetz edo mimen tokia.



# KATOLIKO IZPARAK

## Mexiko'ko izparak.

Latefi efukafi oneri, «naspil-efi» izena, oin daukana baño egokiagoa izango litzakiola uste dogu. Katoliko ta Agintari gaizto ta ankefen auzia atondu baño len, beste euren arteko guda, oin ile batzuk dirala sortu zan. Agintarien aurka yaiki ziranak, euron artekoak izan ziran, eta katolikoak tartean zirala norbaiztuk esan daben afen. bertako lendakariak be esan dabenez, gu-zurtauta gelditu dira. Katolikoak ba, auzi onetan ez dira sartu. Kaless'afafen etsayok kementsu asi ziran, baña Ipar Amerika'k agintarien alde jafi diran ezkeru, gauza onik ez dabela egingo esan lei. Katolikoak guda bafi onetan euren azkatasun asiera ikusi zeikean, baña aurfeko egunerarte etsayoko auzi barik izan diranokandik gauza an-dirik ezin leike itxaron. Bitartean, katolikotafan kaltezko bidebako legeak (!) zearo betetan diardue. Ara egiztuteko yazokun bat.

Auts egunean, *Maduro* aba, mexikotafa yayotzaz, katolikotar talde anditxoaz, etxe baten autsa ezarteko eleizkizuna egiteko bildu zan. Eleizkizun erdian, efi atako gudari talde bat uste barik etxean sartu yaken; eta legeen kaltezko eleizkizuna egiten ziarduala-ta beste barik, *Maduro* aba yosulauna, afapau, espexeratu ta gegayoko auzi barik eriotza epaya emon etuso-en. Kristo'ren agintzaren alde lan asko, gatxori andien erdian, egin eban aba goragafi onek, eriotza epaya pozez entzun eban, bere Yaunaren maitasun ezaugafi edefena, Bere aldez bizitza emoteko unea eldu yakolako. On egiteko bakafik zabal erabili zituan besoak gudarien aurfetan zabaldu, eta yaurti eutsiezan tiroak kementsu artu zituan. ¡Aintza aba agurgafi oneri!

Yesus'en Lagundiak bigafen ziñoepa (martiria) yasarpen lotsagafi onetan euki dau.

Orain amabost ilabete *Pro* aba, eta orain

*Maduro* aba. Ziñoepa onein odolaz Yauna efukituko al da!

## Ars'ko txauburu deuna, abade gustien Zaindari.

Ars'ko txauburu (pafoke) ospetsu Vianney Yon Maria'ren eriotzatik 70'gn urtea aurtan betetan da. Bizitza deun eta afigafirik izan ba'da, txauburu ospetsu onena izan zan. Eleiza Ama'k 1925'n deunen izendegian ipiñi eban. Bizitza afigafi onen bafi zearo yakin gura dabenak, oraintsu Trotxu P.'n abade yakintsuak argitaldu daben bizitza irakuñi bei eta ziñez ez dau astirik galduko. Astirik arizen ba'dogu, bertako yazokun batsuk argitaltzeko asmoa daukagu-ta, gaurkoz izpar onen buruan aitatu dogun Zaindaritzaz zerbait bakafik ipiñiko dogu.

Beley'ko Gotzain agurgafiak, latefi gustietako 400 Gotzanez izenpetuta, Aita Santuari, bere abadegintzaren yubileo gomutaz, abade deun goragafi au, ludi gusiiko abadeen Zaindari aututeko eskatu dautso. Eta gure Aita maitagafiak eskari au aintzat artuta, igaro dan Yofala'ko 23'an, argitaldu daben idazkiz, Yon Maria Vianney, Ars'ko txauburua, ludi gustikoen Zaindari autu dau. Izpar onek biziro poztu bear gaitu, gizaldi naspil onetan, Kristo'ren Bakaldefia, zintzo ta kementsu zabaltzen laguntzeko Zaindari bikain au emon dauskulako.

## Gudalburu ta katoliko bikana.

Ziñez izan da, Fotx, alkartuen gudari gustien buru eta garailari izan zan giza guren au. Iñ bi da il zala, eta bere zintsotasun, adore ta batez be ziñeste sutua ao batez goraldtu dabe. Aita



Santua'k gizon ospatsu onen eriotza, Eleiza'ren-  
tatzat galtze andia izan dala adirazi eban, eta  
Poinkare'k berak, gizon onen kristau ziñeste  
zintso ta aldintsua goraldtu eban.

Askok uste izaten dabe, zoritxafez, gizon  
eleizkoyak kokolo xamafak izan bear dabela,  
eta ofexen bildufez edo, *gizontzat* euren burua  
esten dabena, bafuan daben ziñistea, ezerta-  
rako lotsa barik, gustien afean agertzen lotsa-  
tu egiten dira. Onexek bai'dirala, egizko *koko-  
loak!* Gizona noz da *gizonago*, Yaungoikoaren  
afean belaunbikotzen danean baño?... Egiz,  
Paskal ospetsuek esan eban, gizona inoz be ez  
dala andiogo, belaunbiko dagonean baño!...

Onetan, Fotx gudalduburua eredu bikaña izan  
da. Yosulaunen ikastoletan bafendu eutsien zi-  
ñeste sendoa, bizi gustian itzez eta egitez autortu  
eban. Bere bizitz-araua, bearkuna betetea izan  
zan, eta eustatzi ta oñafia, ziñesmen zintzo ta  
itxaropen sendoa ziran. Auxe zala-ta, etsayak  
bera baztertzeko alegin andiak egin zituezan.  
Baña gudaldian naiz bake aldiaren egunoro yaupa  
entzun, eta beti gogo-otoitza egiten eban. Araso  
astun edo erabagigai gaitzetan auxe esaten eban:  
«Neure arazoak Yaungoikoa'gaz atonduten laga  
egidazue».

Guda ostean Ameriketatik eta zebiñela, bere  
goralbenez ainbeste yai egiten ziranean be, eleiz  
liburua aldean eroaten eban, eta igandetako  
egitiamuan au ipinten eban: «orduterdi mesa na-  
gosia entzuteko».

Jesus'en Biotz deunari gustia opaltzen eutson,  
eta bere azkenengo gexoan, bere autorle ta gure  
aizkide dan Lande abak osatzeatzaz zerbait  
esan eutsonean, erantzun eutson: «Aita, zerua,  
zerua...» Andik egun gitxi bañu yoan zan saria  
artzera. Gaur eguneko ainbeste «olo» ta «gizon-  
txoentzat» ikasbide edefa zinez!...

### Izpar txorta. ❁ ❁❁❁

Polonitar katolikoak, Kristo Efegearen aintzaz  
eta eskar onez Varsobia'n irudi eder bat ipinteko  
erabagia artu dabe.

Irudi au, orain amaika urte, boltxebikitañak  
Polonia'n sartu ziranean, arein kaltezko gara-  
tza eskatzeko, polonitar zintzoak biltzen ziran  
eleizaren afean iragiko dabe. Garaitz ospetsu  
aren gomutaz eta eskar onez, asmo txalogafi  
ori, polonitar zintzoak artu dabe. Ederto egiña!

—Igaro dan Yofala'ko 14'n Efoma'n gotzain-  
tza emon dautsoe, txinar bateri. Txang Ebaristo,  
Koteme'ko Gotzain izango da, gizon yakintsua,  
urte batsuetan Efoma'n bertan irakasle izanda-  
koa da.

—Wenzeslao, Boemia'ko bakaldunak, ziñeste  
alde lan egiteaferen bere anai Boleslao'en agin-  
duz, bizia emon ebalu aurten 1000 urte beteten  
dira.

Egun gomutagafi au ospatzeko, txekoeslobaki-  
tañak bakaldun zintsoaren goralbenez yai andiak  
egiteko erabagia artu dabe. Aita Santuak asmo  
ori txalotzen idazki edefa zuzendu dautse, aren  
ziñeste bizia, yafaibidetzat artuta, euren eña  
goraltzen alegintzeko adoretuaz. Yayok datofen  
Irañan izango dira.

—Malabar, India'ko emakume olerkari bikaña  
dan, Maria Terese Thottan, karmeldar lekaime  
sartu da. *Gitabali*, olerki idazti edefa argitaldu  
eban ezkerotik, Malabar'eko olerkaririk bikañe-  
nentzat etsia izan da Lekaime (monja) sartu  
aufetik, *Ludiar agui*, deritxon olerki edefa argi-  
taldtu dau.

—Otoi-bialguntza bazkuna, ludian danik baz-  
kun orokofena dala esan geinke. 75 lateñtan  
zabalduta dago; 998 goterkitan, 97.000 talde  
30.000.000 bazkide ditu. *Jesus'en Biotzaren De-  
ya* 61 tokitan eta 39 izkuntzetan argitaltzen da,  
eta gustiz 1.900.000 arpidedun ditu.

—Andoni deunaren eriotzatik 700'gn. urtea  
1931'n beteko da-ta Deun andi onen gomutaz ya-  
yak gertatzeko, Italia'n batzorde bat izentau  
dabe, eta *Il Santo* deretxon aldizkingi edefa argi-  
taltzen asi dira. XIII'n Lon Aita Santuak, «Ludi  
gustiko deuna» deitu eutson onen aintzaz egin-  
go diran yayak ikusgafia izango dira.

—Ufengo Eukaristi Batzar orokofa, Kartago'n  
1930'ko Oriñaren 7'tik 11'ra ospatuko da.

—Ipar Amerika'ko Latefi-Batzen, igaro diran  
amar urteetan, 1856 eleiza bafi iragi dituez. An-  
go katolikotañak 20.000.000 gora dira. Yaunari  
eskefak aufera doaz

# IRAKASLEEN EGINBEARAK

---



ENGO zenbakian, gurasoak euren umeak asi ta ezi edo menduteko dauken eskubideak katoliko irakaskintza ta sentzun arauz, laburkiro aitatu genduzan. Eta uste barik ofetarako aldi egokia aukeratu gendun, egunotan bertan ba, Mussolini ospetsuak, gai ofetzaz. Lateriak dituan guzuzeko eskubideak (?) goraltzeko itzaldia egin dau-ta. Aita Santuak, aren lenengo itzaldia gaiztetsi eban, baña Mussolini'k berean ya'raitzen dau. Ba'zirudien Aita Santua'gaz egin daberen azkenengo Itunbena zala-ta, bide zuzenera sartuko zala, baña... auntzak beti la'ara...

Atzera egiten ezpadau, gure Aita agurgariari atsekabe asko emongo dautsozala uste dogu. Ori susmaurik edo, Aita Santuak ainbeste bider bere aldez otoitz egiteko eskatzen dau, Itunbena egiteko baño, giza-legeak eskatzen daberen lez, Itunbenera ontzat emon dabena betetzeko, eragozpen geiago izango dala, igari dabelako nonbait.

Mussolini'k bere itzaldietan esan dabena, Danton, Robespierre eta ondorengo naspiltzale gustiak aldeztu daberen antzekoa baño ez da: «Umeak gurasoenak baño Lateriarenak lenago dirala». Ori bariz kirtenkeri bat dala igarteko, sentzun apur baten yaube izatea naikoa da, edonok dakus ba, umeak Yaungoikoa'ren uringo gurasoenak dirala, eta semeak azi ta ezitea, berenez, eurai dagokiela. Baña goazen geure arlora.

## Irakasleak zer eta zertarako dira?

Gurasoak au edo bestea dala-ta, euren semeak bear dan lez azi ta ezi ezin

dituenean, orotarako gai diran laguntzaleak eta ordelariak aukeratu bearean aurkitu leitekez. Laguntzaleok aukeratzea, lengo zenbakian esan gendunez, eurai dagokie. Umeakaz egin bear dabena, gurasoen eskubide ta eginbearetik sortzen da. Irakasleak gurasoen ordelari baño ez tira-ta, umeen gain daukeen eskubide ta eginbear gustia, eurakandik datorkie. Ordelariak, ordeazkotza emon dautsonaren eskubideen aurka ezin leike ezer egin, bide zuzenez beintzat. Irakasleen zeregin gustia, agindutakoa egitea baño ez da, ez geyago ta ez gitxiago be. Orixe egiten dabena egizko ordelari ta irakasle izango da, bestela ez. Ortik urtetan dauanak gurasoen eskubideak aspiratzen ditu, eta irakaslea ez da sortu gurasoen eskubideak zapaltzeko, zaintzeko baño. Gurasoen eskubideok bariz, irakasle gustien gain dagoz, Yaungoikoak izatez emonak dira-ta. Beraz,

### Irakasleen eginbearak,

Onexek dira: Gai izan, gurasoen aginpidea euki, eta euren zeregiña ondo betetako gogo zintso ta biotz zuzenekoak izatea. Baldintza oneik ez dituan irakaslea (!) izen eder oren yaube egundo ez da izango. Eta baldintza gustiok beteta be, gurasoen malara iñoz be ez da elduko, gurasoen biotzean Yaunak sustraitu dabena maitasun samur eta eragikora ezin leikelako euki. Auxe dala-ta, ikastolarik eta irakaslerik onena be, geyenez, iñude on bat izatera eldu leiteke: Amaren zeregiña egiten dabena, baña ama beste iñoz be ez.

Irakasleak daukon zeregin gustia ba, umeai *gizon oso* izaten irakastea da. Orotarako *egi bidez* umearen adimena landu bear dau, eta *onbidez* bere biotza apaintzen alegindu. Au lanik gařantzitsuena dala ezin ukatu leike. Gizartearen etorkizuna euren eskuetan daukela esan geinke, ingalandařak esaten dabena lez «umeak gurasoen aitak dira-ta».

Zeregin astun ori betetako, yakiña da, umea ondo ezagutu bear dabela. Umearen izakerea ondo ezagutu bear dau, bere lera on eta txarřak ondo aztertu, onai indara emon eta txarřak iñauzteko. Umearen biotzean sartu bear dau, eta orotarako esan bearřik ete da, umearen ele edo izkuntza ezagutu bear dabela? Bitarteko barik umeagaz aitu ezin dan irakaslea, «irakasle» zelan izan ete leiteke?... Okerřeko giltzaz atea idigiten ibiltea baño sentzunbakokeri andiagoa izango litzake...

Umearen izkuntza irakasleak ez yakiteaz, astia galdu egingo dau eta galdu eragin, gogait egin eta eragin, irakaskintza gořotogaři egin eta bere bearkuna bete ez... Eta umearen izkuntza zapaltzen aleginduko ba'litz zer?... Gaurkoz besterik ez diñogu olerkari ospetsu batek esan ebana baño: «Umeari itzal andi-andia zor yakola»...

Aitatutako eginbearok betetako nai ta ez,

### Irakasleak kristiñau zintsoak izan bear dau.

Irakasleak yakintza asko baño zuzenak bearřago ditu. Irakasleak Kristiñau ikasbideasustraiz yakin bear dau, eta kristautasuna bere itz eta egite gustietan

agertu. Eleiz Legediak 1373'ko atalean agintzen dau: «Lenengo mañako ikastola gustietan, euren adiñari dagokionez, umeai kristiñau ziñestea irakatsi bear yake».

Eta irakaste onuragañi au, zelan irakatsi eta biotzeraño eldu eragin, irakaslea, itzez eta egitez, kristiñau zintsoa ezpada?...

Gure gotzain agurgañi Mujika yaunak Oñila'ko idazkian agindu daben lez «Irakasleak, umeak itzez eta egitez Yaungoikoa'ren bildur deunean eta oitura onetan asten alegindu bear dabe, eta Kristiñau Ikasbidea, buruz irakatsita bakañik, Lateri legeak betearen, Eleiz Amarenak ez dituala betetan, Kristiñau ikasbidea azaldu eta bete eragiten laguntzen ezpadeutse. Eta Eleiza'ren legeak betetan ez dituezan irakasleak izen oren yaube ete dira?

Irakasleen lana gañantzitsu eta gaitzenetarikoa da, ardurarik andienaz bete bear dana, eta kristiñau zintso, itzez eta egitez, izan ezik, ondo bete ezin leikena. Eta ondo bete ezik, erdi gizon diran «gizontxoak» bakañik atarako ditu, eta olan euren buruari zoritxaña, gurasoai arantzak, eta Lateriari zeregin asko ta onura gitxi emongo dautse.

Gurasoak eta irakasleak batera yo bear dabe, alkañi lagundu bear dautse, baña bitsuok, gauza onik egingo ba'dabe, Yaungoiko eta Bere ordezkoen aginduak zintso bete bear dabez.

Euskal-Eñiko ikastola askotan au egiten ete da? Itaun onei, Yauna lagun, urango zenbakietan erantzungo dautsogu.



## Aita Santua ta bultzibide (trenbide) langilea

Lotzeville - les - Rouen, Prantzia'ko efi baten eleiza bafi bat egiteko asmotan dabiltz. Efi au langile efi da ta, diruz ezin dabelako, landola langileak, eleiza bafia egiten euren txauburuari langile zintsoak, bakoitzak aldabenez, bitartean gogoz laguntzen dautsoe.

Eta Aita Santuak lan onein bafi yakinda, oparo lagundu dautsoe.

Zelan? Bultz langile bateri, Aita Santua'ri idazki bat ixilean egitea otu yakolako. Aita Santua'k langile begiko onen idazkia artu ebanean, gai onetzaz Rouen'go Gongotzañari, Maglione, Paris'ko Ordelari agurgafiaren bitartez itandu eutson, eta Rouen'go Gongotzañaren bidez, Lotzeville'ko Kilan abadearen asmoa gustiz txalogafia zala yakin eban. Aita Santua'k ori yakin ebanean, langile zintsoaren eskariari erantzunaz, eleiza bafi ori egiten laguntzeko 20.000 franko bialdu zituan.

¡Ori bai dala benetako *demokrazia!*

## Ardi galduen alde

Afokeriak, eta ortik sortzen dan menpetasunik ezak, noraño gizona itsututen daben lendik ez dakianak, *L'Action Francaise*'ko auziaren goraberetan argiro ikusi leike. Aita Santua'ren oar, eta agindu aitakofak, askorentzat, alpefekoak izan dira. Esana egin gura ez dabenen betiko aitzakiak agotan artuta, euren bide galgafiari yafaitu dautse. Zigoñik gogoñenak be, zoritxakook bide onera erakarteko naiko ez dira izan.

Orain, igaro dan ilean, Aita Santua'k Prantzia' 5.000 gasteri egin eutsen itzaldian esandakoa aintzat artuta, katolikotar zintsoak asmo txalogafia artu dabe. Ardi galduon alde otoi'tz gogoz egitea. Ofetarako otoi'tz-alkartea sortu da-

be. Alkarte onetan iru mañatakoak sartzen dira. Lenengo mañakoak, egunero, *Aita Gure* bat eta ilero yaunartze bat egingo dabe. Bigafengoak, egunero agurtzaren ama feko bat eta astero yaunartzea. Irugafengoak onez gañera, ofetarako atondu dau otoi'tz edefa, Teresatxo deunari, egunero, egingo dautsoe.

Afokeriak itsututa dagoanentzat *erezojak* ez dira gauza ta, afokeria azpiratzeko apaltasuna lortu bear dan ezker, ori lortuteko otoi'tza biderik egokien, indartsuen eta egikofena dala, esan beafik ez dago. Yauna'k, efukituta, begiak zabaldu eragingo al dautsez.

## Edertasun batzaldia dirala ta.

Lendik, nonbait basatikeri gitxi, dago eta, gaiztakeri ta buruarinkeria zabaltzeko edertasun batzaldia edo obeto «gaiztakeri ta buruarinkeria» batzaldia egiteko oitura, non nai zabaldu ta Gipuzkoa'raño eldu da. Izparingi batsuk, dirua atarateko edozein bide ontzat artzen dabe-ta, ofetan alegintzen dira.

Eta ori gaizki egiña dagola, eta katoliko izena euki nai daben izparingiak ezin leikela igarteko, kistar sentzun apur bat naiko dala uste dogu. Bafia dirudienez, izparingi ontzat eukitea nai daben batzuk, orixe apur ori be ez daukela agertzen dabe.

Gai onetzaz gure Gotzain agurgafiak argiro itz egin dau, eta katoliko izenari erantzun nai dautsonak, burua makurtu eta batzaldi kalte-gafi ofein aurka yafi bear dau.

Gazteiz'ko Gotzainaren Boletin'ak, Oriña'ko 15'eko zenbakian, «Osservatore Romano»tik artuta idazki edefa dakar, zinesgekeritik sortu diran batzaldioz zigortzen dituen, Irlandaren zintso-tasun ikasbidea begien afean ipiniaz.

Beste laterietatik, buruarinkerian nagosi urlen



dabena, saria artzeko, Amerika'n, Galveston'en egingo dan ludiko batzaldira, bialduko dabez. Irlanda'k ez. Ara zer dala-ta:

«Evening Herald» Dublin'go ispañgiak bazaldi ori iragafi eban. «Standart» katolikotar ispañgiak aurka urten eutson, eta Galveston'go Gotzainari bere eretxia eskatu. Inondik-iñora ez laguntzeko eta al daben giñoan aurka egiteko izan zan erantzuna. Aste bete bafu «Evening Herald»ek be batzaldiatzaz Galveston'go Gotzainari eretxia eskatu eutson, eta Gotzainak bereala erantzun, aurka egoala. Au yakin ebenean, izpañgi biak, eskefak emoten Gotzain adoretuari erantzun eutsoen, batzaldia bertan bera lagatzen ebela esanaz. Ederto eginda! Orixe da katoliko zintso lez yokatzea. Eta ez Donostia'ko «La Noticia»k egin dauana egin, gure Gotzain agurgariaren agindua zapaldu eta aufera yafaitu! Ori ez da katoliko izpañgiak egin bear dabena, eta ori lango izpañgiak katolikoak txuririk ez dautse emon bear!.

«La Vie Catholique»n irakufi dogunez, *buruarin batzaldi* onetan sartu diran batsuk bafegafi ibili dira. Rusia'tik yoan dana espetxean sartu dabe, zofak ordaindu ez ditualako, eta Alemania'koa be Konsularen bidez etxeratu bear izan dabela, *kalabazak* artu ondoren. Besterik ez dabe merezi!...

### Katolikotar mixiolariak.

Gaur egunean, mixiñoetan lan egiten dabena, 121.000 lagun inguru dira. 12.700 abade edo mesadunak, 4.400 anayak, 30 700 lekaime (monja), 74.000 laguntzaile.

Oneitatik Asia'n lan egiten dabe 75.165'k, (8 155 abade, 1.958 anai, 20 582 lekaime eta 44.740 laguntzailek) Aprika'n; 37.621'k; (2.769 mesadunak, 1 617 anai, 6.525 lekaime, eta 26 710 laguntzailek); Amerika'n 5.761'k; (1.321 yaupari edo mesadunak, 575 anai, 2.853 lekaime eta 1.012 laguntzailek). Ozeania'n, 3.175'k; (467 yaupari, 306 anai, 796 lekaime ta 100 inguru lagun-tzailek).

Asko dirala esan leike, baña daukien lanari begiratu ezkerro, oso gitxi dirala esan geinke. Geure otoitz eta txindiz, eten barik, lagundu dayoegun, onura asko atara dayen, Eleiza Ama'ren gurari bizia orixe da ta!

### ✠ Izpar txorta. ✠

—Aita Santua'ren yubileoa dala-ta, Milan'dik

bidezkunde begiko bat Efoma'ra eldu da. 160 bilbel edo automobilietan Aita Santua'gana eldu dira, eta abegi onez artu ta onetsi ditu. Bidezkunde oneri egiz XX'n gizaldiko bidezkundera deitu geinkio.

—Aita Santua'k Gorpuztiko zortzigafen egunen lenengo aldiz, ibildeunean, Batikano'tik urtengo dau.

—Bagilan egingo diran zoriondun iragartzeeleizkizunak, Batikano'ko eleizan, onexek dira: 2'n, Don Bosko ospetsua, zoriondun iragañiko dabe; 9'n Terese Margarite Redi, Florenzia'ko karmeldafa; 16'n Kolombiere Klaudio aba yosulauna; 23'n Kosme Karboni, armenitar abadea; 30'n Kanporosso Prantzizko buruñurduna.

Ilaren 2'n eta 29'n Batikano'ko kupulako argitze ospetsua izango da.

—Aita Santuak Lourdes'era yoango diran 50 gexori yoan-etofiko eralgitzeak ordainduko dautsez.

—Desio, XI'n Pio agurgafia yayo zan eriko endoreak iragafi dau, Batikano ta Italia'ko agintarien baibena artu dabela, Aita Santua'ren aintzaz bere yayotefian gomutagai bat iragiteko.

Irlanda'ko agintariak, Aita Santua'ri agertu dautse Beragaz lateri artu-emonak eukiteko guraria. Aita Santua'k asmo ori onetsi dau, eta laster itunduko dirala uste da.

—Egun gitxi dala, Aurtzaro Deunako, 15 000 neska-mutiko italiar Aita Santua ikertzen yoan dira.

—Sebila'n, Andra Maria'ren aintzaz ospatu dan, Batzaña gustiz edera izan ei da Itzaldi, baztar, eleiskizun eta abar ezin edefagoak izan dira. Gaurkoz besterik ez diñogu ufengoan zerbait geyago idazteko asmoa daukagu-ta.

—Assiut, Egipto'ko ziñausleak, osoan katoliko ziñestea artzea erabagi dabe. Eriko burua 36 lagunegaz biurtu da, eta enparauak, gertzen diardue, beste ainbeste egiteko. ¡Ederto!

Indietan, Bengala'n Dakka deritxon erian 12 000 ziñesge Kristau-lkasbidea ikasten asi dira, Eleiza Ama deunaren magalean sartzeko asmoz. ¡Yaunari eskefak!

**M'laf G.**

# “Jaungoiko Zale”n Kristiñau Ikasbide eguna dala-ta

---

**Y**AUNGOIKO ZALE'k urtero ospatzen daben egun txalogaña ureratuez doa, eta beste gai batsuk, oingoz, alde batera itxita, gai begiko oneri ekin bear dautsogu.

Yai oneik, Kristiñau Ikasbidea zabaldu, irakatsi, maitatu eragin, eta ume, guraso ta abadeen arteko maitasun lokariak sendogotzeko aukerakoak dirala, iñok ezin leike ukatu, eta orain arte egin doguzan *artziprestazgoetako* erri ta abade gustiak ago batez esan leikie. Onura edeñak ikusita gero ta zaletasun geyagoz sariketok egiteko asmoa daukogu. Nire eretxiz, yai au Goterkiko yaupalburu-erki edo artziprestazgo gustietan egin bear litzake, eta gero sari nagosia atera daben gustiak erri baten bildu eta *Yaungoiko Zale* sariketa egin, albait andikiroen, bear ba'da gure Buru danari yai oretara dei eginda. Baña onetzaz beste aldi baten Y. L.

## ✻ Oitura yakingaia ✻

Kristiñau Ikasbide sariketak toki askotan eta antxiña be egiten ziran, eta onetzaz, ara Eröma'n Aita Santua agintari zan aldietan egiten zana. Paroki gustietako umeak, Garizima ondoren, Kristiñau Ikasbide sariketa euki oi eben.

Sariketa oneitan nagosi izaten zan mutila, bakaldun edo enperadore egun baterako aukeratzen eben. Eta Aita Santuak Kristiñau Ikasbidearen gañantzia ondo ekielako, bere ordez lez, Eröma'ko agintaritza zerbait emoten eutson.

Suizar gudariak, inguruan zituala, Batikano'ko zalpurdi edo kotxean Aita Santua'ren aurera eroaten eben. Diru sari edeña emoten eutson, berak nai zituan ikasketak egiteko lagungaritzat. Eta azkenez, egiz Eröma'ko erege egun atan izan

zedin, eskubidea emoten eutson, uriko espetxe edo kartzeletara yoan eta zigor txikitxoak igaroten egozan gixajoai, parkatu ta azkatasuna emoteko. Begira, Aita Santuak Kristiñau ikasbidea *ondo* ikasteari emoten eutson gařantzia!

Ba guk be gitxiago ez dautsogu emon bear, eta al dogun neuriz, sariketa onei indařa emoten alegindu bear gara. Abadeok eta kristiñau zintso gustiok batera!...

## ✿ Don Bosko zoriondunaren bizitzako yazokuna ✿

Egun gitxi dala zoriondunen izendegian ipiñi daben, Don Bosko'ren bizitzan beste yazokun ařigari askoren artean emen ipiñiko doguna irakurten da.

Beste argibide gustiak baño obeto beronek irakatsiko dausku, biotzen yaube egiteko Kristiñau Ikasbidea maitasunez irakastea, biderik egokiena dala.

Turin'go urian, ogei urtetik berako mutil gaiztoentzat, *La Jenerala* deritxon espetxe bat dago. Zaindaripean egunez lan egiten dabe eta gabaz bakoitza bere gelan sartzen dabe. Don Bosko'k euroi Kristiñau Ikasbidea irakasten sartzeko bai-pena lortu eban. Maitasunez irakatsi, autortu eta yolas aldietan bere semetxoakaz aita ibili oi dan antzera, ibiltzen zan. Espetxeko gustien biotzak beragandu zituan.

Bein gogo-iñarkunak emotea otu yakon, eta ain ederto egin ebezalako, zelanbait saritzeařen, besteri otu ez yakon asmo bat artu eban: Stupinigi eritxon zelai ederera espetxeko gazte gustiak egun alai bat igaroteko eroatea. Espetxeko zaindariari bere asmoa agertu eutsonean, zorotzat artu eta ezetz garbia emon eutson. Baña Don Bosko eragospentak ez eben atzeratzen eta Gobernadoreagana yo eban. Asmoa agertu eutsonean ařiturik esan eutson:—Baña benetan itz egiten dau? —«Bai bene-benetan», izan zan Don Juan Bosko'ren erantzuna. Autu-aldi luze ondoren ezetza emon eutson. Orduan Don Bosko'k Batazzi ministroagana yo eban, eta baita eskatu be espetxean egozan *irureun* mutil biurfiakaz egun alai bat igaroten lagatzeko.—Ori ezin leitekena da,—erantzun eutson. Baña Don Bosko'k itz egin eutsonean, bayetza emotea erabagi eban, baña baldintza bategaz: Beřogetamar gudari, yantzi ez ezagunagaz urintxotik zaintzeko bialtzekotan. Don Boskok, eskerak emonaz, adirazi eutson ez ebela bear zaintzalerik, berak bakařik gustiak zainduko zituala eta iñok igesik egiten ba'eban, gertu egoala bere orde z espetxean gelditzeko.

Batek be ez ebala igesik egingo ziur egoala adirazi eutson, eta poz pozik aldendu zan. Uręngo egunean espetxera yoan eta gaste gixajoai bere asmoa agertu entsenean ango ¡Gora! ta zalapartak ezeuken amairik.

Ministroa'ri zer esan eutson azaldu eutsen, eta eskatu be bai batek be igesik ez ebala egingo itz emon egioela. Gustiak ago batez ¡Bai! erantzun eutsoen, eta iges egin gura ebanen aurka eurak urtengo ebela be bai.

Uręngo egunean, mesa entzun ondoren, *irureun gaste* ogei urtetik berakoak izan ařen kartzelarako bidea egin ebanak, pozez beterik Don Bosko buru ebela, egun alai bat igaroteko asmoz urten eben. Egun gustia pozik andienean igaro, eta iluntzean gustiak espetxera biurtu zituan. Zaindariak izenez deitu eutsen eta gus-

tiak egozan, batek be ez eban emondako itza yan. Begira «Kristiñau ikasbidea» maitasunez irakasteak, biotza otzanduteko dauken indaía.

### ✿ Ekin dayogun ba zeregin bikain oneri ✿

Eta bakoitzak al dabenez, itzez, egitez, txindiz, eta batez be otoitzez, sariketa onei indaía ta zabaltasuna emoten alegindu gaitez, eta ez gaitez aspertu, Goterki gustian «Kristiñau Ikasbide eguna» ipiñita ikusi arte.

Eta Bedarona, Ea, Natxitu, Akorda, Gautebiz, Kanala, Elantxobe, Ereño, Gabika eta Ibañangelu'n ain gogoz gertatzen diarduzuenok ekin, eta alegindu gustiok txapeldun urtetzen, guk *pozkañi* apur bat *bakañik emon añen*, *Yaungoikoa'k* ondo sarituko zaitue-ta...

## Andra Maria'ren aintzaz.

Kristiñauen Ama efukiofaren goralbenez, Ofiñan egin dan Sebiñako Batzafá, arigafienetariakoban izan da. Gure Gotzain agurgafiak esan dabenez, batzar aretzaz esan leiken gustia gitxi da. Berak ikusi daben batzafik edefena izan ei da, eta obarik ikustea zail izango yakola adirazi dau. Gizostea Sebiñan inoz ikusi danik ugariena. Asikaldiko eleizkizunean 20.000 lagunetik gora izan ei ziran. Ondoren bertako alkateak, Gobernuen ordelariak eta Madrid'eko Gotzainak itz egin eben, Andra Maria'ganako maitasun suitsuan agertuaz.

Batzartxoetan lan gogoz egin zan, 400 erabagitik gora arteak adirazten daskunez. Askotxo dira, ondo betetako, baña Ama Maria'ganako zaletasunaren agerkai edefak dirak.

Gotzainak egin eben batzafean erabagi eben, Aita Santua'ri eskatzea, Berak egoki ba'deritxo, Andra Maria'ren Yasokunde ta Bitartekotasun orokofa, kristiñau zñesteko egiak dirala iragar-teko.

Batzar onetan Aita Santua'ren Ordeleri llundain Sebiñako Gongotzain eta Kardenal agurgafi izan da.

Azkenengo batzafean, Bilbao jaunak, Bizkai'ko Aldundi lendakariak, Eborako gotzainak, erdia erderaz eta beste erdia portugalera, eta Buenos Aires'ko Gotzain laguntzaiek itzaldi bikañak egin zituezan.

Baña gustien gañetik arigafia, ibildeuna izan zan. Tedestxini agurgafia, eta llundain buru ziralá, 47 Gotzain eurotati 12 amerikar eta 3 portugalder, egon ziran. 400 ikurñetik gora, 20.000 lagun baño geyago ta 300.000 inguru begira egon ziranak.

Norbaitek zenbaki onei andaluz usaña artu leikioe, baña oker legoke, gustiak ago batez autoritu dabe alango ibildeunik Sebiñan egundo ez dala izan, eta ofetan mutiñak dirala!...

Beintzat, Batzar onetan, Andra Maria'ganako zaletasun suitsua agertu dabe bai bertakoak, baita Ameriketako ogei laterietatik etofi diranak. Gauza benetan pozgafia, Ama Maite onegarako

zaletasuna, gizartea galbidetik aldentzeko egokiena da-ta.

## Don Bosco zoriondunen izendegian.

Abade ospetsu onen izena entzun ez dabenak gitxi izango dira. Baita gitxi beronek aña on gizartean egin dabenik. Batez be umezurtz eta guraso ardurabakoen umeentzat Don Bosko aitarik onena izan zala esan geinke.

Ialía'ko Basefi baten, Bektxi deritxon erian yayo zan, eta urte bi eukazala aita il yakon. Aur-tzaroa abere zaintzen igaro eban. Gorputzez, ondo egiña, gustiz indartsua yazokun batzukaz egiztu geinkianez, adimen zoli ta zufa, irudimen bizienetarikoa, biotz otzan eta maitekofa, apala eta alaya, inor alairik izan ba'da. Bizi gustian mosuan ifibafea agertu eban gizaguren onek, Sales'tar Prantzisko ta Neri'tar Pilipe deunakaz iuntasuna zortzigafen *pekatu kapitala* zala esan oi eban.

Abade eginda laster igafi eban bere zeregiña, umeak galbideetatik zaindu, eta kristiñau zintso izaten irakastea zala.

Eta berak eten barik lan egiteko eukan gaitasun arigafiaz zail oferi ekin eutson. Lenengotan eragospena baño ez eban aurkitu, baña bere gogo kementsuari atzera eragiteko eragospenik ez egoan. Asmo andiak eukoza, ames utsak zirudien; etsayak eta lagunak be zorotzat artu eben... baña zñeste sendodun Don Bosko'k, Yaungoikoa'gan uste osoa ipiñi eta eten barik lan egiñaz, txefenak gauza on gustieri lez ipinten eutsezan eragospen gustiak aspiratu ta, *amesak* egi biurtuta ikusi zituan.

Bere bizitzan Yaungoikoa'ren laguntza *begiz* ikusten da, Yaungoikoa lagun, argitalduko ditugun yazokun batsuetan ikusiko dogunez.

Eleizak bere bizitza eta ostein egindako mirariak ikusirik, Bagilaren 2'an zoriondunen izendegian ipiñi dau. Kristiñau zñestea zabaltzeko bide bafiak asmatzen berau lango gitxi. Idazti, izparfingi, itzaldi ta berealdian ezagutzen zituan auferapen gustiak egiaren alde erabili zituan.



Egiz esan ginke ba, XX'n gizaldiko deuna dala.

Bere lana Youngoikoak onetsi dau, eta gaur berak irasi eban Salestar Bazkuna bazter gustietan ezaguna ta maitatua da. Abade bazkun onen araudia IX'n Pio agurgariak 1874'n onetsi eban, eta 1888'n il zanean Bazkun goragafi onek 250 ikasteixe zituan ta 2.500 abade irakasle. Gaur 16.000 dira.

Don Bosko 1815'n yayo zan; 1841'n abade egin, 1888'n il eta 1929'n, zoriondunen izendegian Eleizak ipiñi dau.

On egiten bizia igaro eban deun goragafi au aintzaldu daigun eta... yafaitu dayogun!...

### Emakume kristiñau goragafia.

Oraintsu il da Zi-ka-Wey inguruan (Txina) emakumezko kristiñau zintso bat, bizitza gustia Eleiza Ama'ren aldez lan egiten igaro dabena.

Apala ta mixiñoen laguntzale bikain onek uri ta baseñiak arakatzen zituan, yaurtitako ume gaxoak batu, zaindu ta ugutzau edo batiatzeko. Itz onakaz eta egitez batez be ziñesgeen biotzak beragantzen izan ditu, laguntza ta osakayak bear izanetan eroanaz. Eta olantxe bere bizitza luzetan, 15.000 ume baño geyago bere eskuz batiatu ditu, geyenak azkenengo orduan. Bai sari edefa irabaziko ebal emakume bikain onek!

Eta, emakume irakurleak, ikasi beronegandik, emengo bazteretan be ugarituez doazan, «txino zurien» alde zerbait egiten batez be otoyak eta kistiñau ikasbidea irakatsiez... txiñatafak baño atzerago ibiltea ez da egoki ta!...

### Eleiza Ama'ren eralguntza 1929'n.

Urtero Efoma'n ataraten dabena *Anuario P. R.* diñonez katolikotar Eleiza era onetan eralduta egoan 1929'n asieran:

Patriakak 14 ditu, Gongotzain artzobispoak 245, Gotzaniak 908, Abadia deritxoenak 57, eta 351 bikariato edo ordelaritzak. Onexek dira, mundu gustian zabalduta dagozan 400 miloi katolikoan buru.

Aita Santuak Nunzio ta abar Laterietan 50 ordelari ditu. Batiakano'n diran latefi ordelariak 29 dira.

Gizonezkoen Gopatzen Ordena ta lekaide bazkunak 138 dira.

### Izpar txorta.

Ruhinda, Ihangiro'ko Sultan'a, bere emazte ta seme bigaz katoliko eginda.

Bizigatapan, India'ko kai edefa azpian artzen dabela, Kristo Efege'ren irudi eder bat aurtemin onetsi dabe.

—Dirudienez, Mexiko'ko naspiñak amaitzeko, ango agintariak Gotzaniagaz artu-emoneian asi dira, eleizak idigi ta katolikoan eskubideatzak itunduteko. ¡Ja zerbait egiten dabena!

—Paris'go udalak, Aita Santua'ri igesko Dagonilan bakeen alde itunbena egiteko batu ziran latefien omenez egin dabena idaztiaren iyeki bat Aita Santuari bialtzea erabagi dau.

Hlond, kardenal eta Polonia'ko Gotzainburua, Don Bosko'ren aintzaz Efoma'n izan diran yayetara, Barsobia'tik egazkin baten etofi da. Egaz uri onek igaro ditu: Kattowitz, Biena, Benezia ta Efoma.

—Garagafiñaren 5'tik 7'ra, Bayonan'n Prantzi gustiko Eukaristi Batzafa izango da. Iragafi dabenez gustiz edefa izango da.

Don Bosko zoriondunaren gorpuzkiak Andra Maria'ren eleizara aldatzeko Turin'en egin dan ibildeunean 100.000 katoliko bildu dira.

Euskeleñtik Lourdes'ra gexoakaz egin dan bizkunderako 5.000 lagun bildu dira.

Batikano' Urian bidayen (kofeo) ikuñatzak (señuak) atara dituez. Baita Iñatizkin edo Radio eder indartsua ipinten diardue. Aita Santua'k mundu gustiko kristiñauai itz egin gura deutseñean, ainbeste seme Berari entzuten dagozala yakiteak pozez biotza beteko dautso, baita katoliko zintsoak pozik entzun be!

**M'iaf G.**

# YAUNGOIKO-ZALE BAZKUNA

## TA UMEAK

---

---

**Y**AUNGOIKO ZALE, Kristiñau Ikasbidea euskeldunei euskeraz irakasteko sortu zan, ori bañiz, Yaungoikoa'ren guraria dalako, Eleiz Ama'ren agindua eta sentsunak eskatzen dabena dalako. Onen aurka *bide zuzen-* ez inor ezin leiteke yañi, eta ori egiten ez daben irakasle ta irakasteko ardurea daukenak, gure Gotzain agurgafiak esan dabenez, ez dabe Eleizaren agindua betetan, beraz gaizki egiten dabe, diranak dirala!...

Baña ba'dira, euskaldunen artean, maiteko'rago diranak, kutunago ditugunak, ardura zoliagoz begiratzen dautsegunak, bear izan geyago dabenak, lur onuratsuago diranak, biozketa samu'ragoa zor dautsegunak; oneik euskeldun umeak dira. Gure gogoa euren gain itzultzeko beste ziorik ezpaltiz be, eta beste zio gustien gañetik Yesu-Kristo'ren kutunak zirala eta dirala yakitea guretzat naiko litzake.

### ✻ Umetxoai itxi Nigana eltzen. ✻

Yesus maiteak, umeakanako maitasun samu'ra sañi askotan agertu eban, baña eza'guna izan a'ren, ezin geinke yazokun bat aitatu barik itxi.

Bein, yakituriz beteko erantzunakaz, parixetar maltzu'rak ixildu zituanean, etxeratu zan. Ikasleak inguruan bildu, eta esandako gauza batsuen azalbena eskatu eutsoen. (Mark, X-10) Onetan, eurak egozan tokira emakume taldea eldu zan euren umeak al-soan, eta eskutik ebezela, biotzeko zati areintzat Yesus'i oneskun, bende-ziñoa eskatzen. Ikasleak artega xamar, aldi egokia ez zala-ta, ainbeste zalaparta ataraten eben umeak uxatzen asi ziran... Eta Yesus'ek, agiraka egiñaz, esan

zutsen: Ez galaso, ta itxi egiozue umeai Nigana eltzen, zeruetako ereñua eurena da-ta...

Eta maitekiro Beragandu eta onetsi zituan... Eta gure Irakasleak ain maite zituan umeok, egiz Yaungoiko Zale danak ¿zelan ez maitetu?...

Ba'dira zoritxaréz, batez be gaur egunean, umeak abadeakandik urindu gura dituenak, baña olangoak... epaituta dagoz...

Cuk bein eta beti Yesus'egaz esango dautsegu: Itxi umetxoai abadeakana eltzen, beñolako amen antzera ekañi zeuen eskuz, bultz egiozue, eta ez etsayen eskuetan laga, naiz ta irakasle *izendun* izan, zorioneko izaten irakatsi gura dautsegu-ta, zeruetako bakalderia umetxo ofeina da-ta...

Byron idazle askarak esan eban: «Gizonakaz artu-emon geyago-ta, neure txakuragazko maitasun geyago daukot». Zerbait zio euki añen, olango tentelkeririk ezin geinke esan, baña gizonak ezagutzen dituanak egiz esan leikela uste dot: Gizonakaz artu-emon geyago ta *umeak* geyago maite ditut...

Umea, erugea da, laua, egi-zale, usetsu ta biotz samur'ekoa; gizonen artean gauza eder oneik ain urí ikusiaz, umeak gero ta geyago nok ez ditu maitetuko?...

Itxi ba, umetxoai, *Yaungoiko Zale'ko* batzar'etara eltzen, poztu, bultz-egin eta ekañi zeuen eskuz, ori egiñaz *gizonago* izango zare-ta ..

### ✱ Eta ume maiteok azterketan ez bildurtu!... ✱

Baña saria irabazteko ondo ikasita etoñi. Eta oingoan irabazi ezik, ur'engo-rako obeto ikasi. Batsuetan erantzun ba'regañiak emoten ez zarie txarak, baña dana -dala, emen ipiñiko ditudanak baño egokiagoak emongo dauskuzuezala uste dot.

Ameriketa'n urte asko egin dituan prantzizkotar mixiolari batek idatzita «Misiones Franciscanas» aldizkingian irakuri dot bein Kristiñau ikasbidea azaldu ondoren neskato bateri itaun auxe egin eutsola: ¿Zeinbat Yaungoiko dagoz?—Bat-txo—erantzun eban. —Eta Yaungoiko baka'ean zenbat notin edo lagun dagoz? —Gustiak—erantzun eutson. Orduan mutiko bateri, itandu eutson: ¿Yaungoikoa' gan zenbat notin edo persona dagoz? Eta mutilak: —Ez naz gogoratzen, bai, eta ementxe dagoan neure amatxori itanduko dautsot. Eta amak: —ene semetxo, neuk be ez dakit, mixiolariari itandu egiozu, axek daki gustia-ta...

Azkenean beste bati itandu eutson: ¿Gogozko otoitza zer da? Eta mutikoak zerbait oldostu ondoren: —Gogozko otoitza... *mutuak* egiten dabena. Or'aitik ez zan ain leloa be... Baña gizajo oneik *indioak* ziran eta parkatu bear...

Amaitzeko ipiñiko dautzuedana, euskaleñiko *indio* artean neuri gertatua da, eta ain e'ez parkatu ezin leikena...

Bein zeregin asko emon euskun mutil bategaz bere ama etoñi yakun, yaunar-tza nagosia egin bear ebala-ta. Ba'nenkien zelan ebilen eta amari itandu neutson: Ume onek zer daki?—*Padre muestro* bai... Besterik? Eta amak:—*El pamuestro* be bai...—Nik ¿*Yesu-Kristo* neure jauna ba'daki?... Eta berak: Ara jauna, ori *neuk be ez dakit*, gure gizonak ba'daki baña... Au euskaleñiko *indio* artean neuk entzuna da... Olangorik bat be egon ez daiñen dira gure sariketak. ¡Ia ba umetxuok ekin!

# ALPER ETA PATXIKO

A.—Zer darabik ain goizetik?

Zer darabik Patxiko?

P.—Emen gaituk beti baten,  
lanpetuta betiko.

A.—Lana mutil, latz-latza dok,  
auzorako ohea,  
al dala alperkerian  
obe dok bizitea.

P.—A mutil zer diñok baña,  
zoratu egin al az?  
Lan egiten ez yokana,  
sañi praka zaarakaz.

A.—Praka zaarak obe dozak  
lanan nekeak baño,  
alpearak be bizi dozak,  
beintzat oin arteraño.

P.—Bizi bai besten leptotik  
iñori eraginda,  
ori ez dok ba legea,  
ez yaok ondo eginda.

A.—Langilea lelo bat dok,  
iñorentzat eiteko,  
berak irabazten dauna,  
auzokoak yateko.  
Alper antzera bañabik,  
ez yaukat nik erurik.  
Zintso diarduzuenok,  
zergaitik egin lanik?  
Alpearak ba'dozak zeuok,  
bestek ez yok erurik,  
langilerik ezpalegok,  
ez litzakek alpearik.

P.—Azken au egi dok baña,  
au dok andiagoa,  
langile barik laster dok  
ondatuta mundua.

A.—Adimen zuña dok mutil  
baña entzun egidak:

Danok lan egin ezkerok,  
norentzat egin lanak?

Ez dakik ba danok zintso  
ba'geunkek yokatuko,  
non aurkitu leikek lana  
gizon gustiontzako?

Zuok euki daizuen ba,  
neu eñoak egiten,  
fa mesede onegaitik,  
enok ziñez eskartzen?

Eguzkia danean ba  
kerispea ona dok,  
bestek argi egin dayen,  
alpeara ezetsi, nok?

P.—Alpearen izbideak  
beti dozak luzeak,  
baña ez yozak onesten  
iñon giza legeak.

Lanari iges egiten,  
oretan az mutiila,  
ba'dozak atetan aña,  
aitzaki-maratiila.

Maratiila ez dok gauza  
aterik ezpalegok,  
aterik langile barik  
nok egingo leukek nok?

A.—Patxiko oin apurtu nok  
eñoak erantzuten,  
alan be eñoak beintzat  
bizitz ontan lan eiten.

P.—Yakin eik ba, kaitu orek,  
ori egin ezkerok,  
zoritxarpean ongo az...  
beti, orain fa gero... GABIREL.



# KATOLIKO IZPARAK

## Aita Santua'ren yubileoa

☉ ospatzen ☉

XI'n Pio Aita agurgafiaren abadegintzako 50'n urtea dala ta, yai edefak egin dira aspaldian. Eta urte pozgafi onetan katoliko gustiak gustien Aita'ri euren poza agertu bear dautselako, Efoma'ra bidezkundeak egitea toki gustietan erabagi dabe Ofetarako eralduta dagoan Batzorde'ko buru Kolombo Luis yauna da, eta berak iragafi dabenez, urteko lenengo sei iġebete oneitan Efoma'ra eldu diran bideztiak 40.000'ra eldu dira. 95 bidezkundetan yoan dira; oneitatik 60 italitafak eta 35 bidezkunde atzeritafanak izan dira. Onez gañera taldetxoetan eldu diranak asko ta asko izan dira.

Datofen beste sei iġebetetarako beste 145 bidezkunde iragafita dagoz, orain arte Garagafila'ren 21'tik 29'ra, lateri danetako abadegeyak yoateko asmoa dabe; 2.000 inguru italitafak eta 1.000'tik gora beste laterietakoak. España'tik iru bidezkunde Ufila'rako iragafita dagoz. Bidezti geyen bilduko dan iġa Iralakoa izango da.

## ☉ Mixiño batzarak ☉

Mixiño-yakintzako VI'n Batzar orokofa, Modling'en, Biena ondoan, Dagoniġa (Agustuan) 5'tik 10'era egingo da, Pif kardenal agurgafia buru dala.

Baita datofen Irala'n egingo da Bartzelona'n, España'ko lenengo Mixiño Batzar orokofa. Batzar onetan bazkideak iru eratakoak izan leitekez. Bazkide laguntzaġeak 50 lauerleko gitxienez emoteġ dabenaġ. Bazkide ordelariak 25 lauerko emon ezkeru, iiz eta aurtarkidun batzartxo-

tan izango dira. Bazkide lauak, 15 lauerleko emonda batzartxo gustietara yoateko eskubidea eukiko dabe, eta *host* aldiz Mixiño Erakusketa dubarik ikertzeko txartela. Azkenez deduzko bazkideak, 5 lauerlekogaz laguntzen dabenaġ izan leitekez.

## Anaidi edo Gopatza baġia.

Lihien, Txina'n, igaro dan urtean azkenean bertakoentzat Gopatza edo Anaidi baġi bat irasi dabe. Yon Ugutzalearen Anai-Gopatza deritxo. Gopatza onetakoen zeregiña mixiolariak etxeko zeregiñetan eta Kristiñau - Ikasbidea irakasten laguntzea izango da. Suen agurgafiaġ irasi dau, eta lenengo amabost anayak oraintsu soñeko deuna artu dabe, eta beste amar laster artzeko gertatzen dagoz. Nobiziauak urte bi iraungo dau, eta gero urteroko eskintza egin ondoren, azkenez betikoak egingo dituez. Gopatza au onuratsua izango dala argi dago. Yaunak ugarituko al dau, mixiolariantzat aukerako laguntza litzake-ta.

## Langiġe Katolikotafak

☉ Begoña'n ☉

Langiġeen artean gogo-iñarkunak egiteko oitura edefa zabalduz doa. Bizkaya'n, aurtan 4.500 langiġe goga-iñarkunok egin dabez, eta amaitzeko Baġila'ren 9'an Begoña'ko Andra Maria'ren eleizan eleizkizun edefa, yaunartzaz, egin dabe. Gure Gotzain agurgafia Muxika yaunak, safitan agertu dau langiġeak bere seme kutunenak dituala, eta egun ofetan Begoña'n bildu ziran 3.500'ri Yauna emoteko ara yoan zan.



Mesa bitartean Olabafieta abak itzaldia euskeraz eta erderaz egin eutsen, eta ondoren, sei abadek lagunduta, Gotzaña gure Yauna langile zintsoai emon eutsen.

Mesa ondoren Gotzaña sutsu itz egin eutsen, Kristo'ri langileak asko zor dautsoela azalduaz, eta Jesus'en ain maitasun andia ikusirik eurak be biotzez maite bear dabela esanaz, eta bere itzaldi edefa euskeraz amaitu eban, sendi ta langilearen lana deundu eban Jesus'egan batuta yafaitu dayela eskatuaz.

Yai begiko eta eder oneri azken edefa emoteko Aita Santua'ri ufutidatz (telegrama) bat bialdu eutsen, euren menpetasuna eskiñi ta onspena eskatzeko. Ederto!

### Bayona'ko Eukaristi

#### ☸ Batzara ☸

Garagariña 'ren 3'tik 7'ra, Bayona'n egingo dan Eukaristi Batzara, dirudienez ederenetarikoa izango da. Ilaren 4'n *umeen eguna* izango da. 6'n *neskatilena*, eta 7'n *gizonena*, Gizoste andia bilduko dala itxaron geinke. Ori uste izateko, oin urte bi, katolikotafak azkatasuna lortuteko egin ebezan batzafetan bildu ziranak gomutau daiguzan. Bayona'n egin zan batzafean 20 000 gizonetzko bildu ziran eta andik laster Pau'n egin zanean 30 000. Prantzi aldeko gure anai euskaldunak, zīneste sendoa beti agertu dabe, eta oingoan atzera egingo dabenik ez dogu uste. Batzar onefara Prantzia'ko Gongotzain eta gotzain asko elduko dira. Asierako batzafean gure aizkide Lande abak lenengo itzaldia egingo dau. Bafiro agertuko dabe, «Euskaldun Fededun» egi andia dala.

### Katoliko batzara Indietan

Ernakulan (India'n), katoliko talde edefa dago, eurek uste dabenez, lenengoz Toma deun apostolu edo belduari, zīneste azalbena zor dautsienak 450.000 dira, lau goterkitan banan-

duta Ernakulango Gongotzainaren menpean. Inditar begikook, azkenengo ilean iru batzar euki dituez. Bat ikasle katolikotafena, Kalikuri eko Gotzaña buru ebela 4.000 ikasle bildu ziran.

Gero katoliko batzara syro malabar gurtzaker (rito)koak, eta 5.000 katolikok sutsu lan egin eben, katolikotafentzat latefi legeak zuzendu egin bear zirala eskatzeko.

Azkenez Eukaristi batzara egin dabe ta 10.000 batzarkidek, zoragarizko eleizkizunak egin dituez. ¡Ederto!

### Laterano'ko Itunbena

#### ☸ sendetsi da ☸

Aita Santua ta Italia'ko agintarien arteko Itunbena, bitartean izen diran gora berak zerbait makalduko ebala uste izan zeinkian afen, Bagila'ren 7'n sendetsi da. Goizeko amaiketari Mussolini bere ondorengoakaz Batikano'ra yoan zan. Gaspari kardenal agurgafia egoan gelara eldu zanean, efegeak izenbetutako Itunbenaren iyeki bat emon eutson eta baita Gaspari agurgafiai Aita Santuak izenbetutako beste bat Biak bardiñak ziranetz ikusi eikien irakuri zituezan, eta bertan agertzen eben lenengotan artutako erabagi gustiak osoro betetako gogo zintsoa agertzen ebala. Yazokun onen agiria egin zan, eta Aita Santua'k bereala lialia'ko bakaldunari ufutidaz aitakofa bialdu eutson. Bitartean, Ogasun Ministroak, Gaspari kardenalari 1.700.000.000 lira, Itunbanean erabagi ebenez, emon eutsozan.

Ondoren Gaspari kardenalak eta Mussolini'k ordu lauren inguruko autu-aldia izan eben.

Italia'ko Efegeak pozez erantzun eutson Aita Santua'ren onspenari, bere ta sendiaren ize-nean eskefak biotzez emonaz, eta Eleiz eta latefiaren arteko itunben au, aldi zorientsu baten asiera izan daiten Yaungoikoa'ri otoiz egi ten dautsola adiraziaz Alan izan dediñal!

# GURE KRISTIÑAU - IRASBIDE EGUNA



✻ Egun alaya ✻

**E**GI-EGIZ geure bizitzan, egun alayagorik, egun pozgariagorik ez dogu igaroten, umeakaz egiten dogun «Kristiñau lkasbide eguna» baño. *Bene-tan* ume dana alaya da, alaitasun ekar eta garbiaz, luñun gozoa inguru gustian eraiten daben alaitasunaz. Gizonakaz ospatzen diran yayetan alaitasunaz nastuta beti arantzaxoren bat gelditzen da, egoki ez dan gauzaren bat, lařegikerien bat, zertxobait, alaitasuna ospintzen dabena. Umeakaz, geyenez, olangorik ez da gertatzen. Ume taldeak txoritxo abeslariak dirudie, margo bikañez apaindutako lorategia, luñinkai gozoz inguratutako baratz zoragaría... Gizartetik ume artera, lařatik lorategira dagon aldea dago. Eta lařartetik urtenda, lorategian sartzen dan biotza ez da alaituko? Euron artean alaitzen ez dan biotza, bizitz onetan zek alaitu ete leike?... Egun gustia, Yesu-Kristo'ren irakatsiak ondo ikasten alegindu diran ume maitagaríakaz igarotea baño gauza pozgariagorik egon ete leike munduan? Eta auxe egiten dogu «Kristiñau lkasbide egunean». Uriko kez beteriko tokitik, mendi gañeko aize gozatsu ta garbiak, gure gorputzari, azkatasun, poz eta indar bařia emoten dautson antzera, umeakaz igaroten dogun egunak, arnasa garbi, baretasuna, poza ta alaitasuna geure gogoari emoten dautso. Egun alayaren izena ez ete dautsogu ba emongo?

Alan da be, egi gustia esateko, ainbeste umen begirakun gozoatzaz oldostuta, lañotxo batek, alaitasun eguzkia zerbait iluntzen dausku... Ume maiteok urte gitxi bařu ume ez dirala izango... eta bear ba'da, batsuk okertuko dirala... Baita, an ez diran batsuk, edo irakasle ala gurasoen eruz eta ardurabakokeriz bear dan

bidetik ez doazala gomutatzeak lañotxuok itzalago egiten ditu... Baña erbeste onetako lañotxuok gora-bera, egiz eta benetan, «Kristiñau lkasbide eguna», egun alaya eta pozgaría dala ezin ukatu geinke...

### ✻ Egun onuratsua ✻

Gauza onuratsurik ba'da ludian, Yesus maitearen irakatsi goitañak ikasi, azaldu eta maitatu eragitea da. Eta Kristiñau lkasbide egunean orixe oparo eta beste zeregin barik egiten da. Eleizkizunetan, azterketan, aratsaldeko yayan, Kristiñau lkasbidea, bere bikaintasunari yagokonez, gorengo malan ipinten alegintzen gara, eta ori baño zeregin onuratsuagorik, batez be gaurko egunean, zer?

Gauzarik bikañena, araso ederena ezpalitz, ¿zer dala-ta, ainbeste neke ta lor igaro bearko dabela yakinda be, mixiolariak ain toki urñetara aldatzen dira? Kristiñau lkasbidea, giza biotzetan sustraitzea ain onuratsua ezpalitz, zer dala-ta ainbeste neke leporatu? Lenengo egin beaña, gizadi gustiari egi oneik irakastea zala Yesu-Kristo gure Yaunak ez ete euskun irakatsi? Zelan ba onetan nagi ta muker egon ete geintekoz? Nor lagundu bear ez dabenik? Nor bide zuzenez eragospenik ipiñi leikenik?... Kristiñau lkasbidea irakastea, eta bakoitzari bere elez, Yaungoikoak gura daben lez irakastea, zeregiñik bikañena eta onuratsuen dala ezin geinke ukatu. Eta itzaldi, otoitz, azterketa, alkar-izketa eta sari bidez, Kristiñau lkasbidearen maitagaritasuna itzez eta egitez, gizoste izugarñaren aurrean agertu ta egiztutea, egin leiken gauzarik onuratsuen ez ete da izango? Beraz *Yaungoiko Zale*'k urtero onetan igaroten daben eguna, egi osoz egun onuratsua dala ez ete geinke esan?...

### ✻ Itxaropenez beteko eguna ✻

Itxaropenak, maitasunaz batean darabil mundua, eta geu be itxaropen onek bultzatzen gaitu. Gizartearen itxaropena umeak dira, eta umeen zintzotasunaren, oñarña eta itxaropena, Kristiñau lkasbidea da. Umèen biotz eta adimenagaz, Kristiñau lkasbidea alkartu daigun... eta egun obeak itxaron geinkez...

Kristiñau lkasbide egunean, Ea, Bedarona, Natxitu, Gautegiz-Arteaga, Kanala, E. eño, Gabika, Elantxobe Akorda ta Ibañangelu'ko umeak, Ondañu'ko beereun ume zintso ta begikoakaz, Bolibar'ko 125 egaz eta Meñaka'ko talde bikañakaz, pilo baten ikusi genduzan, asmo bat buruan, eta zaletasun bakaña biotzean, Kristiñau lkasbide zaletasunak alkartuta ikusi genduzan, goiko argiz, euren adimena argitu, goimaitasunez euren biotzak ase, sariz eta idazli mamintsuz euren sake-lak... eta ez ete geinke itxaron Kristiñau lkasbide maitasuna, euren bizitza gustirako biotzetan sustraituta, euren erñetara biurtu ziranean eroan ebela? Eun urte bizita be, egun ori aztuko ete yake? Ez dogu uste. «Yaungoiko-Zale»ren itxaropena zeuok, umetxuok, zarie, eta baita zeuen erñ maiteen itxaropena, iñor izatekotan, erietako ziñeste eta oitura onari eutsingo dautsienak zeuok, ume maiteok, izango zarie

-ta. Egiz «Yaungoiko Zale»ren Kristiñau Ikasbide eguna itxaropenez beteko eguna da...

Eta umetxuok,—Kristiñau Ikasbidea—ondo ondo ikasi—maitasunik samur-enak—biotz bañuan yosi—olantxe yakingozue—luñean zelan bizi...

Eta zelan il be bai!...

## G A M A

OARÁ. — Auñeko zenbakian. Byron idazle *zakaña* esan nai ta *azkaña* urten eban. Egiz askaña izan zan, baña «zakaña» be bai.

# KATOLIKO IZPARAK

## Bayona'ko Eukaristi Ba- tzaña. ✘ ✘ ✘ ✘

Lengo zenbakian esan gendun, Eukaristi Ba-  
tza au dala-ta, antxiñako «Euskaldun fededun»  
bañero egiztuta ikusiko gendula, eta yakin dogu-  
zan izparafetatik osoro egiztu dabela esan geinke.  
Eleizkizun bikañak, ibildeun zoragafiak, itzaldi  
sutsu ta sakonak euskal-abesti gozoeñ lufun  
artean, gure anai euskeldun eta prantzitar katolikotafak,  
lora txortarik bikañena lez Eukaristi Deun-deunari  
eskiñi dautsoez.

Aita Lande'n itzaldi sutsuaz asifa, Txarost,  
kardenal agurgafienaz amaitu zan. Umeen egu-  
nean, 7000'tik gora, antxiñako yanzkeraz apain-  
duta, ibildeunean agertu ziran. Neskatilen egune-  
an bardin egin eben, argazkiak agertzen dabenez,  
ibildeunok zoragafiak izan ziran. Baña gustien  
gain azkenengo eguneko ibildeuna egiz ikusgafia  
izan zan. Befogeñ Gongotzain inguru, Maglionne,  
Paris'en Aita Santuaren Ordelari agurgafia buru  
ubela, eta euron artean gure Gotzain agurgafi  
Mujika yauna. Ibildeun onetan dinoenez 100.000  
katoliko inguru bildu ziran, eta abotsa zabaltzeko  
tramankuluen bidez, gustiak entzun al izan zituezan  
Txarost Kardenal agurgafiak Eukaristiaren gor-  
albenez eta lege galgafien aurka esan zituzan  
egi pozgafi eta gafatzak.

Egiz idatzi dau norbaitek, Bayona'ko uri eus-  
kelduna, egun oneitan eleiza eder zabal biurtuta  
egin dala.

Ederki prantzetar katolikotafok, eta batez be  
geure anai euskaldun zintsoek! Gure ixalorik  
beroenak zeuontzat!...

## Gazteizko Goterkia misi- noen alde. ✘ ✘ ✘

Atsegin andiz irakufi dogu, gai onetzaz, Go-

tzain agurgafi Mujika yaunaren aginduz, Mixiño  
zabaltzaileak argitaldu daben idaztitxo. 1928'n  
Mixiñoen alde, Goterki onetan egin dana zearo  
azaltzen dau, eta bertatik, tokirik ez dogu-ta,  
zenbaki batzuk baño ez doguz aiatuko. Egin  
dan lan afigafia, itzaldi gustiak baño obeto  
agertuko daskue.

Aita Santua'ren aginduzko bazkunak iru dira:  
*Ziñeste Zabalkunde-Bazkuna, Aurtzaro Deuna,*  
eta *Mixiño-eritar abadeen aldezkoo.*

Goterki onetan *Ziñeste Zabalkunde Bazkuna*  
koak 47.300 kristiñau dira, 1927'n baño 9.276  
geyago. 585 pafoki dira onetan lan egin dabena-  
k. 128 pafokitan ondiño eraldu barik dago, ba-  
ña uste dogunez, Gotzain agurgafien deyari  
erantzunda, urte onetan oneik be besteen malara  
igongo dabe.

Bazkideak 122.849'90 lauerleko emon dituez;  
onez gañera mixiño egunetan 37.770'45 lauerle-  
ko batu dira, eta emokunez beste 32.314'15.  
Gustiz: 190.935'20 lauerleko.

*Mixiño eritar abadeentzat.* Au 210 pafokitan  
eralduta dago, 1927'n baño 81 geyago. Onein  
alde sei beka 6.000 lauerlekokoak batu dira, eta  
lau emokun 400 lauerlekoak. Bazkide saria ur-  
tean lauerleko bat da-ta, 27.855'19 batu dira;  
bazkideak lengo urtean baño 5.000 geyago;  
emokunak 23.484'35; gustiz 101.297'54 lauerleko.

*Aurtzaro Deunak,* ikastoletan, lotsagafia da  
baña, eragospen andiak aurkitu ditu-ta, auferapen  
andirik ez dau egin. Urteaga'tar Inazio abade  
yaunak (G. B.), Bazkun bakoitzarentzat,  
17.005,85 lauerleko itxi ditu. Gustiz: 53.228,42  
lauerleko batu dira.

Mixiño egunak 65 eritan egin dira. Beste zer-  
telada asko yakingafiak, idaztiñoan irakufi  
zeinkez, irakurle; irakufi egizu, astirik ez dozu  
galduko-ta.

Eta Mixiñoen alde ain zintzo lan egiten daben



yaun agurgafiēi geure zorion-agur biotzetikoa. Ekin... euskaldun kristiñauen alde egiten dan lana, onuratsua izan daiten be, zīnesge efukafiēi laguntzea, bide edeñā da-ta...

## Sei anai batera Mesa deuna esaten. ☘ ☘ ☘

Lilē'ko urian, Prantzia'n, euretariko baten Mesa bafia zala-ta, sei anai yaupariak bildu ziran, ordu berean Mesa deuna esateko. Eleizkizun gomutagafi au, Yesu Biotz Deunaren Eleizan, egin zan. Sei anayotatik bi yosulauak, yesuitak, dira, bat beneditafa eta iru abade. Basquin sendikoak dira, eta euren ama bertan izan zan. Ak eukiko eban poza!... Amabi seme-alaben ama zoriontsu onek, sei zeruan ditu eta beste seirak Yaungoikoa'ri eskiñi dautsoz.

Gaspari kardenal agurgafiaren bidez Aita Santuak zorion-agur au bialdu dautso:

«Abadegintza bide zeure seme gustiak, Yesu-Kristo'ri eskintzeaz, Yaungoikoaren, Eleiza ta kistar gustien sari-duin egin zara. Sendi kistar gustientzat ikasbide zara Beste guraso askok ikasbide au aintzat artu ta yafaituko al dautsoe. Aita Santuak zorion-aguñā damotse, eta Aita lez eurekaz batera otoi dagi, yaupari maite dituanēz, euren abade zeregiñā, ugari ta igalitsua izan daiten».

Yaungoikoa'ri euren semeak eskintzeko muker izaten diran gurasoentzat, ikasbide benetan edeñā!...

## Mexikon bakea egin da!

Pozez ipinten dogu izpar au. Iru urte iraun daben yasarpēn ikaragafi ondoren, ango agintari ta Eleiz-buru diranak itundu dira. Aita Santuak baldintzak onetsi ditu Bere poza agertu dau, artu-emon oneitan lan egin duan Ruiz Flores gotzain agurgafia, Mexiko'ko Gongotzain autuaz. Erbestetuta eta espetxetan egon diran lekaide ta yaupariak azkatu dituez, eleizkizunak toki gustietan egiten asi dira, yakiñā, lenengo Yaungoikoari eskefak emoteko. Neuman ospetsuak, laster bakea egingo zala iragafi eban, eta igafi dabela esan lei...

Guk be, *Te Deum laudamus* esan daigun. Eleiza beti garailari...

## Entzun, ikasi... ta egin.

Aita Santua'ren Ordeleri Efoma'n dan kardenal agurgafiak Aita Santua'ren izenean, Lekaide Batzordean, emakumezko ikasleentzat, yantziak dirala-ta emon dituan erabagiak iragafi ditu. Bertan agintzen danez, kistar eratasunez yantziten ez diran umeak ikastoletan ez dabez artu bear, eta bear ba'da, yaurti egin bear dabez, sendien andikeriari ezertako begirapen barik, naiz-ta ori egiñaz gitxiago irabazi...

Erabagiok bete eragiteko lekaime ikastoletara, ikertzañea usterik gitxien dabenean sartuko da.

Kistar eratasunaren kaltezko soñekotzat eukiko dira: *atz bi sama txokoa baño berago eltzen diranak; gitxienez ukonduraño, estaltzen ez dabena, eta belaanak baño berat.xoago eltzen ez diranak Baita galtzerdi meegi ta aragi margodunak debekatzen dira.*


Erabagi oneik ikastolara dabizen neskatoentzat dirala ez aztu, beraz nagosiagoak diranean, kistar sentzun yeyago agertu bear dabela be argi dago.

Aita Santua'ren erabagi au ikusita, ganorabako kistar izan gura ez daben emakumeak, bafiketak alde batera itxita... Entzun, ikasi ta... egin... euren burua *pormaltzat* daukienen artean be, beañzana ba'dago-ta...

## Aita Santua ta Mussolini.

Igaro diran zenbaki batsuetan esan gendunez, Mussolini'k itzaldi batzuetan umeen asieratzaz, Eleiza'ren irakatsien aurkako tentelkeri batsuk esan zituan. Aita Santuak, gogor erantzun eutson. Mussolini'k zerbait leundu zituzan bere esanak, baña, oraintsu idazti baten argitaldu ditu ta bertan lenago esan ebana bear aña zuzendu ez dabelako, Aita Santuak Bere asañea agertu dau, eta baita, agindu Gaspari kardenal agurgafiari, lenengotan bialdu eutson idazki bikaña, bañero Bere asañea agertzeko, *L'Osservatore Romano*'n argitaltzeko.

# YOLASKERIA DALA-TA...



## ✿ Udaldia ta yolasak. ✿

**G**AUR egunean, gizosteak eta gasteriak batez be, yolasak *benetan*, eta egin-beaŕa betetea *yolasean* artzen dituala ikusteko... begiak zabaldu baño ez dira egin bear. Yolas egin, yai eta aste, gabaz eta egunez; auxe gaste geyenen asmoa eta... gaste *izan ziran* askorena be bai...

Gaur dakusgunari begiratu ezkeru, gizona ludian, yolastokian dagola dirudi ta bere elburua al bait yolas geyen egitea. Eta zalekeri au urte gustikoa dan aŕen, berariz eta lotsa barik, batez bere udan agertzen da. Udaldia opor-aldia dala-ta, Yaungoikoa'ren legeari eta sentzunari be opor-egiten yako. Neguan gaiztakeria, egualdi txararak baztertuta edo, toki itxietan eskutatzen da. Udan bariz, lotsa barik, bazter gustien yaube egiten dala dakusgu. Eta zalekeri onek itxututa, Yauna'ren legeak uda ta negu bardiñak dirala, askori nonbait aztu egiten yake...

Yolasen artean baña, ba'dira batsuk, biotza usteldu ta kristiñau sentzuna galdu eragiteko, txeranak asmautakoak dirudienak. Dantza nastu, zikin eta iguin-gariak.

Urietan asita, izkorena lez, ixuŕi onek eŕi eta baseŕietaraño igon dau, esi sendoa azkar ipiñi ezik, euskeldun gasteri gustia ondatzeko galbidean ipinten dabelarik. Eta oingo gasteak, geroko gurasoak izango dirala oldostuteak bakarrik, biotza samintasunez betetan dausku. Gastearoa dantza nastuetan emon daben neska-mutilakandik zer itxaron ete geinke? Aragikeria Euskel-eŕi onen yaube egitea, eta of-etara ezkeru, gureak egin dau...

Ez gara gu bakañik au diñogunak. Ara gure Gotzain agurgafiak, Garizuma' ko idazki ederean gai onetzaz diñoan zerbait:

«Eriko plazaetan eta salaetan bere sartu da aragikeria. Euskaleriako dantzaetan, emakumeak gizonari eskua emon bear dautsonean, pañuelo edera imiñi oi izan da bion artean; Euskalerian orain arteko dantzak beti azkatuak izan dira. Gaur ainbeste alegiñak egiten dituez batzuk dantza bañi ta musika-bandaen alde eri aundi-samañetan! Dantza lotuak indar ikaragarria doiaz artzen baztar guztietan eta ba-dirudi dantza loturik gabe jolasik ez dala domeka ta jai egunetan».

Eta naste oñetan sartzen diranak nortzuk ete dira? Lotsabakotzat dagozanak bakañik? Obe litzake. Baña au da tamalgarriena! Katoliko burua egiten dabenak, Maria'ren alaba (?) izunak be bai, eta auzez. Eta irudiz ala musika barik gustien eretxiz, lotsabakokeri andia izango litzaken era naskagari oñetan, txuntxuñeraño murgilduta dakusguz sendi oneko alaba diranak be.

### ✿ Eta gurasoak zer? Eta Agintariak? ✿

Lotsabakokeri onen auzean guraso batsuk samintzen dira, baña ezer egiteka euren samiña iruntsita, gogor egiteko adore barik aurkitzen dira. Beste askok bultz egiten ezpadeutse, gaitz erdi. Geyenak, euren seme-alabak aintzat artzen dituenen pozik!... Eta amak?... —Lora landarak arduraz zaindu—alabak oben bidean... —Bai ete dauke alabaentzat—maitasunik biotzean?...

Eta agintariak zer?... Dantza naskagari oñei indara emon. Baña agintarien lenengo eginbeara euren menpekoen artefik lotsabakokeria baztertutea ez ete da? Eta dantza oñeik lotsabakokeri utsa dirala nok ukatu ete leike? Beraz erietatik dantza nastu oñeik baztertuten, eta alegin gustiz atan be, ez ete dautse ekin bear...? Eta alegintzen ez danak bere bearkuna betetan ete dau? Yaungoikoa'ren auzean erudun ez ete da?

Oñetarako gai ez danak aginte-toki ori itxi egin bear dau, bestela kristiñau eta gizon zintso izenik ez dau merezi. Ba'dira batsuk, eta or dago Zeanuri'ko Ozerinjauregi'tar B. endore zintsoa, dantza nastua erian sartu eragin gura eutsielako bere aginpidea itxi ebana. Ederto egiña! Orixe da gizon izatea, orixe kristiñau *egitez* agertzea. Bere izena aitatzeta parkatuko dauskula uste dogu.

### ✿ Gauzarik lotsagarriena. ✿

Ba-da ezpadako agintariak dagozan erietan olango yantza nastu ta goizalderañokoak lagatzea, ez da ain aritzeko gauza, egiteak izateari yaraitzen dautso-ta. Baña saritan eleizan eta yaunartzen ikusten diran agintariak ori lagatzea, oren aurka ez yaikitea, alegin gustiz ez galasotea, ori, ezin iñoz ulertu izan dogu, eta gero ta gitxiago ulertzen dogu.

Gaur ez dago beste biderik. Ala izan ala izan ez, baña izatekotan oifura onen ainbeste etsai agertzen diran aldi oneitan, gizon eta kristiñau lez yokatuteko

adorerik ez daukona, eriko buru izateko ez da gai, eta gai ez dana...


Yairik andienak Zaindariaren *aintzaz* egiten ei dira, eta Zaindariak eta euren Yauna *iraintzeko* egiten dirala egi andiagoz esan geinke.

Ardao saltzeko bide ona dala-ta, gustia azke? Baña Erietan, taberneruen sakelak ala Yaungoikoa'ren legeak eta lotseak ez ete dau agindu bear? Oitura onen aldez bizia galtzen daben eria goragarria da; zikinkeriz itota dirutsu bizi (?) dan eria ostera iguingarria!...

Gustiok alkartuta, dantza txaren kaltez eta onen aldez kementsu yokatu daigun!...

**GAMA**

# ERÖTAETXE'TAR ERÄIMUN IL DA



Izpar samingaía *Yaungoiko-Zale*'koentzat. Gure bazkide zintso, benetako gizon, euskotar eta kristiñau eredu bikaña, Garagarila'ren 11'an il zan. Eroapen andiz eta kristiñau ziñestetsuari dagokion adorea, gexo luze ta gogor ondoren irabazi daben saria emoteko Yaunak eroan dausku.

Bere artu-emon gustietan on utsa zan, zintsoa ta benetakoa. Inkiñieru ara-soetan yakintsuenetarikoa, trebea ta lanak nekatzen ez ebana. Eta bere ta geure Euskoeri onen aldez bizitza gustian, eten barik, lan egin dabena. Euskalzale sutsu onek euskera ondo ikasi, landu, eta beti sendian eta euskaldunen artean erabili eban.

Aldun izan zan aldian egin zituan lanak, egun bateko lorak ez ziran izan, auzo-ikastoletan ikusi geinkenez. Gustiak, etsai eta aizkideak, itzalez entzuten utsen, bere asmoak, adimen zur, asmo zuzen eta Eusko-eriaganako maitasun sutsutik sortzen ziran-eta. Zarata-zale ez zan izan iñoz be, on egin eta bere eskua gordetzen ekiana zalako.

Baña gure aizkide onegan gustien gain agertzen zana bere siñiste zintso, sakon eta batez be *egitezkoa* zan. Erötaetxe'tar sendikoa zan eta ezin utsik egin... Bere siñiste zintso ta Yaunzaletasun sutsua, beti ta nai non agertzeko, bultz egin bearik ez eban izan. Egunoroko yaunartzean, gau-gurtzaleen artean, esku zabalez bearizandunai laguntzean, gitxi lakoa...

Tamal andia olango gizonak ain gasterik iltea! Egizko gizon, azkar, zintsoak, euskaldun yator eta benetakoak, kristiñau-eredu bikañak, ain beareko diran aldi onetan batez be! Baña nonbait, ludi gaizto onetarako onegia zan eta Yaunak eroan dausku. Bere gurari deuna egin bedi!

Erötaetxe'tar Eräimun'en eriotzaz, aizkide onenetarikoa galdu dogu, Euskal-eriak maitale ta laguntzale bikain bat, eta Zeanuri'k semerik argienetarikoa.

Bere guraso Erötaetxe'tar gudalburu ta emazteak, bere anai eta enparau senideak, artu begie gure tamal-agurik biozkoëna.

Eta bazkide maiteok, otoiz bat yaungoikozale bikain onen aldez! (G. B.)



## Aita Santuak Batikano'tik lenengo aldiz urten dau

Gauza yakiña da, Aita Santuak igaroko 59 urtetan Batikano'tik ez dabela urten. Italia'ko efegeak, indafez, eskubide osoz eukon Latefi-yabetasuna, kendu eutsen, eta bere asafea agertzeko, aren agindupeko lufetan oñik bein be ez dau ipiñi gura izan. Zio au zala-ta, espe-txean lez bizi izan da. Oin baña, bien arteko Itunbena dala bide, Aita Santua latefi-yaube da-ta, azkatasuna lortu dau, eta lenengo aldiz, Gariña'ren 25'n ibildeunez Batikano'tik urten dau, Gure Yauna eskuetan dabela.

Ibildeun ori zoragafia izan ei da. 40.000 lagunetik gora bertan bildu dira, euron artean 5.000 abadegei ludiko bazter gustietatik eldu diranak. Gure goterkikoak 117. Begira egon dan gizos-tea izugafia izan da; 300.000 lagunetik gora izan ei dira.

Egun ofetan goizean, alde gustietatik bildu-tako abadegeyentzat batez be, yaupa emon eban. Ibildeuna afatsaldeko seiretan asi zan. Batikano'ko kanpai nagosienak ots-egin eben, eta Efoma'ko eleiza gustietakoak yafaitu eutsen. Ibildeun bide gustia loraz yosita egoan, eta ita-litar 10.000 gudarik bidea zaindu eben. Zonekorik apañenakaz ibildeunekoak urten eben, eta itzalkiro bide gustia igaro ondoren, Aita Santuak Batikano aufetik Gure Yaunagaz uri ta ludi gustia onetsi eban.

Egun benetan gomutagafi eta pozgafia katolikotar gustiontzat.

\* \* \*

XI'n Pio agurgafiaren urteera au, edesfian gomutagafia izango da. IX'n Pio agurgafiak bere azkenengo urterea 1870'ko Iraña'ren 19'n egin eban. Kardona gudalburua, 60.000 gudarigaz Efoma artzen etofela yakin ebanean, Aita Santu ospetsua, Batikano'tik Laterano'ra yoan zan. Laterano alboan dagon *Scala Sancta*, bidezti laua bai'litzan, ikertu, ta 78 urte euki afen, bertako 28 mañak banan-banan belauniko igon zituan. Otoi-aldi bat egin eta samintasunez beterik. Batikano'ra biurtu zan geyago ez urtete-ko. Ufengo egunean ba, Efoma etsayen eskue-

tan yausi zan, eta afezkero Aita Santuak ez dabe urten bein be, il onen 25'n gure Aita agurgafiak urten daben arte. Pozez beterik didar egin daigun ba: ¡Gora Aita Santu ta Efege XI'n Pio agurgafia!...

## Irlandar katolikotarak

Ingalanda ta Irlandar katolikotarak euren eskubideen aldeko azkatasun-legea lortu ebela aurten eun urte betetzen dira. Lege onen edes-tia beste zenbaki baten azaldu gendun, eta gaur azkatasun ori ospatzeko egin dituen yayen bafi emotea dagokigu. Yai oneik Irlanda'n Bagila'ren 25'n amaitu ziran, Mesa edefa Phoenix Park'en abestu ta ibildeun zoragafia ondoren egiñaz.

Yai oneitara Irlandar Gotzain gustiak eldu ziran, eta, Agintariak buru zirala, 300.000 lagunetik gora.

Aufeko egunetik gizoste izugafiak Dublin'era eldu ziran. Askok, ostatuetan, tokirik ezda ka-lean gaba igaro bear izan eben.

20 metro goi-be zituan altara bat iragi eben eta inguruan 1.000 abade ta lekaide bildu ziran. Baita an ziran Kosgrabe Irlanda'ko Lendakaria, eta bere alboan, Irlandar abertzale -buru De Balera ospetsua. Yaupa, ango Gotzain-buruak esan eban. Eun irlandar gudarik altarea zain-tzen eben. Egozan gustiak meseari yafaitzeko, 70 abots-andikiñ (?) (alta-voz) ipiñi zituezan. Meserdian turuta bidez abestiak ixildu ta ari-gafia izan ei zan, bertan ziran 300.000 lagun-en eraspén eta ixiltasuna.

Mesa ondoren ibildeuna egin zan. Uri gustia Aita Santu ta abefi ikufiñez apainduta agertzen zan, eta 5.000 guda-zaindari gizostea eraldu-ten ibili ziran. Gudariak aufetik, ondoren zor-tziñaka gizonak, zefendan abadeak eta ufengo Gotzañak. Palioa, Agintariak eroan eben, eta euron artean Kosgrabe, eta De Balera poliitikan bere etsai danak. Ziñeste batek, baña, Yauna'ren ondoan alkartu zituan. Ibildeuna Gure Yauna'ren oneskunaz amaitu zan.

Yai oneitan, irlandar zintsoak, irakatsi edefa emoten dabe, gustien gain eta eztabaidak gora-bera, mañtasun guztien gañetik, Yaungoikoa'

ganako maitasuna euren biotzen yaube dala Ederto!

## Itunbena izenbetuta

✿ gero be... ✿

Aita Santua ta Italia'ko agintarien arteko Itunbena izenbetu zan, eta Eleiza'ren eskubideak argiro aintzat artzen ditualako pozez betetakoa da.. *beteko* ba' litz... Aufferko zenbaki baten esan gendun «auntzak lafara» yoten dabela, ta Mussolini'k be... lafara edo .. bide zuzenera ez beintzat.

Itunbeneko 45'n atalak argiro diño, «Katolikotar Ekintzak» azkatasunez lan egin leikela eta aintzat artzen dabela. Ori izenbetu afen, egun giñi bañuan, au dala ta ori dala, *Vita Giovani-le* Bizenza'koa eta *L'Azione Giovanile* Milan'go gaztedi katolikotafan izparingiak ataratzea debekau egin dau.

Eleizak umeen ezikuntzaz dituan eskubideak Aita Santuak argiro azaldu zituan, Mussolini'ri erantzunaz; baña berean dafai onek, eta, lenago be esan dogunez, pozaldi baño naigabe geyago Aita Santua'ri emongo dautsozala uste dogu. Ori dala-ta, Aita Santuak Itunbena bete daiten otoitzak eskatzen ditu, eta baita argiro esan be bere itzaropena gizonetan ez daukola Jaungoikoa'gan baño. Dana dala, auferapen andia egin da, eta ezta baida batsuk gora-bera, Elizak aufera egingo dau... etsayei *requiescant in pace* esanda, orain arte be aufera yafaitu dau-ta.

## Yesus'en Biotzaren

✿ ✿ aintzaz ✿ ✿

Ipar Amerika'n gure ziñesteak indar andia daukala ezagutzeko emen sañitan aiatatu doguzan zenbakuntzak, eta katoliko izparafak naiko

dira. Eta yakiña Yesus'en Biotza'ganako maitasuna, ziñeste zintzoaren mamia dalako, Biotz maitagafiaganako zaletasuna geroago ta sendoago kistar biotzetan sendotzen da. Eta zaletasun onen agerkai, Bere aintzaz iragiten diran eleiza ugariak dira. Oneitariko bat, eta edefentari-ko atan be. Pittsburg eñian egiten diardue. Eñi ofetan 700 sendi katolikotafak dira, eta euren itxaunburuak txuriko bat pulpitoñik eskatu bari-rik eleiza egiteko 200.000 dolar emon dituez Esku zabalekoak dira gero, eta bai biotz zabalekoak be. Maitasunaren ezaugafi emokuna ba'da, amerikar zintsoak ez dabe maitasun epela.

Baita Goteunaren (Espiritu Santuaren) Gopatzako lekaideak be, euren irazkundetik 225'n urtea aurten betetzen dala-ta, Kristo Eñegen aintzaz eleiza bafi bat iragitea erabagi dabe. Eta eleiza ori egiten 2.000 000 dolar eralgiteko asmoa dauke. Ez da dirutza makala gero! Non-bait, emen baño sakel eta biotz beroagoak dira bazteñetan.

## ✿ Kardenal baria ✿

Garila'ko 15'n Aita Santuak kardenal bafi bat autu dau. Schuster aba beneditafa da berau.

Milan'go Gongotzaintza, kardenaltzeaz batera emon dautso. Gizon yakintsu ta apal au bapatean lekaidetzatik ia gorengo mañara yaso dau, eta Aita Santuak itzaldi labur baten azaldu dabenez, Adrianus Gasket, aurtemin il zan kardenal beneditafaren ordeztu dau, Monte Kasino lekaidetxe ospetsua irasi zale 1.400'gn. urtea ospatzeko izentau dau. Eta amaitu daigun bide batez esanaz, oraintsu Aita Santuak bidezti batera esan eutsonez, toki onetan Dagoniña igarofeko asmoa dauko. Alan beintzat irakufi dogu. Egia danetz laster yakingo da.

**M'laf G.**

# YOLAS GALGARIAK DIRALA-TA



## Sustara non dago?



ENGO zerbait esan gendunak geigarria eskatzen dau-ta, zerbait esan daigun.

Urte gitxi dala izugarriro gure erian zabaldu dan oitura-zarkeriak non ete dau sustara? Yakiña girña txaretatik, ituritik lez, sortzen dirala. Baña urtxoagora begiratu ezkerro, irakurgai, zine ta yolas txarak, eta gaur eriak artu-emonetarako daukiezan eretzasunak bide izan dirala esan geinke. Eta guda ostean, ixuria lez, bazter danetan zabaldu dan lizunkeriaren txipristiñak, eta zerbait geyago be, baseñietaraño eldu dirala be egia da.

Baña zatarkeri oreik bideak zabalik aurkitu ezpazituezan, benetasun eta sendotasun geyago erietan aurkitu ba'eben, gaur tamalez ikusten doguna ez genduke ikusiko. Egun gitxi dala eri zintso bateko txauburu langile batek, tamalez, esaten eustan: zintsotzat euki dituan guraso askoren itxikeri ta adorerik ezaz, dantza nastuen aurka egin bear izan danean, arituta gelditu zala. Ori, erantzun neutson, Kristiñau Ikasbidea, biotzean *sustraituta* ez dabelako, eta *oituraz* katoliko izan diralako gertatzen da. Kristiñau Ikasbidea, *biotzean sustraitu* ez ik, oiturak ondo ezin ibili, eta oitura osasuntsuak izanda be, bizi gitxikoak izan: eguzki begian oitutako landarak toki añubera aldatzen diranean lez, erkinduta gelditzen dira, txaren kaltez ekin bear dautsoenean.

Erexi zuzenak eta *sustraituak* ez dituanak, argiak disdiska ta loka daroazan automobilen antzera, gabaz zuzen ezin yoan... usterik giixien danean orma bazteren baten burua apurtuko dau...

Oitura on sustraituak eukiteko, ziñeste sendoa bear da, eta oretarako Kristi-

ñau lkasbidea'n oñaria. Ezyakiña gaitz gustien iturburua da, ta ondoren onik ez dakar. Burua utsik daukonak, begiz ikusten dabenagaz bete gura izaten dau, eta ikusten dabena txara ba'da, gauza onik zelan urten...?

Ziñeste zintsodunen biotzean, ostera, kemena berez sortzen da. Epela dabena gauza andirik iñoz ez dau egingo.

### ✧ Gaiztakeriaren aurrean zer egin? ✧

Txara ikusi, eta, geure baruan baño ezpada be, samintzen ezpagara, bizi gitxi daukogan ezaugarria da. Eresi bat ganora barik yoten entzunda, artegatzen ez danak, *belafi txara* daukola esaten dogu. Gaiztakeriaren aurrean iru bide artu geinkez beintzat. Ala ontzat emon, ala garantzirik ez emon, ala samindu. Lenengo bietan, era bat edo bestez, txarak garaitzen gaitu. Samintzen ba'gara, garailari izango gara. Onetan, baña, askoren koldarkeri eta adorerik ezak, azalben auxe daukela dirudi.

Oste (jente) asko dagon toki baten sartzen gareanean, ango arnasa kiratsak atzera eragiten dausku. Bai ba, aize garbitan egon gara-ta. Baña sartu gaitzean, eta alditxo bat igaro orduko, oitu egiten gara, ez dausku iguñik emoten. Eta norbait etorita, ara ezin leikela sartu esango ba'leuskigu, geuk lendik ezpagenki, auxe erantzungo geunskio: «¡bai zera! emen ez da sometan ezer ba-ta! Zeure begintan-ñoa da ori!».

Erietan oitura txarakaz be onen antzera gertatzen da. Baseñitik urira yasten diranean, ango oitura garbiakaz oituta, urietako oitura txaren kiratsak, askori atzera eragiten dautse. Baña itxaron apur bat. Besteakaz nastu daitela... ta norbaitek, zerbait esaten ba'dautse, auxe erantzuten dabe: ¡Orek zer dauko ba!»... Len ba' eukon zerbait, orain ez, eta alan-da be, lenengotan baño kirats andiagoa egon arien, ez dau sometan...

Gauzak bardin ala txarago dagoz. ¿Nor da ba aldatu dana? An sartu dana, igari barik... Eta ori gora-bera kirats ori ez ete da len bestean iguingari? Bai. Baña kiratsaz oitu danari kalte egin arien, ez konturatzen... Baña onetzaz gañera, au lotsagarriena.

### ✧ Katoliko askoren epelkeri tamalgarria ✧

Gaiztakeri ta *lotsabakokeria*, *lotsa barik* agertzen dalako, kalte asko egiten dau; baña onak eta ontzat dagozanak arpegia emoten ez asartuteak, geyago ez ete dau egiten? Txaren aurrean burua makurtu, tamalez beterik gelditu ta oitura onen alde ez egin ez, eta txaren kaltez adorerik ez eukitea, gaurko katolikotar askoren obenik (pekatu-rik) andiena dala esanda, geyegi esango ete genduke?... Kristo'ren gudari zintso izateko bearkuna ez ete dogu? Eta ori ete da gudari zintso lez yokatzea? Sardá ta Salvany yakintsuak esaten eban, gaurko egunean, katolikotaren *lenengo onbidea*, Kristo'ren alde arpegia azaltzen asartutea dala. Egi andia. Etsa-



yen aurean burua makurtu ta on agertzen lotsatu? Ba, onango kristiñauakaitik Gurre Yauna'k argiro diño: Bera ta Bere irakatsiak gizartean autortzen asartzen ez danaz, Bera be azken egunean lotsatu egingo dala. (Mark, 8-38).

Eta Kristo'ren yaraitzale, Berari eskerak, gareanok, iñoz baño alegin, adore, kemen eta zintsofasun geyagoz ez ete dogu yokatu bear?... Aita Santuak, ainbeste bidar eta ain gurari biziz, katolikotar gustiak, «Katolikotar Ekintzaren» alde lan egin bear dogula diñoskunean, zer besterik agintzen dausku?...

### ✠ Asko ala onak obe? ✠

Al izan ezkerro, ¡yakiña! asko ta onak, onena. Baña au ezin danean, *ugariak baño onak, gitxi izan* arien, nayago gendukez. Ugari-zale asko ezagutzen doguz. Ori, berenez. ederto dagola ezin ukatu leike. Baña *epel asko baño, bero gitxi* bear-ago ez ete dira?...

*Beroak* dagozan tokian ugariak laster agertuko dira, baña *epelen* artetik urtengo daben beroai begira egotea, ames utsa izango litzake.

Gai oretzaz, ezpairik daukonari auxe itanduko geunskio: ¿Lauerleko zuri *bat* ala *larogei zentimo* nayago zendukez? Lauerleko bat lez balio daben katoliko bat, nayago bear zendukela esan leike...

Luistar eta Maria'ren alaben Bazkunetan au arautzat artuko ba'litz, zintso geyago aurkituko litzakez, eta zuzendariak ainbeste buruauste ez leukie izango.

Kanada'tar katoliko gasteak arautzak daukie, *zenbaki andiari bildur iza-tea*... Izan be, bazkide asko eukitea zertarako, gustiak aurez yolas galgarai ta dantza nastuetan murgilduta ibiltekotan?...

Ez ete da, gañera, gogo-legea, eragospenen zerbait aurkitzen dabenean, gazteen biotzak kemen geyago artzen dabela, eragospena azpiratzeko? Geyegi ateak zabaltzea, saritan kaltegarai izan leiteke, ezez lortuten danari itzalik ez yako artzen-eta.

Eta amaitzeko,

### ✠ Ikasi indiotarak emon daben ikasbidea ✠

*Sioux* edo *Dakotas*, deritxoen ipar amerikar indiotarak, erabagi txalogaria artu dabe, Luistar eta Maria'ren alaba askori arpegia lotsaz gofitu eragin bear leuskioena, lotsa daukenari beintzat.

Indiotar zintsook oraintsu batzar bat egin dabe. Eta batzar oretan *Buetxel* abak itzaldi baten azaldu dautse, oituten daben *kui-dantza* deritxona, kristiñau oitura onen kaltezko dala. Eta *Sioux*'tar indiotarak, ago batez erabagi dabe, olango dantzarik iñoz be ez egitea... Ederto egiña! Ikasbide edera, ainbeste ta ainbeste katolikotar *zibilizauentzat*...

Yaraitu ba... eta Luistar eta Maria'ren alaba ez diran katolikotarak be ez aztu *Yaungoikoa'ren Amar aginduen batzareko* dirala, eta dantza nastuak Agindu oraitan debekauta dagozala...



# KATOLIKO IZPARAK

## Gure Gotzain agurgariaren

◉ idazki eder bat ◉

Barzelona'n Iraia'ren 22'tik 29'ra egingo dan Mixiño batzaña dala ta, gure Gotzain agurgariak, España'ko Mixiño abade Bazkunaren Lendakari danez, gai onetzaz, idazki eder, sakon eta mamintsua argitaldu dau. Goterkiko «Boletín»ean eta *Iuminare*, aldizkingi bikañean argitaldu da.

Gai onetzaz, luze samar idazteko asmotan gagoz eta, gaurkoz aiatatu baño ez dogu egingo, geure irakurleai aietaz irakurteko eskatuaz.

Saferan, Sebila'n oraintsu izan zan, Andra Maria'ren aintzazko Batzar bardingabea onartuta, Barzelona'n egingo dan Misiño - Batzaña zer dala ta eraldu dan azaltzen dau.

Lenengo atalean, Eleiza amak mixiñoetzaz irakasten dauskuna argiro ta zearo azaltzen dausku, eta Mixiño aldezko gaurko eralguntza, non, noz eta zelan sortu zan azaldu ondoren, XV'n Benedito agurgariaren, «Maximum Illud» idazki bikain, eta XI'n Pio gure Aita Santuak idatzi eban «Rerum Ecclesiae» idazki sakonaren irakatsiak begien auean ipiñiaz, Abadeen Mixiño Bazkunak, Aita Santuaren Mixiño aldezko Bazkunakaz euki bear dituan artu-emonak irakasten dauskuz.

Bigafen atal osoa, katolikoak lo-zofotik atara eta, abadeak auefik dirala, mixiño ikaskuntza zaletasuna, biztu, zabaldu ta sendotuteko zuzentzen dau, Efi-yakintza eta osagiletzak mixiño ikaskuntzetan dauken gafantzia azalduaz.

Irugafenean, Barzelona'ko Mixiño Batzar au zer izango dan, zertarako, eta bere eralguntza ta abar zearo azaltzen ditu.

Idazki bikain au, gustiok zintso, kementsu, eta bildur barik zintestebakoen alde lan egiteko

bizkortu ta alegindu gaitzean bultz egiñaz, egokiro amaitzen da. ¡Ja, ekin gustiok zintesgeen alde, geure anayak dira-ta! .

## ◉ Eurak diñoenean!... ◉

Jinisty, Berdun'go Gotzain agurgariak 100.000 frankoko *txeke* bat artu dau, gudaldian ondaita gelditu zan gotzain-eleiza bafizatzen laguntzeko. *Txeke* ofegaz idazki asko esan-gurako au bialdu dautso:

«Yauna: Atsegin andiz 100.000 franko bialtzen dautzudaz zure eleiza urena bafiziatzen laguntzeko.

*Protestantea* nazan afen, *Katoliko Eleiza, Kristiñautasunaren Ama dala* autortzen dot, eta Berau izan ezpalitz, gu zintesge basati batsuk baño ez giñan izango.

Neure gomutaki onen zintsotasuna zintestu daizula eskatzen dautzut. X».

Biotz edefa ta gogo zintsoa agertu dau *protestante* onek, eta katoliko izatea merezi dabelako, otoi dagigun bere alde, eta bere ikasbide edefari yafaitu, biotz ta sakelez, geure Eleiza Ama'ren alde!

## Irakasle bikain Jerson'en

◉ ◉ gomutaz ◉ ◉

Yon Txarlier, *Jerson* izendun yakintsu ospetsuaren gomutaz, Prantzia'ko toki askotan yai andiak egin dira, bere eriotzatik V'n gizaldia betetan dalako (1429-1929).

Paris'ko Irakastetxe Nagosian *Kanciler* izenaz irakasle ospetsuenerikoa izan zan. Izlari bikaña, urtizizilari (teologo) yakintsua, eta gogo-gai, mistikan batez be galendu zan.

Onetan gorengo malakoñ zala igarteko, nai-

ko da yakitea, askok berau «Kristo'ren Antz-bidea» deritxon idazti ospetsu eta bardingabearen egiletzat euki dabela. Auzi au, askoren eretxiz uste gendun Kenpis'tar Toma'ren aldez ebatsita egoala, baña alan da be, Ketel'en bere erian, egin diran yayetan, Alfred Pereire'k egin daben itzaldi sakon baten, idazti ofen egile Jerson izan zala egiztuteko zio astunak azaldu ditu. Auzi onetzaz dana dala, guri begikoen beste gauza bategaitik egiten yaku. *Kristiñau Ikasbi-dea umeai* irakasteko euki eban zaletasunagaitik. Gai onetan, batez be bere azken urteetan, gogoz lan egin eban, umeakaz burua bat egiteaz beratzen zala uste barik, lan eta zeregin au goragafientzat eukan, eta onuraz lan egiten irakasteko, «*Kristo'gana umeak erakarteko bidea*» deritxon idazti edefa egin eban.

Goraldau daigun gizon ospetsu au, eta otoi dagigun yakintsuen artean, «Kristiñau Ikasbi-dea» umeai ta ez diranai be, irakasteko zaletasuna zabaldu daiten, ba'da beafizana be ta!...

## Lobaina'ko idaztitegi

◊ ◊ ospetsua ◊ ◊

Gudaldian, doistafak zuzitu eben idaztitegi ospetsu au, gustiz bafistau dabe. Alemanak 300.000 idazti, kalte ordez, emon dituez, euron artean 300 esku, idazti, XV eta XVI'n gizaldikoak. Beste latefiak emon dituen idaztiak 250.000'ra eltzen dira. Geyen emon daben latefiñ artean Ingalanda dago, 55.000 idaztigaz; Prantzia 33.000'gaz eta Yapon'ek 20.000 emon ditu. Polonia'k iru alditan idazti ugari ta bakanak bialdu ditu. Idaztitegi-etxea, lenago esan gendun ipar amerikafak egin ebela. Gustiz 650.000 idazti dagoz ba. Mutilak, ba'da zer ikasi!

## Aita Santua ta Latefiak

Braun Prusia'ko agintari-buruak eta Pazeļi, Berlin'en Aita Santuaren Ordeleri agurgafiak Latefi eta Eleizaren arteko artu-emonak arau-petuteko Itunben edo Konkordatoa izenbetu dabe. Braunk, sozialista alderdikoa izan afen, Eleiza'ri itzal andia agertu dautso, itunbena egiteaz. Baita Portugal'go Latefi ta Aita Santuaren artean, Meliapur'ko goterkia dala-ta, itunbena izenpetu da. Beste latefi batsuk be ofetarako bidean dagoz Eleizak, etsyak alegin andiak egin afen, gero ta itzal geyago bazter gusietan egiten dau Gudaldian latefi gus-

tiak makaldu ziran, Aita Santuak bafiz iñoz baño biziroago argia egin dau guda ondoren. Auxe gogoan eukitea naiko da: Guda aufetik, amalau Latefik euken ordelaria Batikano'n; gaur 32 Latefi dira Batikano'n Ordelaritza daukenak.

## ◊ Izpar txorta ◊

—Olanda'n gobernu bafia eraltzeko Efeğiniak Ruys de Berenbrouk katoliko alderdiaren buru dana aukeratu dau. Katolikoak 30 aldun daukiez. Enparau alderdietatik geyen sozialistak daukie, 24 aldun.

—«Civittà Cattolica» yosulaunak 80 urte onetan, Efoma'n argitalzen daben aldizkingi edefaren, Garagarila'ko 24'ko zenbakia bialtzea, galeraso dau Italiako gobernuak, Aita Santu eta Latefiaren azkengo gora-beratzaz idazki bat argitaldu dabelako. Erabagi ofek katolikotafen artean sartada andia egin dau, eta aldizkingiak ez dau ezer idatzi. Egia entzun gura ez dabeneri zertako!...

—Tanaka yauna, Tokio'ko Irakastetxe Nagosikoi rakaslari yakintsua, katoliko egin da. Biurtez au azaltzeko idazti bat argitaldu dau, eta lenengo irarkaldia aste bian saldu da. ¡Ederto!

—Oraintsu Aita Santuagana bidez kundu z yoan diranen artean aitatugafiak dira, Tafagona'ko goterkiko amar abade, yoan-etofia egazkiñean egin dabelako. Bidean astirik ez galtzeko aukerakoa tramankulu ori, baña biderdian gelditzeko be!...

—Baita 5.000 tximist burdilariak oraintsu Aita Santua ikertu dabe. Gustiak italitafak izan dira. Naples'en dagoan ipar-amerikar itxas-gudontzietatik 600 itxas-gudarik bidezkundea egin dabe.

—Lisboa'ko Gotzain-buru, Mendes Beļo kardenal yauna oraintsu il da. 1842'n yayoa zan, eta azkenengo urteetan Portugal'go Eleiza eraltzeko lan asko egin dau.

—Aita Santuak idazki bat zuzendu dautse españar katolikoai eskefak emoteko, oraintsu amaitu dan, Mexiko'ko yasarpn gogofean an-

---

go katolikotafai laguntzeko 153.000.000 lira bialdu dautsezalako, baita Mexiko'tar abadegeyak, España'ko ikastetxeetan besoak zabalik artu zitezalako be.

**M'taf G.**

# KATOLIKO IZPARAK

## Alkartasun baten lan edera

«Catholic Guild of Israel» da alkartasun onen izena, ta judafak gure Eleizara ekarte da bere lankizuna. Efi askotan bota daben azia ez da alpefekoa izan. Igaro dan urtean Polonia'n eun bat judatar katoliko egin dira; geyenak izen andiko ta aberatsak. Auxe berau ikusten da Japon'en, Yokoama ta Tokio'tik datozan izparak diñoenez. Alkartasun onek New-York'en be itzaldiak egin eta gure Elizea zer dan erakusteko asmoak ditu, baña agirian, London'en egi-ten dauen lez.

## Igandetako lana Kanada'n

Kanada'ko katolikoak miñez ikusten dabe zein efaz apurtzen diran, alde aretan, igandeta-ko jayak, Eleiz-legea ausirik; lantegiak geitu diranetik, langileak gero ta gitxiago zaintzen dabe lege ori. Ango legeak be igandetako lana debekauta daukelako, katolikoak gobernuagandik yaritxi nai dabe, lege ori gorde azo daitela. Quebec'go erkian ilabete osoa artu dabe igandetako yayaren alde lan egiteko. Iru igandetan eleizetan onetzaz itz egin da, izparingitaki gustiak onetzaz eufez idatzi dabe. Ikasitxe gustietan umeai etxake auxe baño besterik erakutsi. Idazki azaletan, bidietan, eta nun nai idazkun au irakurten da «Igendeak zaiñdu»; eta gauza guztietan Jaungoikoaren laguntza bear dalako, ilabete ofetan lekaide ta lekaimeak orixe eskatu dautse euren otoyetan. Azia ugari bota da ba. Bedeinkatuko al dau Jaungoikoak.

## Dinamarca'ko katolikoak

Ango izparingitaki edo periodiku katoliko batek diñoanez, Dinamarca'n 24 mila katoliko dira, 32 pafokietan banandurik, 83 abadegaz. Bertako abadeak gitxi dira, 83 ofetatik 17 baño ez. Lekaimeak (monjak) 740 dira ta euren gain 15 gexo-efixe daukiez. Katolikoaren artean batzuk an bertan yayoak dira, baña beste asko Polonia'tik yoanak. Bertakoak erietan bizi dira ta bestiak basefietan banatuta, euren bizibidea lugintzea

da-ta. Ain banatuak bizi diralako, ez da lan efea izaten gustiai begiratu ta laguntzea, kristiñau egin beafak beteten. Protestanteak gure Elizara ekarten ezin ba lan andirik egin, baña au ta gusti be urteokaz 200 inguru urteoro etofi dira.

Poztu gaitezaz Kristo'ren efeña zabalduaz dualako, ta len aldenduriko efiak bafiro guraso-etxera datozalako.

## Beljika'ko lugin-batz kato-

o o likoak o o

Euren urteoro batzara Bruselas'en egin dabe. Talde bakotxak bere ordezkoa bialdu dau ta 2.000 batu dira. Batsafa asteko yaupea entzun dabe. Bazkun onek igaro dan urtean 121.435 sendi eukazan alkartuta. Alkartasun onek luginai laguntzen dautse, ez bakarik lugintza gayetan ikasbidiak eta auferapidiak emonaz, baita kristiñau eginbeafak ondo betetan be. Onetarako 5.655 itzaldi egin ditu batian-bestian. Luginai efaztasun andia emoten dautse alkartasun onek, lugintzarako biar dabezan gauza gustiak saldu naiz erosteko.

## BAZKIDIAI IDAZTI BARIA

Ointxe gure irarkolan egin da idazti bari bat, «Jaungoikoaren otsein Sakramentu Deunaren Aita Domingo'ren bizitzia», ta bazkidiak (urtian 8 lauerleko gitxienez ordaintzen dabenai) bialtzen asi gara. Ezingo doguz gustiak batera bialdu ta bazkideoi epe apur bat artu dagiela eskatzen dautsegu, al dogun lastefen bialduko yake-ta.

Auxe da aurtien emoten dautsegun bigafren idaztia.

Saldu lauerleko bitan saltzen da idaztiategi nagusietan.

# KATOLIKO IZPARAK

## Bartzelona'ko Mixiño

### ◊ ◊ Batzaña ◊ ◊

Irañaren 22'tik 30'era uri ospetsuan egingo dan Mixiño Batzaña gustiz edeña izango dala ezez igafi leike egin diran gertakizunai begiratura bakafik be.

Aufeko zenbakietan aitatu gendun nortzuk eta zenbat eratakoak izan leitekezan bazkideak, eta gaur, egingo diran batzar eta eleizkizunak aita-tuko doguz.

Irañaren 22'n, asierako batzaña izango da, eta Mixiño aldezko Abade Bazkunan lendakari dan, Mujika'tar Mateo, gure Gotzain agurgafiak itzaldia egingo dau. Goizeko amaiketari izango da. Afatsaldeko seiretan Mixiño abesti batzaldia.

23'n; batzaña amafetan eta orokoña seiretan; izlarien artean Frutos Valiente yaun Salamanka'ko Gotzain agurgafiak izango da.

24; Bartzelona'ko Zaindari Eskardun Andra Maria'ren eguna. Goizean Gotzain Mesa bere eleizan izango da. Afatsaldean, Erakustokiko aretoan Mixiño-gayezko zinea.

25; amafetan batzar txoak. Afatsaldean seiretan Batzar orokoña; izlarien artean Irurita'tar M. Lerida'ko Gotzain agurgafiak, eta Sarasola Aba Urabanba'ko Gotzain-Mixiñolaria.

26; Mosef'era bidezkunda eta bertan eleizkizun edefak.

27; Amafetan oi diran batzañak. Afatsaldean seiretan orokoña. Mixiño-idazti sariketako sariak bananduko dira. Itzaldiak, gai onetan lendakari izan dan Marin Lazaro Efel eta Mirales, Bartzelona'ko Gotzain agurgafiak.

28'n; Amafetan oi - diran batzañak. Bostetan afatsaldeak, amaizerako Batzaña. Tafagona'ko Gongotzain Bidal eta Bañaker kardenal agurgafiak, eta Berapoly'ko Gongotzain egingo dabez itzaldiak.

29; Amarderdietari; Gotzain - Mesa agirian, 25.000 umek abestuta. Pueyo jaunak, Pasto'ko Gotzañak itzaldia egingo dau. Afatsaldean, Mixiñolarien lanen erakusketa bizia, ibildeun eraz.

26, 27 ta 28'n irufen bat egingo da ta Jose Portales jaunak Gualar Santiago Zaragoza'ko

kanonigo jaunak, eta Mentxaka'tar Pedro, Gazteiz'ko kanonigo jaunak itzaldiak egingo dituez.

Mixiño Batzar au gustiz edeña izango da zinez.

## Ipar - Amerika'ko izparak

Latefiko Lendakaria aututeko egin ziran auteskundeetan Smith aurkeztu zan ezkerotik, katolikotar aldezko aizea asko zabaldu da, eta usterik gitxien euki leiken tokietan. Etsayak katolikoa zala-ta bidebagekeririk andienak bere kaltez zabaltzen alegindu ziran, eta lenengotan zerbait kalte egin afen, katolikotar izena eta irakatsiak zabaltzeko bide izan dira.

Askori, katolikotar zinestea ezagutzeko askurea sortu yake, eta asko, kristiñau ikasbidea irakasten daben tokietara yoaten asi dira, gero katoliko egiteko. Euron artean, protestantetar artzai edo abadeak ba'dira, eta Florida'n dago bat bere saspi seme-alabagaz, katoliko egiteko gertatzen.

Tablet New York'eko izpafingiarren artezkariak diñonez, katolikotar zelan egiten dan itanduten bialdu dautsiezian mile idazkiri erantzun beafean aurkitu da, eta beronek diño oraintsu katoliko egin diran ogetamar protestante ezagutzen dituala.

Dabis Golstein, Kolom Zaldunen bazkunako izlariak zabalkundea ego aldean egiten diardu eta diñonez, iñoz be ez dau ikusi gizostea ain z a l e t s u, / katolikotar zinestearen edertasunak ezagutzeko. Eta au asiera baño ez dala diño onetan aituak diranak. Ara beste izpar begiko bat.

Washington'go Toma deunaren eleizan, protestante izan diran Wilson Lendakari ospetsuaren lau biñobak, lenengo jaunartza egin dabe. Neskatotxoeren izenak, Mildred, Elene, Edith, eta Nekane dira. Lenengo irurak egun baten yayoak dira, ta amaika urtedun dira.

Baita oraintsu autu dituez, Ezikuntza edo edukaziño arasoetako, Latefi Bazkunako itundari, abade bi; Johnson Yerke, Wasington'go Irakastetxe Nagosi Katolikotafeko idazkaria, eta



Eduardo Peaze, bertako Zuzendari Ordezkoa. Batzorde ofetan lenengo aldiz sartzen diran katolikotar abadeak dira.

Dirudien ez ba katolikotafak aufera doaz, Yauna'ri eskerak!...

### Aita Santu Mendigozalearen

☉ ☉ gomutaz ☉ ☉

XI'n Pio agurgafia, bere aldian mendigoizale ospetsua izan da. Opor aldietan, bere idaztiak itxita, zaletasunik andiena mendi garayetara igotea izaten zan. Onetan Akiles Ratti'n izena ospetsua izan da. Eta Garagariaren 31'n 40 urte bete dira Alpes'etako Dufour, erpiñera igon ebala. Erpin ori 4.628 metro goyan dago, eta bere aufetik inor ez zan asartu gañur aretara Italia aldetik igoten.

Yasokun au ospatuteko, Makukagna erian yai begiko bat egin dabe. Mesa eder bat abestu zan, eta ofetarako Aita Santuak berak Lituania'ko Ordeleriaren bitartez, kustodi bat kopoi bat eta edontzi edo kaliz bat emon ditu. Mesatako itzaldia D. Dario Farceschi'k egin eban Novara Gotzaña bertan zala Eguerdi ostean batzar egin eban Pio XI'nen goralbenez, eta Klub Alpino'ko dan Lapugnani irakasleak eta Gemeli ospetsuak itzaldi edefak egin zituezan.

Garagariaren 25'n, Aita Santua'ren lenengo urteeraren gomutaz Milan'go mendigoizale bazkunak, Aita Santu mendi-zale bertako bazkideztat daukanaren izenean Kombin-nagosa deritxon eta 4.317 metro goyan dagon erpiñean mesa bat esan eragin dau.

### ☉ Izpar txorta ☉

Etiopia'ko efegeak Aita Santua ikertu dau. Aita Santuak afera aitakoña egin dautso, eta bere sendiarentzat oneskunde berarizkoa emon be bai.

— Lourdes'ko bidezkundeak igaro dan ilean ugariak izan dira. Prantzitar bidezkunde ugariez gañera, lengo ile erdi inguruan eldu ziran: 1 000 italitar, 450 olandar, 800 koloniatar, 100 berlindar, 400 Osteritar, 400 Dublingo Mariaren alaba, 150 ipar-amerikar, 150 Maltatof, 150 Serbitar. Eta onez ganera Zeila'n, Txile, Argentina, Kanada, ta Ahitiko taldeak eldu dira.

— Suezia'ko katolikotafak, Anstxaire deuna,

euren artean beldu izan zanaren 100'gn. urtea andikiro ospatu dabe.

Muler yaun agurgafiaren deyari erantzunaz, eun Gotzain inguru bildu ziran, euron artean, kardenal bi; Faulhaber, Munitx'ko Gongotzaña, eta Hlond, Poznan'goa.

— Aita Santua ikertu, dabe ipar-amerikar egaizkari bik: Wilians ta Yanzey, «txori oriska» deritxon egazkiñean eldu ziranak. Wilians, egazkari katolikotar zintso danak, ipar-amerikar kardenal baten eta bere txauburuaren idazki bat eskiñi eutsozan. Eta Aita Santuak eskerak emonaz esan eutsen; «Egazkiña eñien arteko artu-emonetarako, eta eriak Aita Santuagaz artu-emonetarako bide-tramankulurik bizkofena dala, eta Aita Santua gaurgandik, ludi gustiko katolikoakandik, edozein enda ta izkuntzadunak izanda be, uñago dagola».

— Dagoniña'ko 27, 28, 29 eta 30'n Lobaina'n «VII'n Mixiño astea» andikiro ospatu da, «Zabalkunderako eragospentak» gaitzat arturik.

— *Civiltá Cattolica* oraintsu Mussolini'k zigortu eban. Aita Santuak, aldizkingi bikain au maite dabela adirazteko, Aita Santutzako zortzigafen urtea dala-ta egin daben uñezko domiña bat emon dautso, gogoko yakola adirazteko.

— Batikano latefiko lenengo bidayen ikufatzak (seluak) urten dabe. Iru eratakoak dira; batsuk giltzak eta tiara dakañe, eta beste batsuk «Poste Vaticane» «MCMXXXIX».

— Aita Santua'ren yubileo urtea dala-ta Irala'ren 14'tik 20'ra bultzi-txartelak, Eñoma'raño erdi saneuñian ipiñi ditu Latefiak. Txartelok amabost egunerako balioko dabe.

— Liverpool. ingalandar uri ospetsuan, Gotzain eleiza bafia egiten doaz. Edefa gustiz izango da. Goterkian 360.000 katolikotar dagoz eta gongoterki gustian eta batu dan txindia orain arte 20.000.000 frankora eltzen da.

**M'laf G.**

# KATOLIKO IZPARAK

## Goiko irakatsiak langile au-

• • ziatzaz • •

Lile'n ugazaba ta langile katolikotar artean izan dan auzi bat, Efoma'ra eroan dabe, ta erabagia emonaz batean, langile ta ugazaban artean dagon auziatzaz, Eleiza'ren irakatsiak eta guraria garbiro agertzen daben idazki edefa argitaldu dau, katolikotar gustiai, gai onetzaz zer aldeztu bear daben irakatsiaz. Idazki ofek saspi atal ditu ta emen atalburuak ipintea otu yaku egoki dirala deritxogu-ta:

1.<sup>a</sup>—Ugazaba eta langileak euren arteko bazkunak egiteko dauken eskubidea, naiz bakafik naiz nastuan, Eleiza'k aintzat artu ta bayezten dau, eta bazkun oneitan, gizarteko auzia ebazteko bide egikofa ikustien dau.

2.<sup>a</sup>—Gaur gauzak dagozan erari begiratuta, Eleizak uste dau bazkun oneik eraltzea ziilegi arauz beafekoa dala.

3.<sup>a</sup>—Eleizak bultz egiten dau sindikato bazkunok eraldu daitezcan.

4.<sup>a</sup>—Eleizak gura dau, sindikato bazkunok, Zineste ta Ziilegizti (Moral) arauz eraldu ta zuzendu daitezala.

5.<sup>a</sup>—Eleizak gura dau sindikato bazkunok batasun eta bakezko bitartekoak izan daitezala, eta orixe dala-ta, bietako Batzordeak, batasunerako bideztaf aututea nai leuke.

6.<sup>a</sup>—Eleizaren guraria da, sindikato bazkunak, katolikoak eta katolikoan artean eraltzen dituenan, katolikotafan artean izan daitezala, aztu barik baña, berarizko beafizanak, beste era batera eraltzen beartu leikezala.

7.<sup>a</sup>—Eleizak katolikotar gustien batasuna eskatzen dau, kistar maitasun lokafiz gustiok batera lan egin dayen.

Erabagi bakotxa Efoma'ko Batzordeak, Leon amairugafenetik orain arteko irakatsiakaz sendesten dau.

Lileko auzia bertako ugazabak Efoma'ra eroan eban, katolikotar sindikatoen aurka, eta an auzia ondo aztertu ondoren, langileen artean itzezko lafegikeritxoan bat egon dala autortu ondoren, ugazaben zalakuntzak aintzat ez dituez artu.

Gai onek gaur egunean gafantzi andia dauko-ta, katoliko'tar gustiak gogoan euki bear geunkez irakatsi edefok.

## Aita Santuaren itz gomuta-

• • gafiak • •

Oin *modan* dago Gotzain naiz abade batek zerbait egiten dabenean, batez be bazkunetan itzaldietan eta, politikea egiten dabela esatea, eta Aita Santuagaitik batsuk orixe esaten asaritzen dira. Ara XI'n Pio agurgafiak olangoari emon dautsen erantzun egokia; Malta'ko bideztafi itz egin dautsenean:

«Norbait etofiko ba' litzakizue, ez bakafik Malta'n beste edozein tokitan be, politikea egiten dabela, ez egizue zinuestu. Aita Santuak, gogoak, arimak gaizkatu, Yaungoikoa'ren eta Eleizearen omenerako politika baño ez dau egiten eta au politikea ez da erlejiño utsa baño. Egiz, eraen baten edozein tokitan eta edozein aitzakiz, naiz akiakulau politikazkoa izan, gogoen salbaiziñoa eta Eleizaren izen ona afiskuan agertzen diranean, Aita Santuak afisku ofeitán gogo eta Eleiza'ren aldez ekingo leuskio. Norbaitek, toki batzuetan geratzen dan lez, katoliko dala uste, eta izaten yafaitu leikela uste ba'dau, baña Gotzainai men egin barik eta Kristo'ren Ordezkoa

aintzat artu barik, ez egiozue ziñestu. Katoliko eta batez katoliko ona ezin izan leiteke, Gotzain eta Kristo'ren Ordezkoaren aginpide gurenari men-egin ezik. Askok ta askorentzat itzok ederto datoz.

## Aita Santuaren Yubileoa

◊ ◊ dala-ta ◊ ◊

Irañako lenengo amabost egunetan Aita Santua ikertulen 150 bideztfitalde eldu dira Aita Santuak gustiai bere itzaldia egin dautse.

Bidezti onein artean De Brugne euren buru dabela, 200 beljekar irakasle (maixu-maistra) eldu dira. Irakasle lendakariak egin eutsen itzaldia Aita Santuak beste eder bategaz erantzun eutsen.

Euron artean beste bidezkunde begiko bat aiatatu bear dogu. 300 mutikotxu italtar Aita Santua'gana eldu dira, «Fanciuli catholici d'Italia» deritxon bazkunen izenean. Bazkun oneik 1400 dira. Bidezkunde onetarako autu dituen mutikoak Kristiñau - lkasbidea'n saria atarako mutikoen artean autu dituez. Ofixe sarie geuk be, *Yaungoiko-Zalen* Kristiñau-lkasbide sariekara aurkezten diranañ eskiñi al ba'geinkio! . .

Yubileoa dala-ta, bezuza asko Aita Santua'ri eskiñi dautsoez, Latefietako buru diranak lenen dirala, baña emen aiatatuko doguna lango bakanik gitxi artuko zituan.

Masserano'ko italtar efiko yaupalburuak, 1870'n urtean botiñla bi ardaoz bete zituan, Italia'ko agintariakaz Itunbena egingo eban Aita Santuari eskinteko. Añezkero 59 urte igaro dira, eta oin efi aretan dagon yaupalburuak, lenengokoaren asmoa beteaz Aita Santua'ri ardao botiñla biok eskiñi dautsoz.

## Ingalanda'ko katolikotarak

Oraintsu Irlanda'n lez, Ingalanda'koak, euren azkatasuna lortu eben ezkeru eungafen urtea betetan dala-ta, yai andiak egin dabez, eta bide batez, bederatzigafen katolikotar batzar orokoa. Liverpool'en egin diranak ikusgarriak izan ei dira. Thingwall - Park'en zelayan esan zan Gotzain mesara 400.000 katolikotar eldu ziran, iñok uste zeinkean baño askoz geyago. Londres'en egin diran yayetan alderdi danetako goizañak bildu ziran. Ondo etofia emoteko bildu ziran aretoan 8.000 lagunuen aufean Bourne kardenalak itz egin eban. 20 Gotzain eta 5 Gongo-

itzain eldu ziran. Batzafak Irañaren 13'tik 17'ra iraun eban, eta azkenengo egunean egin zan gizonezkoen bidezkundean 20.000'tik gora batu ziran. Itzaldia egiteko 30 katolikotar Bazkuntako ordelariak eldu ziran. Yai gustiak bakerik edereñean egin dira Ingalanda'n askok uste dabena baño indar andiako dabela katolikoak agertuaz.

## Kardenal ospetsu baten

◊ ◊ eriotza ◊ ◊

Egunokaz Paris'ko Dubois kardenal ospetsua il da Eragiña ta Eleiza'ren alde eten barik bitzita gustian lan egin dabena izan da. 1856'n yayo zan; 1879'n lenengo mesa emon; 1901 Verdun'go Gotzain autu eben eta 1909'Bourges'ko Gongotzain; 1915'Rouen'go Gongotzain eta kardenal. eta 1920'n Paris'go Gongotzaintza emon eutsen. Toki gustietan liturgia ta eleiz abesti alde lan gogor egin dau, eta onetzaz ointxe bere lenengo Mesako befogetamargafen urtea zala ta Aita Santuak zuzendu dautson idazki edereñ goralbenik andienak bere lanai egiten dautsoz. Aita Santua'k esaten dautsonez «onen ugaritasunaz gaizakeria itoten» alegindu da, eta alan da be «Action Francaise»ko *ziñausleak*, (olantxe deitzen dautse Aita Santuak) amaikatxo buruastez, yasarpn irain eta naigabe emon dautsez Berak alegin gustiak bide zuzenera ekarteko egin ditu, Aita Santua'ren gai ofetzazko agindu zeatzak zintso beteta.

Iñan onen 24'an Gotzain bafi bat egiteko eleizkizuna eukan, eta 26'n Praga'ko Wenceslao deunaren 1.000'n urtea dalata gertautako yayetara yoateko zan, baña ofen ordez Yauna'k goiko betiko yayetara eroan dau. Yaungoikoak erabagiten dituz gertaerak, gizonak beste asmo batsuk euki afen.

**M'fai G.**

Il onetan, misiño igandean eta «Kristo Efegearen» igandean eleiza gustietan egin biar diran berarizko otoyak, txauburu jaunai eñaztasun guztiak emoteafen, ofitxo baten ipiñi doguz, eta zenbaki onen hañuan doakioez gure bazki-deai. Uste dogu atsegin izango yakola.

# YANTZIKERA DALA TA...

## OITURA TXAÑEN PIZTUGAÑA

Oitura txafak piztugafi ugari inguruan euki daroez, baña yantzikera nabarmena, indar gitxien emoten dautsena ez da izango.

Lengo zenbakian, yolas galgafietzaz zerbait idatzi ondoren, norbaitek, Mal a ga'ko Gotzain agurgafiak, yantzi eratasunatzaz aurtemin emon dituan arauak bialdu euskuzan, *Yaungoiko Zale'n* euskaraltzea egoki eritxola-ta. Yaungoiko Zale'koen artean olango beañizanik dagonik ez dogu uste, baña euren inguruan bai ugari, nainon aurkituko dabela!...

Oitura txafak zabaltzeko ain indar andia yantzikera nabarmen nasayak dabela-ko, Aita Santu, Gotzain eta Eleiz gizonak, gai onetzaz beti itz egin dabe, eta erabagi gogoñak emon be bai. Onetan Kristiñau askok, euren kristiñautasuna norañokoa dan agertu dabe. Kristo'n ordezkoen aginduai «entzun eta gor» egiñaz...

Eta ikusten dana ikusita alpeferko yarduna dala norbaitek uste izan leike, baña gu ezetzean gagoz, besterik ezpalitz be, txafa ontzat emon ez dayen, txafa zer dan irakastea egoki izango litzake-ta. Egia esatea beti be egoki da...

Moda ta yantzikera auzia, ez da luze labufean zentimetroen auzia, lotsa geyago ala gitxiago, kristiñau sentzun geyago ala gitxiago, zibilizaziño geyago ala gitxiagon auzia baño. Onetan bañiz udaldian yanzkerari begiratu ezkeru, askoren sentzunak *bakaziñoak* artu dituala esan lei... Neguan aize otzari eskerak, yantzietan eratasun geyago ikusten da; baña aize otzak dakafen lotsea, udako aize epelak eroaten dau. Aizeak dakafena aizeak eroan... Kristiñau danak, ori baño *benetasun* geyago euki bear leukela esan lei... baña nonbait Lope de Vega'k esan ebana: «*emakume* diñoanak *aldakuntza* diño»... egiztau gura dabe askok...



Gizartean, euren aginpidez, yakituriz eta txindiz nagosi diranak, bekoai ikasbide ona emoteko beartuta dagoz eta euren eginbear astuna orixe da. Baña aberatsak lotsabakokeria zabaltzen lenenak ba'dira, yantzi nabarmenez lotsa barik ba'dabiltz; efitar lauak, bekoak zer ikasiko dabe? Bean lotsabakokeria zabaltzen danean, goyan auzetik zabaldu dalako izaten da. Goitik ur garbia yausten danean, bean ur garbia artzen da, baña zikiña, loya yausten ba'da, bekoak zelan ez zikindu?

Gaur bardintasuna gauza gustietan eskatzen da... ba, ia esan geinke lotsabakokerian goi ta bekoak mala baten dagozala. Bardintasun lotsagaia!...

Basatikeria ta yantziak ❁

Orain arte, gizabide edo zibilizaziñoa, soñekoetan agertzen izan da. Soñeko gitxiago ta basatikeri geyago, eta basatikeri gitxiago eta aragiak obeto estaldu. Gaurko zibilizauak (?) ostera, gero ta estalki gitxiago daroe. Zergaitik ete? Basatiago egin diralako ez ete da?... Eta onein basatikeria kaltegarriago da besteena baño!

Yanzkerek nor dan agertzen dau. Lotsadunik lotsabako yantziak ez da agertzen. Beraz, yantzi nasayakaz agertzen diranak, agertzen diran lakoxeak dira...

Yanzkera onen alde egitea ba, zibilizaziño alde egitea da.

Bardin esan geinke notin nagosien ume yantzi eta orazteatzaz be. Ama izan da ume yantziak ainbeste ikusten diranean, gaurko *benetasunik* ezak tamalez betetzen gaitu. Ez ete da ba ori nagosiak ume biurtu diran ezaugafia?... Eta umekeriai begira dagoan amak, umeak zelan asi ta ezi ete leikez?

Eta tamalgafiena da, kristiñau oitura ondatzeko beste zeregin barik sortu diran bazkunen asmo galgariei, *kristiñau ontzat dagozanak* indaia emotea, eta ori ainbeste bidar Eleizako Buruak gaitetsi ta gero...

Gaur *benetasuna* galduaz doa, ta ortik sortzen da

Gauzarik benetakoan yolasean artzea

Eleiza'n yantzi nabarmenaz sartzen itxi ezik, arako zelanbait eraz yantziten dira; baña urten ordukoxe modeak eskatzen daben erdi yantziak agertuko yatzuz. Ordu erdian sentzun arauz yantzen dira, gero egun gustian lotsabarik agertzeko. Ori eratasun eta kristiñau legeaz apariketan ibiltea ez ete da?

Oraintsu Santiago'n emakume katoliko batzar bat eginda, eta bertan egin daben itzaldi ederean Madariaga deritxon anderaño batek esan daben lez, gaur «yolas asko, eguzki artzeak, igeritzeak eta lotsabakokeri biurtu dira, eta aldi oneitara eldu gara: neure begiz ikusi dot neskatotxo bat besoak zabalik garbaiz nonbait oititz egiten, baña besoak nañu-gofian eukazala». Askoren yaunzaletasunaren irudi bizia dala esan geinke...

Olango nasteak galasoteko

ara oraintsu, berak sortutako Maria'ren bazkunakontzat Malaga'ko gotzariak emon dituan, eratasun arau zeatzak;



*Marien Bazkunako ez dabe izan bear:*

1.<sup>o</sup>—Soñeko estu ala garden edo meegiak darabiltzenak: *luřetik belauneraño sanko erdia agirian* itxiten daben soñekodunak: *ala beso erdi baño geyago*, ala *bular eta lepoalde atal txikiena* be agirian itxiten daben soñekoak erabilten dituenak.

2.<sup>n</sup>—Yařita dagozanean, oituraz eratasun kaltez, belaun bata bestearen gañean eukiten dabezanak.

3.<sup>n</sup>—Guraso, anai ala senar ez diran gizonetzkoakaz batu ta bakafik egurasten yoaten diranak.

4.<sup>n</sup>—Gizon eta emakumezkoak batera igerian egiten daben itxas-ertzera bear-izan barik yoaten diranak, eta oindiño gitxiago uretako yantziatz, eurakaz ibili ta yolas egiten dabenak.

5.<sup>n</sup>—Euren gurasok ala senafak bultz egin barik (eta ba'dira ain zorigaiztokoak be) yayen ontasunari begiratu barik antzoki ta zineetara safitan yoaten diranak, ala dantza bafi nastuetara doazanak, eurak egin ez afen, ikusten ala astia emoten ala besteak dantzan diarduen artean yan ala tea artzen yoaten diranak.

5.<sup>n</sup>—Ulea mostu ala atonduten gizonetzkoakana yoaten diranak; gizonetzkoai emakumeak ori egitea zilegi ezpada, besterantza be ez dau izan bear-eta».

Onexe dira Malaga'ko Gotzain agurgarriak emondako arauak: Bete eragin ez-kero bazkideak gitxiagotuko dirala? Ez dautso bildufik, Aita Santuak lekaime ikaste-txeakaitik esan ebana: «Nayago leukela ikastetxeak utsik ikusi, eratasun barik yan-txitakoz beterik baño...»

«Bai mila bider, bai, nayago dot Yesus Oteundegi utsean bakafik ikusi, erata-sun bako emakumez inguratutako Oteundegi batean lotsatuta baño».

Lengo zenbakian esan genduna, gitxi ta onak obe, asko ta erdi-erdizkoak ba-ño... Eta beste Bazkunetan artzen ba'dituez be, berean ez dauz nai ofelakorik, eta emondako arauok betetan ez dituanak, gexo aldian etxean mesa esan eragiteko Ma-ria'k dauken galaldi edo pribilejioa galdu egingo dabe.

Eta idazki edefa onantxe amaitzen dau:

«Artezkari maiteak: Ontzat dagozan neskato, neskatil eta emakumeen ainbes-teko nasaikeriaz naigabetu ta lotsatuta dagon Yesus'en maitasunafen, Yesus garbi-garbiaren Ama gustiz garbiaren efukiz, Eleiza Amaren eta geure Bazkun onen dedu-afen, eta baita gogoen aldezko efukiz, gogo onez ta biotz zabalez arau oneik artzen ez dituezanai, Maria'en domiñea kendu edo ez emoterañoko, jbigunkeri barik zořotzak izan zaiteze ta gogofak be bai!...

Gelditzen diranakaitik, asko nai gitxi, Yesus'en Biotzak atsedenez esan al da-yela: Onek neugaz dagoz...!!»

Beste bazkunetan be, auxe arautzat artuko ba'litz!...



Rosa Enrike aba yosulauna *La Civiltà Cattolica* Erroma'ko aldizkingi ospetsuaren artez-karia da. Garagañilean Mussolini'n asmoen aurka idazkai edeña idatzi ebalako, zenbaki gustiak biltzeko agindu eban, eta zemakuntzan bat egin be bai. Yosulaun ospetsuaren argazkia ortxe dozu, irakurle, euskel-erian izan danean atarata, Galdos aba eta Donosti'ko Eusko Biltegiko lendakari Agife'tar Yoseba'ren erdian. Onen aldamenian gure idazkide azkafa dan Manterola'tar Gabirel yauna.

Rosa aba 1870'n yayo zan, Novara'ko goterkian. 16 urtedun Yosuren lagundian sartu zan. Elerti ta pilosofi irakasle Txieri'n izan eta 1905'n *La Civiltà Cattolica*'n idazten asi zan, eta 1914'n artezkari egin eben. Idazti sakon askoren egilea da, 15'na beintzat, eta Hergenrother *Eleiz Edesti Orokor* ospetsua be alemanetik italerara beronek biurtu eban. Gizon yakintsu eta kementsu onek Eleizaren eskubideen alde zintso yokatu dabelako YAUNGOIKO-ZALE'n zorion agufa artu bei, baita be Aita Santuak ufezko domineaz saritu dabelako.

# ESKARIA

## I

Itxas - kresalak  
Bere ibiliñaz  
Zeure esana eiten dabe.  
Euzki - ilargiak,  
Zeruko izañak  
Jainko aintzatzen zaitube.

## II

Aize-ekaitzak  
Txistu zorotzaz  
Bere suaz tximistiak  
Zeure izena  
Aintzaltzen dabe;  
Gau ta egun guztiak.

## III

Zeu goralduten  
Txori alayak  
Zerua-ziar piuka.  
Ta Zeu poztuten  
Mendi itzaletan  
Pizti ankeñak ofuka.

## IV

Margodun lora  
Politak, Jauna  
Zariala, diñoskute;  
Mota guztiko  
Zugatz-emaizak  
Naguzi eiten zaitube.

## V

¡Negargañia!  
¡A, nok dasake!  
Ludi osoko Jauntxuak,  
Zeure semiak,  
Oinpetzen zaitu  
Gizon dolór eta itsuak.

## VI

Jaurtixu, Jauna,  
Geure otzera  
Zeure biotzeko gar bat;  
Ta leitan dauzan  
Biotz ilkofak  
Imiñizuz beroz sutan.

## VII

Bidaldu eizu  
Euskaleñira  
Len eukan goimaitasuna  
Beröz berotu  
Bere biotza  
Zeure labako suagaz.

## VIII

Jaurti baita be  
Ludi osora  
Zeure maitasun gar deuna,  
Gaurtik auñera  
Izan dagitan  
Ludi guztian zoruna.

# KATOLIKO IZPARAK

## Katolikotar Ekintza.

Gure Aita Santu agurgafiak *Katolikotar Ekintza*z itz egin eban ezkerotik, katoliko zintsoak Aitaren guraria betetako asmoz lanean gogotsu diardue. Batzafak, itzaldiak, bidezkundeak, ugari ta gizoste ugariagoakaz egiten dira; gaurko gizarteko galbideak eta gatxak aztertzeke eta osakayak asmatzeke gero ta zentzun geyagoz eta zintzotasun andiagoaz lan egiten da. Ila bi oneitan egin diran batzafen bafi emoteko, dauka un baño toki geyago bearko genduke, eta gañantsitzuenak baño ez dituguz aitatuko.

Lobaina'n, mixiño -astea batzar eta itzaldi edefakaz egin zan.

Dagoniñan Austria'n eta Irañan 4'n Luxemburgo'n, abendiziti urtzikoi, edo etnologia religiosa gaitzat artuta, yardun aldi edefak egiteko latefi askotako yakitunal bildu dira.

Italia'n Irakastetxe Nagosietako ikasleak euren batzafa Efoman'e egin dabe, eta amaitzeko bildu ziran 700'ak, Aita Santua ikertu eban. Pozik artu zituan, eta adirazi eutsen aste betean 50 bidezkunde artu zituala, eta ufengokoan 70 bidezkunde itxaroten zituala, baño danen artean ikasleen bidezkunde au berariz begiko egiten yakola. Gero «Katoliko-Ekintzaz» yardun eban eta baita adirazi be itz bitan, au «katolikotar bitzita» egitean dagola.

Baita Sebila'n bildu dira aurtemin, latefi gusietak ikasle Katolikoen batzafa Irañan 4'n asi zan. Latefietako ordelari ta abar 400 bildu ziran. Euren lanak llundain Kardenalaren itzaldi edefaz amaitu ziran.

Katolikotar Ikasleen Bazkun orokor au 1920'n eraldu zan, eta 18 latefitan bananduta 42.000 bazkide ditu. Bere ikufitza *Pax Romana* da, eta gai onetzaz ederto lan egiten dau,

Mixiño erakusketa ta batzafak ugari egin dira, bat gustiz edefa Lisieux'en Teresatxo deunaren aintzaz egin diran yayekaz batera. Gañantsua izan dala igarteko, azkenengo ibildeunean 100.000 lagun baño geyago bildu zirala, yakitea naikoa da.

Baña izan da beste Mixiño batzar bat afeza geyago zor yakona. Au da.

## Bartzelona'ko Mixiño

### Batzar eta Erakusketa.

Gure Gotzain agurgafiaren lendakaritzapean egin dan batzar eta Mixiño Erakusketa eder edefa izan da. Asierako itzaldia Mujika gure Gotzain maiteak egin eban, mixiñoen aldeko katoliko eginbeafak sutsu ta zearo azalduaz lru miñan lagun bildu ziran.

Azkenengo egunean be, Verapoly'ko Gongotzañaren ordeze gure Gotzain agurgafiak egin eban. Onez gañera gure goterkikoak Sagarninaga, Gufutxaga J, Ariztimuño, Unzalu, Barandiaran eta Mentxaka yaunak itzaldi edefak egin zituezan.

Izan diran sariketean be sari ugarien irabazten Gazteizkoai iñok ez dautse irabazi. Lan egiten dan ezaugafi da-ta, asko poztutzen gara.

Batzar onetan amaika Gotzain eta agintariak izan ziran, bazkide izena emon dabenak 10.000, eta azkenengo egunean yolas tokian izan zan Gotzain-mesa'n 70.000 lagun bildu ziran. Gauza edefa ziñez, ziñesge gaxoen aldezinbeste arduratzen dala ikuste.

## Doixtar katolikotafak.

Alemania edo Doitxerian, katolikoak irutik bat



dira. Baña eralguntzarik edere azpian ederto lan egiten dabe. Batez be gazteria, ondo eralduta dagola ikusteko, zenbaki batsuk ipniiko ditugu. Alemania'ko biztanle gustiak 63 420.000 dira. Oneititik 14 miloi 14'tik 25 urtera bitartekoak.

Protestanteak 40 014.677 dira eta eurofatik 8.805 228 gazteak. Eta gazte oneititik eralduta dagozanak 638.600 baño ez dagoz.

Katolikotafak osteria, 20.193.109 dira, ta gazteak 4.442.334. Oneititik 1 418.109 katolikotar bazkuntan sartuta dagoz, zenbakiak kontuan eukita protestantetafak baño bost bidar geyago.

Eralguntza onen agerbide edefa emon dabe Dagonila'ren 28'tik Iraia'ren 1'era Friboug-en Brisgau'en egin daben 68'n Batzar orokoan. Batzar ospetsu oneititik lenengoa 1848'n Mayenza'n egin eben, eta gero ta edefagoak izan dira Batzarxoetan 15.000 lagun biltzen ziran eta azkenengo egunean 250.000 lagun bildu ziran egun aretan Friboug'eko geltoktra 96.000 lagun eldu ziran.

Batzafoz amaitzeko zelai eder baten Aita Santuaren ordezoak esan eban Mesa nagosira 100.000 lagun eldu ziran. Uri gustia apainduta agertzen zan eta, afitzekoa da baña, protestanteen etxeak eta yudafen sinagoea be bai. Sendi, gizarte, yolas, irakurte ta abar gai gafantziitsuak adiraldu zituezan eta erabagi edefak artu be bai.

### Jinebra 'n katoliko yakitunen batzaña.

Latefietako auzia ebazteko, latefietako orde-lariak euren batzafoz egiteko biltzen diranean, yakina latefi askotako katoliko bikañak eltzen dira, eta bertan dagozan artean, katolikotar ekintzari dagokiozan gayak aztertu, adiraldu eta erabagi onuratsuak artzeko, batzaña egiteko erabagi txalografia artu eben. Igaro dan Iraia'n azkenengoa izan da. Ilaren 15'n Laussana'ko Gotzain Besson agurgafiak yaupa esan eta Kasimiro Ralewski Poznan'go abade ikastetxeko zuzendariak itzaldi edefa egin eban, IX'n Pio gandik XI'n Pio'raño Aita Santuak latefien bake alde egin dituezan alegiñak azalduaz, Latefi oneitiako ordelariak ziran bertan: Austria, Alemania, Belgika, Prantzia, Kanada, Italia, Polonia, Ungaria eta Ego-Amerikako erkaldafi batusetako ordelariak.

Gero itzaldi edefak, gizon yakintsuenak egin

zituezan, eskontza, sendi, asiera aberi ta lan-eraltzea sakonkiro azalduaz. Batzar au Besson agurgafiaren itzaldi edefaz amaitu zan. Asmo edefa auxe, katolikotar irakasteak bazter gustietan zabaldu ta katoliko alkartasuna sendotzeko.

### Katolikotar Ekintzaz'ko

#### batzaña.

Toledo'ko kardenal agurgafi eta langiile puñukatuak katoliko ekintza alde, eten barik lanean diardu. Au egiztuteko ointsu Zestua'n urak artzen egon dan bitartean be, bertan gogo-iñar-kunak emotea otu yakon, eta onura andiz atan be, azkenean Aita Santuarentzat eskakizun bat egiñaz eta 2 500 lauerleko bildu zituan. Gaspafi kardenalak Aita Santua'ren izenean eskeñak emonaz erantzun dautso, bere asmo txalografia gorralduaz.

Idazten diardugun artean Efoma'n da bidez-kundeakaz, eta andik etofi ta berealaxerako, Katolikotar Ekintzaz batzar bat eraldu dau datofen ileko 13'tik 17'ra. Batzafetan geyenez, itzaldi geyegi ta erabagi lafegi artzen dira gero... papelean itxiteko.

Batzar au, Mesa edefaz ta *Te Deum* bategaz amaituko da, ta ondoren, cerro de los Angeles' era bidezkundea egingo da.

Batzar onetan erabagi gitxi, laburak eta bete al izatekoak artuko dira. Bazkide izateko maña bat dago, 5 lauerleko ordaitzen dabenena.

Orixe da bear dana, egin eta ekin eta... ekin eten barik, ekiteak itzaldi gustiak baño eragikof-agoak dira ta...

**M'laf G.**

---

## ERİETAKO İZPARAK

---

### Efoma'tik.

Yoan dan astelenean goizeko amaiketari bul-ziratzen nintzan Euskal-Erian izan dodan opor-aldia amaitutzat emonik, neure emengo egunero-bo lanai eskua ezarteko. Urtean-urtean goxoago agertzen yataz neure mendi orlegiak eta eurokandik alde egin beañak biotzari zauzkada hañenkofa emoten dautsa. Ofaitio urteokaz zori



# Katolikotar Ekintza dala - ta...



SPALDIAN, gure Aita Santu XI'n Pio agurgariak batez be bultzatuta, Katolikotar Ekintzaz, itzaldi, aldizkingi, izparingi eta batzaretan itz egiten da. Ila onen 13'tik 17'ra Segura kardenal yaun agurgariak Madrid'en gai onetzazko batzar orokoia eraldu dau. Eta egin-eginean, XI'n Pio agurgariak, Bertram Breslau'ko Gotzain eta kardenal agurgariari, Katolikotar Ekintzaz zuzendu eutsen idazki ederean urteurena be ila onen 13'an da. Gai onetzaz ba zerbait idaztea egoki deritxogu. Eta lenen,

## Katolikotar Ekintza zer ete da?

Itz oregaz zer adirazi gura dan, inok baño obeto Aita Santuak berak esango dausku. Bere lenengo idazki orokoia (Ubi arcano Dei) argitaldu ebanean, *Katoliko Ekintza* aitatu eban, eta ekintza onen izatea onetantxe egoala esan eban: *Kristiñau lauak, Eleiza'ko buruai dagokien belduntza edo apostolauan lankide edo laguntzale izatean*».

Auxe azaldu dau idazti eta itzaldi askotan, eta gai onetzazko idazkirik ederean, Bertram kardenalari oin urte bete zuzendutako idazkian, orixe bera diño: «Katolikotar Ekintza'ren elburu gustia, kristiñau lauak Eleiza'ko buruai dagokien beldutzan lankide zelanbait izatea da. Ez dago ba, bakoitzak bere deuntasuna lortzen alegintzean bakarrik, ori lenen eta garantzitsuena izan are be, orez gañera belduntza bat da, bertan gizarteko mala gustietako katolikoak lankide dirala, egizko irakatsi eta legez eraldutako ekintza askareko bazkunen inguruan, buruz eta egitez alkartuta, eta beraz, Gotzaiak lagundu ta eutsita»,

Beraz, Katoliko Ekintzan lan egiteko, Aita Santua'ren gurariak beteaz, lenen, norbere ziñestea sustraitu bear dogu; eta gure biotza onbidez apaindu; gero Gotzaiñen zuzentzapean, eurak lagundu ta eutsita, maña gustietako katolikotar gustiak asmoz eta egitez alkartu, geure inguruan, ziñeste argia, eta kristiñau onbideen usain edera zabaltzeko.

Ortik atara geinke,

### Katolikotar Ekintza'ren elburua.

Katolikotar Ekintza, ziñeste auldu ta oitura nařazak dituan gizarteari gaxoa kendu ta argi, indar eta kristiñau bizitasuna bařiztatzeko da. Berariz ba, gogoko ondasunari begiratzan dautso, goitara da; ez politikazkoa, erlejiñokoa baño.

*Lenengo elburua*, Aita Santuak diñonez, «lateri gustietako katolikotarařak gizarte-oitura eta erlejiñokoi diran gauzetan alkartutea da, eta *elburu gurena*, kristiñau ikasti eta ziñesteko egi-lenak zabaldu, aldeztu, eta gizon, sendi eta gizarteari bete eragitea.

Asmo bikañagorik ezin leike euki, kristiñau bizitzea, itzez, egitez eta *bizitez* zabaltzekoa da-ta.

Au ez da asmo bařia, Elizan Aita Santuak diñon lez, lenengo gizaldietatik ezaguna izan da-ta, baña gure aldi oneitan, «ziñeste osotasun eta oitura galtzeko ařisku geyago daukelako eta abade urřitasun ain andiak» laguntzaleak ugaritzea eskatzen dau, eta orřetarařko, kristiñau gustiok gertu egon bear gara.

Gauza bařia ez da ba, eta *asmo baři* bat baño, Maffi kardenal ospetsuaz, *beařizan* baři eta estu bat dala, esan geinke.

### Kristo'ren Bakea, Kristo'ren Bakaldefian.

Itz eder oneik gure Aita Santu agurgariak bere egitamutzat artu zituan, eta asmo ori betetako, Katolikotar Ekintza, biderik egokienetzat artu dau. Orixe dala -ta ia itzaldi ta idazki gustietan gai orëri ikutzen dautso, geroago ta zeatzago azaldu ta Bere asmoa kristiñau gustiak argiroago ikusi dayen.

Bere lenengo idazkian iñoan lez «Kristo'ren Bakea, Kristo'ren bakaldefian bakařik izan leiteke, eta bake au sendotuteko, Kristo'ren bakalduntza bařizatzea baño lan egikořagorik ez dago». Eta X'n Pio agurgariaren asmoa *gauza gustiak Kristo'gan bařiztatzeak* XV'n Benedito'k *bake ta alkartasun* lana gertau eban lez, gure Aita'k bere asmoa bion urřatzai yařaitzea zala agertu euskun, «Kristo'ren Gentza Kristo'ren Bakaldefian» zabalduaz. Ori lortuteko Katolikotar Ekintza beařeko bidetzat autu dau, eta bazter gustietan zabalduko da erotsu ta onuratsu.

Eta Faulhaber kardenalak 1928'n itzaldi baten esan eban lez «Baleiteke egunen baten edestiak XI'n Pio'ri *Katolikotar Ekintzaren Aita Santua* deitzea».

Bere asmoen alde zintso yokatu daigun ba!...

## ERĪ - YAKINTZA

# OSAKAYAK

---

*Éreumea kentzeko.* Lexar eta aretx oñiak Bagilaen atzenetan batu, ta beañizena dagoanean egosi; ta onein ura artu gox-aratsaldeetan.

*Gexo au kenduteko beste osakai ego-kiagoa.* Irurogeta amabost gramu (azta-

ki) biotz-lora, ogeta bost aztaki txarpoil-bedar (cominos rústicos), aztaki bi alako-bedar (guayako) eta beñeun eta ogeta bost aztaki zarzapañila-ri lau mila aztaki uretan irikiñazo, gero otzitzen itxi, otzitu ostean bosteun aztaki azukera baltzizka eta laureun aztaki estigaz nastu. Bañiro naste guzti au surten imini, irikin artean. Urtengo daben edabea bonbile baten sartu, ondo saratu eta bear danean edan.

**G.'tar E.**

## Bide onera. ❧ ❧

Gure zīnestearn argi izpiak geroago ta bizi-ago bazter gustietan zabaltzen dirala, pozik dakusgu.

*Ingalanda'n* negunerik-egunera katolikoak ugarituez doaz; urtean katolikotar egiten diran protestanteak 12.000 baño geyago dira. Eta katolikotar zīnestea zabal eta sakon sustraituten doala, oraintsu «azkatasuna»ren eungafēn urtea ospatzeko egin dituen yai edefak argiro erakutsi dabe.

*Indotxina'n*, batez be, gure Bēriotxoa zorunduna, Gotzain izan zan Tonkin'en eta Than Hin deritxon erkian, ugari dira biurten diranak eta len ainbeste gofotatzen izan daben katolikotar zīnestea begiko egiten yake geyenari. Eta au afitzekoa da, orain arte yasarpēn gogofak igaro ta gofotoz begiratzen izan dautsielako. Baña orain katolikotafēn lanak ikusi, euren onbideak dirala - ta, abertzalerik onenak eta agintarien menpekorik zintsoenak dirala lkusi dabelako, bakaldunak abegi onez begiratzen dautse. Gaur anamitafēn lenengo ministro edo bakaltseīnēn buru dana katoliko zintsoa da, eta mixiñolarien lanez idigi diran ikastolak onbide ta egia asko zabaldu dabelako, Aita Santuak bere Ordelarizta bat irasi dau. Efabagi au oso begiko egin yake anamitar zīnesgeai be.

*Txiña'n* be katolikotasunaren ezaugafi ona dan, Aita Santua'ganako maitasuna, gero ta sakanago agertzen da. Tsien-tsin eta beste toki batsuetan Aita Santu agurgafi XI'n Pio'ri, «Gure Aita Santua» ta «Txiñar Aita Santua»ren izenaz deitzen dautse, nonbait euren aldez ainbeste lan egin dabelako. Agintariak be ez dagoz muker. Bagila'ren 2'an, Sahng hai'n bilduta egozan itxasontziak, Latefi Batza edo Estados Unidos, Txina, Yapon, eta Ingalanda ta Prantzia'koak gusti-

ak batera Aita Santua Batikano Uriko Efege zala -ta, ospatzeko oi diran 21 kañoi edo suagadaz ospatu eben.

Au zala-ta, Aita Santua'ren Ordelaria Nankin'era yoan zan eta Txian-Kai-Shek, txiñar lenda-kariak'oso abegi edefa egin eutson.

Suifu'ko ikastola ikertzaīeak, katolikotafēn ikastolak ikusi ondoren, argiro autortu dau katolikotafēnak onenak dirala eta latefiarenak baño onura geyago emoten dabela.

Yazokun oneik asko esan gura dabe gero!...

*Yapon'en* be, katolikotar izena egunerik-egunera agintari ta menpekoen artean begikoago egiten da. Aldi gitxi da Tokio'n yosulaunak (yēsuitak) daukien ikastetxe nagosia agintariak, latefiko ikastolen maīara yaso dabela. Bagila'ren 2'an Aita Santua'ren Bakalduntza ospatzeko Tokio'ko Gotzain-eleizan abestu zan Te Deum'era bakaldunaren seme-alabak bere orde z yoan ziran. Oraintsu Osaka'ra Bakalduna yoan danean, bakaldun edo emperadoreak, bera ikertzera yoan diranen artean atzefitar bat bakafik artu dau, Ama Bernardina, katolikotar lekaimea, 25 urtedun Yapon'era yoan eta bertan 56 urte daroazana.

Yapondafak berez onbiderako beste enda batsuk baño leratsugoak dira eta asko itxaron geinke. Orixe dala-ta, katoliko artean ezez onduten dira. Aurtengo Pentekostes egunean Seattle lpar Amerika'n, sei yapondafek bateo deuna artu eben, eta aurte min katoliko egindako beste amaseik Sendotzako lkurton deuna.

## Bide ohera. ❧ ❧

—Paterno de Kasteīo deritxon bakaldungaya, italitar andiki artekoa lekaide sartuta oraintsu lenengo mesa esan dau. Eleizkizuna amaitu ondoren, Karmeldafēn lekaimetxera, yoan zan bere

emaztea ikertzera, bertan oraintsu soñeko deuna artu eban-eta.

—Doti Kepa italitar osagile ospetsua, osagileza laga-ta, Rimini'n prantziskotafak dauken lekaretxean sartu da.

—Pennsylvania'ko «galtzaiduen efege» deritxon Sixwab'en alaba bakaña Greenburg'eko karmeldafen lekaimetxean sartu da. Saspi urtean Paul'dar Bingen deunaren alaben arteko izan da eta orain bizitza latsagoen gurariz, karmeldar sartu da.

—Nikolas Alexejen yauna, efusitar andiki artekoa, gasterik zismatikotafen lekaidetxean sartu zan. Txina ta Korea'n lan asko, euren ziñestea zabaltzeko egiña da. Ixulaskundea etofi zanean erbestetu eben eta Txina'ko Txantoung erkian bizi izan da. Antxe prantziskotar mixiolarien aizkide bafuko egin zan. Biotz zuzenduna eta oiura onetakoa zanez, gure ziñestearen edertasunak laster ikusi zituan, eta gogo inarkunak egin ondoren katolikotar egin zan. Afezkero erusitar anayen alde, batez be Txina'n dagozanen alde, lan asko egin dau eta katolikotar egi-ta lortu be bai.

Egia esan, au «bide obera» baño «bide onera» etofi dala obeto esan geinke, lengo bidea ez zan ona-ta.

### Batikano'ko izpañak.

Bidezkunde ugariak datoñen iñetarako iragafita dagoz. Gustientzat astirik be ez dala egongo ikusirik, Aita Santuak Yubileoa datoñen urteko

Bagila'rarte luzetzea erabagi dau, kistar gustiak irabazteko efeztasun geiyago euki dayen.

Baita Efoma'tik diñoenez, Lotazila'ren 21'an Aita Santua Anbortzi eta Karlos deunen eleizara yoango da, lenengo yaupa esan eban tokian bertan, befogetamargafen urtea ospatzeko. Batikano'ra biurtzean, eña Batikano eleizako ate buruan dagon leyotik onetsiko dau. Izpar au ez dakigu baña, beintzat ziurtzat emoten dabe.

### Laterano'ko Itunbena ta «Agur Maria». ✕

Izpañgiak idazpuru onegaz auxe idatzi dabe: Laterano'ko itunbena sendezteko aldi ospetsua eldu zan. Mussolini bere ondorengoakaz Batikano'n egoan. Osaia'n 11'n Laterano'n ontzat emondakoa, oso-osoan sendetsiko ete eben? Aldakuntzarik egongo ete zan? Azken orduan eragospenen bat?...

Bildur izateko zan, egun gitxi zala Mussolini'k aldundian aldeztutako guzufezko irakatsien aurka, Aita Santuak gogorkiro bere asafea agertu eban eta.

Gaspafi kardenala eta Borgongini-Duka gelan sartzen yoyazan. Kardenalak, bururatu eutson bere lagunari «Agur Maria» bat esateko, gustia ondo urten eikean. Biak, ardura gustiak alde batera itxita, uste osoz «Agur Maria» esan ondoren, gelan sartu ziran; alkafi agur egin ondoren... Itunbena alderdi bietakoak ezertarako eragospen barik izenbetu eben.

Gauza benetan edefa, eta ikasbide bikaña, araso astunetan norbere lanagaz goiko laguntza uste osoaz eskatzeko.



# ARATE'KO AMA SORTZETZ GARBIARI

(BURESTUNTZAKO EGUNEAN)

Afate'ko zelai eder-ederean  
zaintokia autu zenduan Ama,  
Maitasun samurak bultz egin dautzu ta,  
pozez yatzi zara semeokana.

Maitasunez zatoz, ori ba'dakigu,  
maitasun samuran Ama zara ba,  
geu zeuregantzeko gurari biziaz,  
duin ez izan afen, seme gara-ta.

Eskartxafeakoak saritan tamalez,  
izan ba'gara be, auferantzean,  
zinez diñotzugu: Zu izango zara  
gure Bakalduna bizi gustian...

Ta ezaugaritzat burestun edefa  
damotzugu pozez, Ama maitea;  
orain artean lez Eibar'ko eria  
izan daiten beti, beti Zeurea.

Gure biotza ba zarean Amatxo,  
samur, efukitsu, Sortzez Garbia  
Ez dakuzu pozik, burestunduteko  
Zeure inguru dan efi gustia?...


Gure Gotzain maite, Muxika'tar Matai  
agurgaria dan Aita on-onak,  
burestun oregaz, Zeuregandu dituz  
Eibar'tar zintsoen biotzak danak.

Etsai gogorez inguratirik  
gagoz Amatxo laztana;  
goiko argi ta eskar ugari  
bialdu jafen! gugana.  
Bizitz onetan zintso yokatu  
daigun zeure Zaintzapean,  
eta Kristo'ren yafaitzaleak  
beti-beti izan gaitean...

GABIREL.

*Eibar'en 2 XI-929'n.*

# KATOLIKOTAR EKINTZA



## II

**L**ENGO zenbakian, Katolikotar Ekintzaz esan gendunez, Elizaren nagusi diranen lankide kristiñau lauak izan bear ba'dabelako, Katolikotar Ekintza, XV'n Benedito agurgariaz, *Eleizaren laguntza lea* dala esan geinke; XI'n Pio agurgariaz, «Kristiñau lauen belduntza edo apostolutza» eta abadeenagandik urin ez dagoana (Van Roey kardenalari zuzendutako idazkian) eta beraz, gure Aita Santuak berak, 1926'ko itzaldi baten esan ebanez, «Eleizaren lankide izan bear dau, bere zeregiñik bikañenean, apostolu edo belduntza lanean».

### *Katolikotar Ekintza, belduntza da.*

Ori argi agertzen dan egia da. Au ondo ulertzeko Eleizaren eralguntzaz egi batsuk aitatu daiguzan. Eleiza, bazkun bat da, eta bazkun onetan buru diranak eta menpeko diranak dagoz, eta ori Yesu-Kristo'ren gurariz. Buru diranai, Eleiz edo Doibatz-nagositza dabenai, *irakatsi* ta *agintzea* dagokie; menpekoai, kristiñau lauei, *entzun* eta *egitea*. Nagosi diranak eurak be, beste nagosi batsuk dituez, lur onetan gustion Buru dan Aita Santuak izan ezik, Berak be baña, Kristo'ren irakatsi ta arau lenak zaindu bear ditu.

Eleiz nagositza bikoitza da; *yaupaltza* edo *ordenatzetik* sortzen dana, eta *lege-al* (edo aginpidetik sortzen dana). Lenengoa, berenez, eleizkizun, mesa ta ikurton edo sakramentu bidez, gogoak deundu eta gaizkatzera zuzentzen da; bigarrena, bateatutakoai irakatsi ta agintzeko da, deun egin eta zeruratu daitezen.

Nagositza bikoitz au daukienen artean, Gotzain, abade ta diakonoak Yaungoikoak irasitakoak dira ordenari dagokionez, eta lege-al edo aginpidetik sortzen dan

nagositzan, Aita Santua. Kepa deunaren ondorengo eta Gotzaniak Beldu edo Aposto-  
luen ondorengo dira. Eleiz nagositzako enparau mañak, Eleiz legez ipiñitakoak dira.

Kristiñau lauak nagositza onetako mañetan ez dira sartzen, baña nagositza one-  
tatic Eleiz-buru diranai sortzen yakiezan eginbeafetan, kristiñau lauak be lankide ta  
laguntzaleak izan leitekez, eta Aita Santuak agindu dabelako, izan bear dabe. *Buru*  
ez danak *beso* izan bear dau, eta *Buruak* agintzen dabenean besoak lagundu bear  
dautso. Eta era onetan Eleiz-Buru diranai dagokien belduntzan edo apostolutzan, kris-  
tiñau lauak, gizon naiz emakume, zar naiz gaste, gustiak zelanbait lan egiteko bear-  
tuta dagoz, itzez, egitez, otoitzez, ikasi ta irakatsiz, bakoitzak al dabenez, Yesu-Kristo'  
ren ziñestea, oitura onak eta onbidea zabaltzen alegindu bear dau. Auxe da, Eleiz  
belduntzan lankide izatea, eta Kristo'ren aginpidea, Kristo'ren bakaldefian zabaltzea  
be ofetantxe dago...

### Eginbear ori zelan bete bear dogun?

Beldu edo apostolu izanda, eta ori izateko kokolo ta kikilkeriak alde batera  
itxi bear dituguz. Ziñeste eta oitura onen aldez eta guzur eta oitura txafen kaltez zin-  
tso, kementsu ta eten barik yokatu bear dogu. Biziak, asartuak, izan biar gara eta  
ez eragospentak dirala-ta atzera egitekoak, neke ta lor eta atsekabeak atzera ez dausku  
eragin bear, eta garailari urtetzeko, geure ziñestearen aldez bizia galtzeko gertu egon  
bear gara. Olangoxe laguntzaleak gura ditu Aita Santuak. *Yaungoiko-Zalen* dagoza-  
nak ori egiten eñez daukie. Gure bideari yafaitzea naiko dogu, gure zeregiña Katoliko  
Ekintza'n oso-osoan sartzen da-ta. Ori bai, gero ta kementsu ta gogotsuago kristiñau  
-siñeste argia, eta onbideak zabaltzen alegindu bear gara, len baño bear izan geyago  
dago-ta. Eta ofetarako egoki diran bide gustiei lagundu bear dautsegu, eta bide bañiak  
izanda be bai, kardenal ospetsuak diñon lez, ainbeste tximistargiz inguratutako aldi  
onetan antxiñako orio ala gantzazko kurtzulu zañaz dabilena ondo ez litzake ibiliko-ta».

Aita Santuak, Madrid'eko Katolikotar Ekintzazko Batzafa dala-ta, Segura kar-  
denal agurgafiari bialdu dautson idazki edefean diñonez, gaurko aldiak deadarka lan  
ori eskatzen dauskue. Gogo askotan kristiñau ziñestea epelduaz doala oartzen dogu,  
oitura onak egunetik-egunera ustelduaz, eta bizitza ziñesgeen antzeko biurtuaz. Onez  
gañera toki askotan abadeak gitxi dira, edota euren irakatsiak askoren belafietaraño  
eldu eragitea galerasten yake.

Auxe dala-ta,

### Gustiok beldu (apostolu) izatea beařeko da.

Ez dira gure itzak Aita Santua'renak baño. Len aitatutako idazkian (iña onen 6'  
an Segura kardenalari bialdutakoan) azken alderuntz auxe diño: «Beraz gustiz beařeko  
da aldi onetan, gustiak beldu izatea. Gustiz bear beařekoa da, kristiñau lauak bizitz  
alpeřkerian ez egotea, eta Eleizaren guraria betetako gertu egotea, bere nekeak  
eskiñi, eta laguntzale erañak izanda, katolikotar ekintza zabaldu eta kristiñau arauz  
oiturak zuzentzen lan onuratsua egitea».

¡Yaungoikoak gura dau! esanaz, gure buru diranen menpean jekin eta yafai!...

# KATOLIKO IZPARAK

## Katoliko Ekintzako Batzara.

Īa onen 13'tik 18'rako iragarita egon dan katoliko ekintzako batzara Madrid'en andikiro ospatu da. Lenengo eguneraño bazkide izena emon ebenak 5 000'tik gora izan ziran. Gure Gazteiz-goterkia lenengo maĵan agertu da 1.000'tik gora bazkidegaz Befoĵei Gotzain inguru bildu dira.

Isidor deunaren eleizan Gotzain-Mesa edefaz asi zan, eta bertan abeslari, Bilbao'tar *Schola Cantorum* ospetsua izan zan. Zubizafeta artez-kari dabela talde bikain onek irabazi dituan txaloak ugariak izan dira. Ainbeste txalon artean geureak be entzutea gura genduke.

Afatsaldeko bostetan lenengo batzar orokoĵa egin zan eta bertan irakuĵi eben Aita Santuak, Segura Kardenalari. Katolikotar Ekintzaz idatzitako idazki bikaña, Bertram eta Van Roey kardenalari zuzendutakoetak irakatsiak zeatzago azalduaz Rodriguez S. Pedro kondeak, Katoliko-Ekintza lendakari lez itz egin eban eta bere ondoren Madrid'eko Gotzaiñak eta agintari-ordelariak.

Egun gustietan, goizeko saspiterdietan, Segura kardenalak gogartea azaltzen izan dau, Yaunartzeko Mesa aĵetik, eta gero amafetatik amabietara. iruretatik bostetara eta saspiterdietatik aĵera, gustiak lan gogotsu eta ederto egin dabe.

Egun ofeitān, Segura kardenal eta Aita Santuaren ordelariak egin zituezan itzaldiez gañera, bikainkiro itz egin eben Ziudad Real, Zamora, Tortosa, Kalaofa, Segobia eta Ziudad Rodrigo'ko Gotzaiñak.

Lekaide ta Abadez gañera kristiñau lauak euren batzar edefetan bildu ziran, gaztedi batzafak, gu'ras oen batzafak, emakume kristiñauenak eta aĵar.

Aita Santua'ren irakatsi edefak aintzat artu, adiraldu eta gizartean zabaltzeko asmo edefak artu dabez eta Eleizkizun edefaz euren lan edefa amaitu.

Batzar au onuratsua izango dala itxaroten dogu. Eta ofetarako bakoitzak al dabena egiten alegindu bear gara.

## Mixiñoetzako izpar begiko bi.

Ziñeste Zabalkunderako VIII'n Urban'ek 1627'n irasi eban Efoma'n Ikastetxe begiko bat Lateĵi gustietako gaste abadeĵeyak, bertan ikasketak egin eta gero alderdi gustietan ziñestea zabaldu ta aldeztuteko. Urban Ikastetxea deritxo, eta gaur bertan ikasten dabena 95 dira, 27 lateĵitakoak. Oin diarduen bafizkundera amaitu daitenean, 300'entzat tokia izango da. Ba, ikastetxe onetako ikasleak, Ziñeste Zabalkunde lendakaria dan Van Rossum kardenalak, bere lenengo Mesa emon ebala 50'n urtea betetan dabela-ta, *befoĵei* ziñesge erosteko lain diru bialdu dautse, diru onegaz erositako befoĵei umetxoak bere izenaz bateatzeko. Umetxuok alderdi gustietakoak izango dira eta euren argazkiak kardenal agurgariari bialduko dautsez Ziñez asmo begikoa izan da!

Aita Santuak Etiopia'ra berarizko ordelaritza bialdu dau, ango efeĵeai zorion agur idazkia ta bezuza batzuk bialtzeko. Martxeĵi Gongotzain eta Ziñeste Zabalkunde Bazkunako idazkaria ta beste iru lagun dira.

Etiopia'ko efeĵeak, Aita Santua'gaz artu-emon eta adizkidetasuna dauke. Ras Taffari Efoma'ra etofi zanean, Aita Santua ikertu ta bezuza edefak egin eutsozan. Batikano Urian egin dan etiopitar ikastetxe bafirako be uĵe afibitiz apaindutako zidafezko kurutze bat emon dau.

## Ingalandar ziñopa (martireak).

1594'tik 1679'ra bitartean euren ziñestea aldeztearen 244 katolikotar ingalandañei bizia kendu eutsen.

Eurotatik *berēun* egizko ziñopa dirala egiztu da, ta datofen Lotaziān Aita Santuak zoriondunen izendegian ipiñiko ditu. Euron artean Roberts Yon aba beneditaña, Arturo Bell Anai prantzizkotaña, Roberto Routwell yosulauna, Jorke Hoydok abadea ta Pilipa Howard Arundel kondea dagoz.

İfaren 8'an izango da eleizkizuna, eta 16'n eskozitar ziñopa dan Ogtlbie yosulaunena.

## Batikano'ko izpar-txorta.

Aziā'ren 5'n, oitura danez, Batikano Sixtina eleizan aurten il diran kardenalen gogo alde eleizkizun eta il-otoitzak egin dira. Igesko Deunoro egunetik ona zortzi il dira Lokateli kardenalak Mesa esan eban eta azkenengo otoitza Aita Santuak.

—«Osservatore Romano» izpafingiak bere irarkola, idazkola ta abar Batikano Urira aldatu ditu Len lez yafaituko dau, baña Aita Santutzazko izpafak eta erabagiak len irugafen ingoskian ekarten zituan lez, oin lenengoan eta lenengo zefendan ekañiko ditu. Bere artezkari Dalla Tofe kondea be bertara biziten yoan da Entzute ta itzal andiko izpafingi au 1861'n Aita Santu ta

Eleiza'ren eskubideak aldezteko sortu zan eta eten barik zintso yafaitu dau.

—Euren elizkerako Eleiz Batzafa egiteko, Ruentar elizkerako gotzain asko toki gustietatik bildu dira, batez be lpar amerikatik. Euren lanak amaitu ondoren, Aita Santua ikertu dabe.

—Segura kardenal agurgafiari, Aita Santuak lengo ilaren 28'n kardenal kapelia ezafi dautso. Bertan 18 kardenal eta Gotzain asko izan ziran.

—Datofen ilaren 5'n Italia'ko efegeak Aita Santua Batikano'n ikertuko dabe. Ofetarako gertakizunak egiten diardue.

—Egunokaz argitaldu da, debekatutako idazti txafen izenak dakazen «Index Librorum Prohibitorium» bafia. 563 ingoski dituz eta 15.000 idazti txafen izenak dakaz. Baña beste asko ta asko dira bertako arauz debekauta dagozanak, batez be ziñeste ta oitura onen kaltezkoak. 1925'n argitaldu zanagandik aldi gitxi dauko, lau urte onetan debekautako idaztiak eta Mefy del Val kardenalaren itz-aufe edefa kendu ezkeru.

—Aurtemin il zan Dubois Paris'ko Gongotzain eta kardenal ospetsuaren ondorengotzat Verdier Yon yaun agurgafia izentau dabe San Sulpizio abade bazkunako lendakaria da berau, eta il zanaren alzkide andia.



## XI'n PIO AITA SANTUA'REN BIZITZ IZPARAK

*Yayotza, gaztearoa ta ikaslea.*

Labur-labur baño ezpada be, Doipuru agurgafiari opaldutako zenbaki onetan, bere bizitz izpar batsuk emotea deritxogu. Akiles Ratti (XI Pio) 1857'ko Oriñaren 31'n, Pentekostesko Pas-ko eguñez, goizeko zortziretan Desio'n, Milan'go goterkiko urian, yayo zan. Ufengo egunean ugutzau ehen eta Ambrosi-Damian Akiles izenak ezañi eutsoezan.

Bere aita Ratti Prantzisko, irun ola baten zuzendari izan ondoren, ola baten yaubekide izan zan. Arpegikera gogofekoa zala irudi afen, on utsa zan, gusfiari on egiten alegintzen zana. Bere ama Teresa Galii emakume bikaña, umeak ondo azi ta eziten ekiana. Akiles, bost seme alabetarik laugafena izan zan. Bere efian abade batek eukan ikastolara urte baten ibili ondoren, Asso efian eukan osabaATEGANA bialdu ehen. Osabau bertako txauburu Damiano Ratti zan. Eri onetan beste urte bi ikastolara ibilita, amar urterdigaz, Barlasina'ko Kepa ziñopa deunaren abade ikastetxean sartu zan, eta bertan Sendatsa artu ta lenengo Yaunartza be egin eban.

Ikastetxe onetan lau urte (1867-1871) egin ondoren, Monza'ko ikastetxera aldatu zan, eta an iru urte (1871-1874) ikasi ondoren, pilosopia azken urtea ikasten Milan'go Karla deunaren ikastetxera yoan zan. Ikasketa gustietan galentzen zan, eta Talamoni yaun irakasleak esaten eban, ikasle bakana zala, eta bere afean azaltzen ondo gertautu yoan bear izaten eba. Bere ikaszaletasun ta benetasuna oarturik Kalabiana Milan'go Gongotzain agurgafiak bere «gaste-zafa» deitzen eutsen.

Teoloji ikasketak, 1875-1878'ra Milan'en egin zituan, eta bitartean alemanera, gerkereta eta iberkera ondo ikasi zituan. Matematikatarako gaitasun andia agertzen eban, eta gai onetan berarizko ikasketak eragiteko ibili ziran, baña Yaungoikoa'k beste asmo batsuk eukoan.

1879'n Gongotzain ikasketak osotuteko Efo-ma'ra bialdu eban, eta antxe ointxe 50 urte Laterano'ko eleizan, abadegintza artu eban, 1879'ko Lotazila'ren 20'an. Ufengo egunean bere le-

nengo yaupa, Karlos deunaren eleizan esan eban bere aita ta anai Fermo bertan zirala.

Eta bafiro bere ikasketari ekin eutsen. Iru urte ondoren, 1882'ko Epala'ren 13'n teolojian doktor edo yakitun txapela artu eban, Bagila'ren 9'n Eleiz-Legedian eta 23'an, pilosopian. Iru ilebeteen egiteko ez da gitxi! Bera ta Lualdi A. ezagutzeko gogoia Aita Santu Leon XIII'ak agertu eban, eta alantxe burugain esuak ipiniatz txalotu ta adoretu zituan onetsiaz.

*Lekaimen Kapiñau, irakasle ta mendigoizale.*

1882'n Milan'era biurtu zan, eta udaldian Barni'ko txauburua il zala-ta ordeazkotzat bialdu ehen. Aldi atan Milan'en Zenakulo'ko deritxoan monjak etxe bat idigi ehen, eta bertako kapiñau autua izan zan. Eia 32 urte gogoan alde eten barik lan egiten bertan igaro zituan. Autortegian, itzaldigiñan, batzafetan, gizarteko mala gusietakoak artu-emonak euki zituan; yaupari, lekaimen, ikasle, yakitun, salerosle, traskilak eurak be ezagutu zituan. Seireun ta ogetamabost ume, lenengoz Yaunartzeko gertatzen zituan, eta ofez gañera eltzen ziran baseñitarxoi kristiñau ikasbidea irakasten eutsen. Katekistak eguen gusietan batzafa egiten ehen. Antxe bere tokian aurkitzen zan. Itzaldiak eta gogo-iñarkunak ugari emoten zituan. Egokiak, mamintsuak, izketa lauan apainkeri barik egiten zituan.

\* \* \*

Kapiñautza onegaz batean izlaritza azaltzeko arasoia emon eutsen. Eta 1888'n Ambrosioana Idazitegiko irakasle bat il zanean, Zeriani yaun bere irakasle izandakoak bultzatuta, Idazitegiko irakasletza eskatu eban eta baita lortu be. Ba'zirudien araso au artu ezkereta, betiko idazti artean sartu ta zeregin ospetsuetatik aldentzen zala. Baña Yaungoikoa'k beste asmo batsuk eukazan! Antxe gorako bidea, igari barik, aurkitu eban. Antxe ibili ta gauza asko ikasteko eretia aurkitu eban. Biena'ko idazitegiak 1891'n ikertu al izan zituan. 1893'n Paris'era ostereta

egiteko aukera izan eban; 1897'n Suiza'ko yakitun batzafean izan zan eta 1900'n Munich'ekoan, 1907'n Zeriani lendakari yauna il zanean, Ratti yauna Ambrosiana'ko lendakari egin eben. Toki onetan lan edefak eta idazti bikañak egin eta argitaldu zituan.

XI'n Pio agurgafia, txikitatik mendigoizalea izan zan ta bere arasoak zaletasun au biztu baño ez eben egin. Lualdi kardenal agurgafi ta bere aizkideak «Un alpinista di prima forza» yolasez deitzen eutson. Opor aldian egun batsuk ofetarako artzen zituan. Mendi ganetan Yaungoikoa'k erain dituan edertasunak ikusiaz, bere gogoa indartu egiten zan, ibilteaz osasuna sendotu, eta nekeak, eragospenak azpiratzeko kemena geyagotu egiten eutsoen. 1885'n Turlo mendia ikertu eban; 1889'n ta 1890'n Monte-Rosa ta Zerbín bere befiko lagun Grasse'i'gaz. 1911'n ondiño Saboya alderdiko mendiak aztertzen ekin eutsen. Azkenengo mendi igotea Grigna mendira 1913'n izan zan.

Mendizaletasunetik irakatsi edefak atarata aldizkingian azalizen zituan; afiskuak igaro be bai. Ezin geinke luzetu, baña bat aitatuko dogu. Dufour mendian (4638 metro goyan dago) gabak artu, eta beste toki baten diñogun lez, edefi gustiak izoztuta egunari itxaroten geldi egon beafa izan eben.

### *Batikano'n, Polonian, eta Milan'en*

1914'n Ratti yauna Batikano'ko Idaztitegiko lendakari autu eben, Irala'ren 12'n izan zan autua Ehrle abaren ondorengo. Ixilean bere lanetan ziarduala, XV'n Benedito'k Bere Ordezko Ikerzaletzat Polonia'rako autu eban. Guda ondoren Polonia bafiro yayo zala esan geinke. Ain lotsagafiro 1772'n, 1792'n eta 1795'n sakabanutua izan zan latefia, bafiro auts artetik biztu zan, eta beti katoliko zintso izan dan efi onetan sortu ziran nasteak zuzentzeko, auzi gatxak ebazteko goterkiak eta atonduteko, Gotzañak aututeko, gizon yakintsu, adoretzu, eta bildufik ezagutzen ez ebana bear zan, eta XV'n Benedito'k Ratti yauna begiz yo eban. 1918'ko Yoñala'ren 25'n araso astunau leporatu eutson, eta ain bikainkiro bete eban arasoa, 1918'ko Ofiñala'ren 30'n asi eban. Ufengo urtean Bagiñala'ren 6'n Polonia'n Aita Santua'ren Ordeleri izentau eban. Garagafiñala'ren 6'n Lepanto Gongotzain izendun, eta Gotzaintza Barsobia'n artu eban Ufiñala'ren 30'n.

Filandia, Esthonia, Lethonia Georgia'n ta abar aginpidea be emon eutson eta Rusia'n be bai, au azken au 1918'n. Afisku andian egon afen bere tokian bear kuna betetan zirkiñik egin barik, bertan boltxebikiak egozala, Barsobia'n egon zan, eta Yaungoikoak nai izan eban poloniarafak garailari urtetzea.

Onetan 1921'ko udea eldu zan. Fefari Milan'go kardenal ospetsua il zan, eta bere ondorengo Benedito XV'ak Ratti yaun agurgafia autu eban. Ezakuna da, «norbere eñan iñor be ez dala igarle» baña Ratti yauna izan zala esan geinke. Milan'en andikiro artu eben eta ilē gitxi bafu lortu eban ikastoletan, udalen aginduz, kristiñan ikasbidea irakatsi egitea. Lotaziñan Milan'go Ikastetxe katolikotar ospetsua onetsi eban eta urteen azkeneraño bere menpeko Gotzañekaz batera idazki eder bat kistañai zuzendu eutsen. Gaurko gizarteko gaitzak zearo azertu eta osakai egokiak emoten zituan idazki bikain onetan, eta aufera eroan ezkerro onura asko emongo zituan.

### *Aita Santu.*

Baña laster XV'n Benedito agurgafia il zan, eta bafia autu bear zan. Eta euron artean ba zan bat, gizon egiz yakintsua, asko ikasi ta ikusia, kementsua, agintarien ordelariei naiz kaleko mutil koskofai itz egiten dakiana, argia, laua, gogoz eta gorputzez sendoa, eta gustiz onbidetsua, eta oneixeri Eleizaren Buru izateko. Kristo'ren Ordezko izateko ardura ta zeregiña 1922'ko Otsaia'ren 6'n Yaungoikoa'k emon eutson... Auxe da, gaur batikanon Efege ta kristiñau gustien Aita. Pio XI'n izentzat artu ebana, IX Pio'n aldian yayo zalako, X'n Pio'k Eñoma'ra eroan ebalako, eta Pio bakezko izena dalako.

Oraintsu il dan Dubois kardenalak esaten eban lez «Au Aita Santu andia, baita Aita Santu deuna da».

Zerbait aldizkingi onen zenbaki onetan ikusi zeinke.

Eta irazean idatziko-izpañok zerbait bere ezauguera ta maitasuna geyagotzeko izango al dira.

# AITA SANTU-IZPARAK ETA...

## Raptim transit.

Izok XI Pio Doipuru agurgariaren ikurdiko Itzak dira. Aita Santutzara afapalada baten igon ebalako, itz egokiagorik ez da efez aurkitzen. Gotzain autu eta urte biterdi bafu, eta kardenal egin eta saspī ilebete bafu, Aita Santu autu eben: Kardenal 1921'ko Bagila'ren 13'n, eta 1922'ko Otsalaren 6'n Katolikotar gustion Aita eta Buru.

Bere bizitzan mendigoizalea izan da, eta afaano bizkofaren antzera, lur onetako tokirik garayenera egazkada baten igon ebala esan geinke.

## Edesti bat.

Akino'tar Toma deunaren Irakastetxea XIII'n Leon Aita Santu yakitunak idigi eban. Ikastola onetan Teologi yakitun edo doktor txapela Akiles Ratti (XI'n Pio) eta Lualdi Alexander'ek irabazi eben. Liberatore aba, gaste onein azkartasunaz afituta, XIII'n Leon'eri itz egin eutson. «Ezagutu gura neunkez» erantzun eutson Aita Santuak.

Bere afaan belauniko ikusi zituanean, eskua buruan ipiniaz esan eutsen, eurakaz oso pozik egoala, eta pilosopi gayetiaz eukazan asmoak azaldu eutsiezan, eta artutako bidean afaera yafaitzeko adoretuaz, onetsi zituan.

Gaste biok Eleiza'ko gorengo maletara igongo ebala igafi ebala esan lei; bata ba, Palermo'ko kardenal zala 1928'n il zan eta Ratti gastea, gure Aita Santu agurgafia da.

Adimen zolia eukala, batez be, onetan agertu eban: 1882'ko Epala'ren 13'n teolojian doktor txapela artu eban. Bagila'ren 9'n Eleiz Legedian doktor egin zan, eta ile atan bertan 23'n pilosopian doktor edo yakitun agiria irabazi eban. Iru ilabeten bafuan iru yakiditan txapeldun!... Ez zan motela!...

## Iragarki bat.

Ratti yauna ondiño yaupari (abade) zala, X'n Pio'k Batikano'ko idaztitegirako deitu eutson-ean, bere aizkide bafu-bafuko batek esan eutson: «Soñeko baltzagaz zoaz; gofiaz etofiko

zara eta yantzi zuriraño elduko zara».

Ratti yaunak erantzun eutson: «Yaungoiko afaen olango iragarkirik ez egidazu egin».

Dirudienez aizkide ori begi onekoa zan, erdi-erditik igafi eutson ba.

## Mendigoizale erimea.

XI'n Pio'k Milan'en egin zituan abadetzako 32 urteetan, lekaime (monja) kapiñeu eta Ambrosiana idaztitegiko irakasle izan zan. Txikitatik zaletasun bi agertu zituan; idazti-zaletasuna eta mendigoizaletasuna, eta zaletasun biok beti izan ditu.

Idaztitegian aldi luzeak igarota, opor-aldia eltzen zanean, mendi goyentara igon-aldi edefak egiten zituan. Klub alpiño'ko bazkide zafa zan, eta ibilaldien bafi bertako aldizkingian emoten eban.


Berak edestuten dau, bein baten Rose mendira iñok igon ezdako bideetatik bere lagunakaz igon ebala, eta Dufour erpiñean, 4.628 metro goyan, otzik ikaragarienez gabak arturik, ez atzera ez afaera, edari gustiak izoztuta, zirkiñik egin barik gau gustia igaro beafean aurkitu zirala. Au gora-bera, ez zan bildurtu. Egun bi bafu beste erpin batera igon eban. Toki onetan beste zenbaki baten esan gendunez, aurtengo udan Mesa bat esan da, Aita Santu danak ara igon ebala befogeigafen urtea bete dalako.

Italia aldetik Mont Blanc'era lenengoz igon ebana berau izan da, eta ofexegaitik, bide oferi Ratti ta bere lagun Grasseli'ren izenaz deitzen dautse.

## Adoretsua.

Aita Deun agurgafi XI'n Pio adoretsua dala igarteko, bere lanai begiratzea baño ez dago. Gauza gitxik eta askok be ez dau bildurtzen. Ara egiztuteko yazokun bat.

Thisisling aba, Domekafafen buru izan zanak auxe esan eban: «Boltzekitafak Polonia'ko uri nagosian sartzeko su ta gar ebiltzala, Barsbia'n aurkitzen nintzan. Mundu gustia izututa egoan. Latefi ordezkarriak iges egiteko gertatzen ziarduen.



**BATIKANO.** Misiño erakusketa ertsitea 1926'ko Urtafila 10'an. (Foto Felici)

Ratti jaunagana yoan nintzan eta bere baretasunak afituta itxi nindun.

—Gustiak igesi doaz, esan neutson. Eta berak, ezertako ikara barik, erantzun eustan;—Ba, ni emen geratzen naz. Neure afitasuna agertu neutson eta nasai-nasai erantzun eustan:

—Afisku andian gagozala ondo dakit, baña gaur goxean Mesa-aldian, neure bizia Yaungoikoa'ri eskiñi dautsof eta, yazoten dana yazoten danerako ni gertautu nago»...

### Eredu bikaña.

Bilna'ko Ama Birjiña Baltza deritxon eleizara egin eben bidezkunde baten zan. Otz ikaragafia egiten eban; amalau mala zero azpitik.

Ratti yauna, eten barik etorten ziarduen kistafai ikasbidea emonaz, *ordu bi osoan* edur ganean belaubiko egon zan.

### Kardenal bariak.

Aita Santuak sei kardenal bari egiteko asma azaldu dau. Lotaziila'ren 19'ko Konsistorioan euren ezaugafia artuko dituenen izenak onexek dira:

Gonzalez Zefejeira Engeni yauna Lisboa'ko patriarka; Makrory ag. Armagh'ko Gongotzaña. (Irlanda'n) Berdier yaun ag. Paris'ko Gongotzaña, Ling Labitrano ag. Palermo'ko Gongotzaña; Karlo Dauhasio Minoretti, Genoba'koa, eta Pazelli ag. Berlin'en Aita Santua'ren Orde-lari dana.

Oneikaz 63 kardenal izango dira. 30 italifarak eta 33 beste laterietakoak.

Aita Santuak Laterano'ko Itunbenatzaz itz-egin dau, eta gai oneizaz eta, urte azken alderuntz edo, beintzat, laster, idazki orokor bat argitalduko dauala esan dau.

Urte askotan Eleiza'ren onerako, *Dominus conservet eum...*

**M'af G.**



# XI'N PIO TA KATOLIKOTAR EKINTZA

ZORIONEZ gure Aita Deun agurgafi dan XI'n Pio, bere eginkizun gustietan galentzen dala esan geinke. Mixiñoak ba'dira, beronen aldiñan baño auferapen andiagorik, aldi bardiñean iñoz ez dabe euki. 1922'ko Epañatik 1929'ko Epañararte 72 mixiño-erki bafiak eraldu ditu. Lateñiekazko artu-emonak ugaritzen gitxi lakoa. Saspi lateñigaz Itunbena egin eta beste irugaz arautegiak izenbetu ditu. Itunben onein artean Italia'gaz egin dabena naiko litzake bere izena edestian ospetsu egiteko. Eleiza'ren eskubideak zaintzen, batez be gazteen kristiñau ezikuntzaz Mussolini'n aurka, zurtasun ta kemen andienetarikoa agertu dau. Baña gustion gañetik, edo obeto esateko, aitañutako lan gustion gogo ta bizia lez dana, Berak «kutun - kutun daben, biotz bafenean dauken eta Bere begi-nini lez dan» (1) *Katolikotar Ekintza* da. Itzaldi gitxi egin eta idazti gitxi idatziko ditu, au aitatu barik. «Kristo'ren Bakea Kristoren Bakaldefian» lortuteko, Katolikotar Ekintza bidetzat autu dau, eta Bere menpeko gustiok ofetantxe geure adimen, biotz, ta besoak, ipiñi daiguzan alegin gustiak egiten ditu. Eta bere irakatsi ta aginduak nok aintzat ez ditu artuko?...

\* \* \*

Eta Katolikotar Ekintzaz *Yaungoiko Zale*'n itz egin dogun afen (2), XI'n Pio agurgafiak emon dautson eralben eta eragipena-

tzaz zerbait zenbaki berezi onetan esatea dagokigu.

Katolikotar Ekintza, Eleizan, era batera edo bestera, beti izan da. Aita Santuak Bertram kardenal jaunari zuzendu eutson idazkian diñon lez (3) Paul deunak Pilipotafai bialdutako idazkian (IV Atz. 3, a.) bere «lankideak» aitatzen ditu eta Goizpar Ebanjelioa zabaltzen beragaz guda egin ebenai laguntzea nai leukela, adirazten dau». Lenengo gizaldietatik ba Katolikotar Ekintza Eleizan izan da, «Kristiñau lanak Eleizako buruai dagokien belduntzan *lankide* izatea» da-ta, XI'n Pio agurgafiak diñoskunez. (4)

Katolikotar Ekintza, gizaldiak zear era askotan agertu da, baña gaurko arpegikera igarotako gizaldiaren erdi ezkerokoa dau. Batez be, prantzetar itxulaskundeak gizartean zabaldu zituan guzur eta ondoren galgafiai ezi bat ipinteko sortu zan.

Lenengo IX'n Pio'n aldiñan, Eleiza'ren azkatasun aldez eraldutako italiatar gaste bazkunak asi zan. XIII'n Leon'en aldiñan katolikotar Batzar eraz azaldu zan, eta Aita Santu yakitun onen irakatsiak oñafitzat artuaz, X'n Pio Aita benetan deunak Katolikotar Ekintza'ren arau-lenak, Italia'ko Gotzaniñau zuzendutako idazki edefean azaldu zituan. (5) Auxe bidetzat artu eban, kristiñau-gizabidea zabalduaz, «Kristo'gan gauza gustiak bariztatze-

(1) «Ubi arcano Dei», idazk. or. 1922'ko Lotaziña 23'n.

(2) J.-Zale Azila 1, ta Lotaziña 1.

(3) «Quæ Nobis» 1928'ko Azila 13'an.

(4) «Ubi arcano Dei» idazk.

(5) «Il fermo proposito» idazk. 1925 Bagiaña 11'n.



ko». XV'n Benedikto agurgafiak, aufekoak lez, belduntza bat zala adiraziaz, bakoitzak euki leikezan politika utsezko eretxien gañetik eta atetik, Katolikotar ekintzaren una, une atan, «gizartea bafiztatzeko kristiñau-gogoak gertatzea zala» esan eban. (6)

\* \* \*

Baña *Katolikotar Ekintza*'z geyen azaldu, egin eta eragin dabena, gure Aita Santu agurafi XI'n Pio da. Ekintza au, goragoko mala-ra yaso dau, eta ekintza onetan kristiñau gustiak lan egiteko agindu dau. Bere asmo gurena «Pax Christi in Regno Christi» Kristo'ren Gentza, Kristo'ren bakalderian». Au bafiz Berak esan eban lez (7) «Gizadi gustian Kristo'ren Agintea zabaltzean dago». Ofetarako, Bere lenengo idazki orokofetik asita, ainbeste bider esan dabenez, kristiñau gustiak, kristiñau bizitza ta eragipena zabaltzeko ardura dauken Eliza'ko buruen zuzentzapean, bakoitzak katoliko bizitza sustraitu, marduldu, eta besteen biotzetan berberori egiten alegindu bear dau. Au, gaurko egunean bear izan andia dago-ta, ez da abadeen zeregiña bakafik, zelanbait kristiñau gustiena da. Bertram kardenalari zuzendu eutson idazkian diñon lez (8) «Katolikotar Ekintza, katolikotar *gustion* ekintza orokor eta batera yoten dabena izan bear dau», eta onetan, zar naiz gaste, gizon naiz emakumezko, yakitun eta ez diranak, alderdi ta latefi gustietakoak sartzen dira.

Bakoitzak bere malan eta adin, izakera, aldi eta tokien ez-bardintasunai dagokionez, baña safitan esan dabena lez, katolikotar gustiok, kristiñau bizitza osotasunera eltzen alegintzeko beartuta gagoz, eta bizitza ori *egitez* agertu bear dogu, Zelan? Gizona danak, toki ta aldi gustietan adimendun, sentzundun, agertu bear dabena lez, katoliko danak, katolikotar bizitzaren ezaugafia, itz, «gite, eta toki

gustietan agertu bear dau, eta bizitza ori zabaltzen, al dabena neufiz, alegindu beara dauko.

Bearkun au egokiro betetako, Aita Santuak gura dabena lez, *alkartu* eta Eleiza'n buru diranen menpean *eraldu* egin bear gara, kristiñau ikastia, ziñesteko egi lenak aldeztu eta zabalduta, bakoitzagan, sendian eta gizartean Kristo'ren bizitzak dis-dis egin dayen. Itz baten: *Kristiñau bizitza bizi eta bizi eragin*. Auxe inñotson XI'n Pio agurgafiak, Beljekar gastedi katolikotafak eraldu dituan Brohée kanonigoari: «Kristiñauak, bein eldu ezkerro, artu dabena bizitasuna bere inguruan zabaldu bear dau. Kristiñautasunaren ondasunegi au toki gustietara eroan bear dau, eta egitez, toki gustietan aintzat artu eragin, sendian eta gizarteko bizitzan. Guk gura doguna, Kristo'k zeruan lez luñean be efegetza eukitea da, eta luñeko agintza au, egitezkoa izatera eldu daitela». (9) Auxe dala-ta, itzaldietan esan eta befesan dau: «Katolikotar Ekintza zer dan? *Ekintza*, au da, bizitzaren edozein agerpen: bizitea, egitea da. Baña, bizitza onen izakera; ikurpena, mamiña beste itz onetan dago: *katolikotara*. Itz onek, bere itxorkunez, orokofa esan gura dau». (10) Gure gogoak, gorputzeko atal gustiai bizi eta eragipena emoten dautson antzera, Katolikotar Ekintza'ren bidez, geure bizi gustiai, sendi bizitzari eta gizarteko bizitzari, goiko bizi ta eragipena emoten *Gustiok* alegindu bear gara. Araso gurena eta bikaña benetan!

\* \* \*

Esan dogunetik cfez igafi geinke, Katolikotar Ekintza, Eleiz Bazkunetako ekintza baño geyago zabaltzen dala, areik berariz, *bakoitzaren* deuntasunera zuzentzen dira; katolikotar Ekintzan bafiz bakoitzarena laga barik, eta oñafizat artuta, kristiñautasuna gizartean, era gustietara, eta toki gustietan zabaltzen alegintzen da. Itzez, egitez, irakatsiz, ototitez, ikasbidez, era gustietara eta bakoitzak al dabena neufiz...

(6) «La Acción Católica» Noguera N. Ab. S. J.—Madrid—1929, tom. I, cap. III lenengo atala.

(7) «Piccoli Amici dell'Università del S. Cuore»koaki 1926'ko Epañan 13'ko Itzal.

(8) «Quæ Nobis» idazk., Azila 13-1928. Baita Segura Kardenal Agurgafiari. 1929'ko Azila 6'an zuzendu dautson idazki ederean.

(9) «La Vie Intellectuelle» Oriña 15-1929'n 790 ingosk.

(10) «La Documentación Catholique» Otsaila-16-1929'n Osservatore Romano'tik artuta 397 ingosk.

Baita, politikazko alderdi gustien gañetikoa dala argi dago. Alderdiak, itzak berak diño, alde bateri bakafik begiratzan dautsola, eztabaidako auzietan sartzen dala; Katolikotar Ekintzak ostera, bere egi lenak Eleizaren irakatsi egizkoetatik artzen ditu, eta eztabaidako alderdi gustien gañetik eta atetik agertzen da. Alderdiok ez ditu debekatzen, baña, baikoitzak bere eretxiak euki afen, Katolikotar Ekintzak nastatzerik ez dau gura, aitatu ditugun agirietan ikusi leikenez.

«Baña, XI'n Pio'k diñon lez, politikea altarara uferatzen danean, uste izan leike Aita Santuak, abadeak eta kristiñau katolikoak, politikea egiten dabela, baña *egiz* eurak erlejiñoaz arduratzen dira. Guk erlejiñoa baño besterik ez dogu egiten, Eleizaren azkatasun alde, sendiaren deuntasan alde, ikastolen deuntasan alde, eta yayak yai egitearen alde yokatuten dogunean». Oneitan eta onein antze koetan ez dau politikarik egiten; politikea da uskurtz (erlejiñoari) eta altarari ikutu dautsona» (Gastedi kat. itzaldian). (1)

Katolikotar Ekintzaren zeregiña ba, politika, alderdi, lateñi, bazkun, ikastola, sendi, itz baten gizadi gustian, Kristo'ren irakatsiak, Kristo'ren Agintza, Kristo'ren bizitza ta eragipena sustraitutea da. Orixe da Gure Aita

Santu agurgafiak eskatzen dauskuna. Ukaturko ete dautsogu?...

\* \* \*

Aita Santu agurgafi XI'n Pio'k lenengo Mesa emon ebalá 50 urte il onen 20'n betetzen dira, eta Yubileo au dala-ta, pozez be-teaz gañera, zerbait geure Aitari eskiñi bear dautsogu. Geure otoitzez gañera, Berak ain maite daben Katolikotar Ekintzaren alde zintzo ta kementsu yokatufeko zin-egin bear dogu, olantxe *Yaungoiko Zale*'n asmoak be ondoen beteko doguz-ta.

Baña batez be yaupariok berariz beartuta gagoz, idazle bikain batek diñon lez (1). «Katolikotar ekintza» apostolutzaren era bat da. Eta belduntza edo apostolutzan abadeak baño bear kun geyago, nortsuk daukien esan ete leike?» Gustiok gitxi asko egin bear ofek lotzen ditu, baña, berariz, ofetarakoxe bizia opaldu dabenak baño geyago, iñor bez...

«Paul deunak diñon lez» *Egia maitasunez egiñaz...* (2) jekin eta yañai!...

**Manferola'far Gabirel.**

*1929-Lotazila'n*

1 «La Acción Social del Sacerdote» Joaquin Azpiazu. S. J. Madrid 1929. I atal. II atz. 42'n ingosk.

2 Ad Eph. 4, 15.

1 «La Vie Intellectuelle» Oriña 15, 1929'n 802 ingosk.